


Maiatz:

hepriette aire au
relia arrochala
ixarrosagaraie
miliobeltzaitzaro
borðamaia jonca
senave jean louis
davant manexer
dozaintzietzarte
hautetramendilu
cienetzeharre
tapiarres lafitte
michelgardidani
ellan dartermin
daria gabehitoi
harlabalmanex
agola tromipetil
lenmayipelotetien
salaberripiarres
arrifonau tinzamor





aurkibidea

<i>Etien SALABERRI</i> -2	<i>Nigar egiten dut zutaz</i>
<i>Itxaro BORDA</i> -3	<i>Hordago (sergei Essenine-ri)</i>
<i>Itxaro BORDA</i> -3	<i>Zail dira usantzak</i>
<i>Auxtin ZAMORA</i> -4	<i>Bide bazterretako arbolak</i>
<i>Auxtin ZAMORA</i> -4	<i>Matte</i>
<i>BELTZA</i> -5	<i>Hitzkuntza eta sortzapen literarioa</i>
<i>Itxaro BORDA</i> -10	<i>Veuve Clicquot</i>
<i>Itxaro BORDA</i> -11	<i>Steinbeck</i>
<i>Eñaut ETXAMENDI</i> -12	<i>Dartemalda</i>
<i>Mayi PELOT</i> -15	<i>Miren</i>
<i>J.PREVERT(itzulpena)</i> -16	<i>Maitasun hau</i>
-18	<i>Nor zira , Piarres LAÏTTE ?</i>
<i>Lucien ETXEZAHARRETA</i> -26	<i>EZ</i>
<i>Henriette AIRE</i> -28	<i>Egiaren egarriz</i>
<i>Ermi MADARIAGA</i> -29	<i>Ahuntzen ibilaldia</i>
<i>Henriette AIRE ta Michel GARDI</i> -30	<i>Kiskil kaskail</i>
<i>Lucien ETXEZAHARRETA</i> -31	<i>Arrozen urteen bidean</i>
<i>Manex PAGOLA</i> -33	<i>Azken euskalduneri</i>
<i>Manex ERDOZAINZI-ETXART</i> -34	<i>Herri honen erraietan</i>
<i>Marek HALTER(itzulpena)</i> -51	<i>Salomonen heriotza</i>
<i>Aurelia ARCOCHA</i> -53	<i>Georges BRASSENS</i>
<i>Txomin PEILLEN</i> -54	<i>Mintzaje ta eskola ziberoan</i>
<i>Ladix ARROSAGARAI</i> -55	<i>Sukaldetik nehora</i>
<i>Jon CAZENAVE</i> -56	<i>Haizea eta harría</i>
<i>Xavier GRALL (itzulpena)</i> -57	<i>Kultura eta Bretaniaren geroa</i>
<i>Jean-Louis DAVANT</i> -59	<i>Askatzen</i>
<i>Itxaro BORDA</i> -60	<i>Euskaliburu</i>
<i>Daniel LANDART</i> -61	<i>Lantegiko komunean</i>

Aldizkari bat, gurea. Gauza batzu, denetarik, euskaraz, lantuak. Gure literatura.

Literatura, zertarako ? Gure sendimenduak ez dituen bakarrik pasabainan bizi ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta mendiak, esperantza eta gau baten zoriona, euskaraz. Gureak euskaraz direlakoan.

Literatura guretako. Ez gauza hil batzu, ikerketa hotzetarakoak eta errautsez bete erakustokietarakoak.

Literatura bizirako.

Nigar egiten dut zutaz

Nehor ez baita zutaz orhoitzen,
 nehor ez baita zutaz urrikaltzen,
 baitzira, iduri piltzar, bazterrerat utzia,
 lehengo lehengoan orhoitzapen, bide, irringarri bitzia,
 trufatua,
 ostikatua,
 zangopilatua,
 bai Ipar aldetik,
 bai Hego gunetik,
 koropiloak ongi tinkatzeko galdegiten baititu biga,
 estekan emana, eta estegailua, indarra indartei, ezin higa...
 hala eramaiten dute zamari basa merkaturat, soka labur,
 heia odolean kexua ez zaionetz iratzartuko beldur,

aberatsek, ikusi orduko dirdir urhea, uzten baitzituzte
 bazterrerat,
 berdin egin zukeen ohi Judasek Jesus Jaunaren alderat;

erromesak baitoatzi bizi hobearen bilha, norat nahi
 lasterka,
 atsegabetik atsegaberat, mando ederretik asto txarrerat,
 asto txarretik lur idorrerat eroriko baitira,
 zorigaitzez, trumilka,

baitira etxeak suntsitu,
 irrintzinak gauaz ixildu,
 ez baitio haurrak, hastearekin xoxoak hixtuz, emanen beharri,
 ez eta xaharrak, dena keinu trebe, musean hasiko sarri,
 jantzatik geldituko baita banderaren hegala,
 abarrez abar eiharturik eroriko baita mendiko errege arbola,

nigar egiten dut zutaz, Eskual Herria:

ene haur bihotzaren gainean dorpe dago zure hil harria...

Bainan ez, lagunak,
 bainan ez, haurrideak,
 ez izan ahalge,
 ez izan herabe

ithoko du gaua iguzkiak,

hostatuko dira zazpi erroz lotu Eskualdun mende berriak.

Heletan sortu zen Etiem Salaberri apeza arras ezagutua zen bere Herria-ko asteko kroniken bidez («so egilea» izenpetu artikulua eta frantsesezko lanak, «la Tribune du Prisonnier» edo «Pointes Seches») 39-45.eko gerlak eta bere orduko kartzelan, «stalag»ean ereman biziak barna hunkitu zuen eta beti Europa berria eta bakea bila zabilan. Filosofia irakasle luzaz egon da Villa Pia ikastetxean eta bere azken egunetan ezin idatziz eta gaizkiturik bere buruaz beste egin du. Herriko euskara garbian obra gaitza publikatu du eta haren irakurtzea guzientzat aberasgarri izanen da. Hemen dugu bere herriarekin zituen maitasunezko hatzen ezaugarri bat, hunkigarria.

Zail dira usantzak

Mattin, ez zaituztete, Xalbador zena bezainbat ohoratu. Urepeleko artzainaz mintzatzean baizik ez dira zutaz gogoratzen ... Egiaz, ehorzketa ederrak, hunkigarriak egin zizkizueten, baina geroztik arras gutik moldatu dizkizu bertsoak zure auspez. Artikuluak ere hurri-hurriak agertu ziren; gertakariaren inguruan zabiltzanetarik bazter : ezer ... Eta ni, berdin ixildu naiz ... Zure orroitzapena bera nere hitz soberakinez ilundu beldurrez ...

Mattin zu zinen Xalbador zen tesisaren antitesisa.

Zioten hura poeta zela, eta hala zita-keen; nik diot gaurgoitik zu zinela egiazko bertsolaria. Paper xuri errezetan baino, Hitza ahozkatu nahiago baitzinuen. Ni ere, Mattin, zorigaitzez lumadun horiek enganatu naute ...

Bazinakien hitz bakoitzaren musika fisiologikoa, haren neurri bakuna; bazinakien mainkuka zabilkeela eta batzutan zango mila behar zituela, berme zutik egoiteko. Ikasi zinu- nuen pikoka, pikatzen, erdizka bat ebatsi ondoan pika egiten. Bai, eta hau asko da !

Gure mendeko hitz jario epel de- baldean, Hitza aire minka batez zuhurtu, berpiz- tu duzu... Hitza jadanik emendatzen baitau- kute huts sakon nagia- ren itzaltzeko. Ez ote zinen hutsaren beldur ?

Herri serioegi hontako larretan, ironia- ren sorbatza zorrotzurik erabili zinu- en. Irriak, gaiak bestelakatz- en ditu, erlatibizatzen hein batean. Xalbadorren atsoluta beharra, gure arauaz trenkatzen zinu- en Mattin ...

Arren Mattin zure arpegiaren beroa gogoan hitz alfer gehiegi idatzirik, eta herri honen latza edanaren zorabian hiltzeko, baso bat ardo gozo hartuko dut.

Zail dira usantzak ahanzten ...

Hor dago bertan gizonen mina
erraten duen egia,
gaubeltz ainarak odoleztatzen
diren gisan alegia
ogiburuak moztzen dituen
igitai haren begia!

Agur lagunak, agur, adio,
errez duzu ixiltzea,
zutik dabiltzan haien artean
belauniko ibiltzea
eta finean bide bakarren
itzal freskoan hiltzea...

Nora eraman nauzu ametsa,
amets argi ta ausarta?
Joker ahul bat geldituko zait
eskuan hutsaren karta:
erre ditudan sinesmen orok
egin bezate zaparta!

Kanta zazue, gazte zarete,
Ni zaharregia naiz,
denborak duen indaritsuak
gaintituko nauke araiz:
aho hetsien kurai gorderi
pentsatzen dut horrela maiz...

Gazteok kanta zazue alai
zuen bizitza segurra,
kanta zazue egia denaz
arbola eta egurra
ahanzmenaren basamortuan
zuritzen dela hezurra.

Banoa, joan mainkuka, triste,
ez naiz ni mundu berria.
Alta aintzina doalakoan
maite dudan aberria
beti segitu nahiko nuke
altzairuz sortu herria...

Hor dago

(sergei essenine'ri)

Bide bazterretako arbolak

Auztin

Su haziaz egin nituen izarrak
nahunerekoak
bezala gizonak,
eta gauza asko; zirimolan denak

*

Bainan uste nuke utzi nituela
bide bazterretan
arbolak bakean
dituzten ametsez bezti zitezela

*

Bai eta erromes bidaliere direnen
urratsen errautsak
irri ta xagrinak
beren aldaxkeri zintzili zitezen

Negua delarik dira urrikalgarriak
kanpoan bakarrik,
arras biluzirik,
haize hotzarekin daldarez josiak

Orotarik zilo zabalik besoak,
adar puntan puntak
xorox xorroxtuak:
hobeki hartzeko zeruko indarrak

*

Hotz eta min dute beren erroetan
dituzten ametsak:
biharko hostoak
hasten direlakotz sortzen lur barnean

Atherbetan gizon eta abereak
sartzen direlarik,
goxatu nahirik,
neri beha daude arbol biluziak

*

Ez nituzke nahi ikusi sofritzen :
Neure iduzkia,
goxo estalkia,
beren abarretan diotet pausatzen.

*Matte, lillurekin,
indar itsuekin,
amorratu nauzu zuretzat ongixko,
larre, sasietan eske ibiltzeko.*

*

*Sorginen munduan,
ez da deus argitan,
jestu eta hitzen murrugibetan,
inkamineri da behar kasu eman.*

*

*Geroztik gauetan,
ilargi betetan,
arima deraukat, han, ote beltzetan,
ote beltzetan bai ote xurietan.*

*

*Azti belagile,
belar idortzale,
bilakatu nauzu zure begientzat,
lilien moztaille zure ileentzat.*

*

*Zuhaindor bihia
dela pozoinena,
arrosa salbaia xarmegarriena,
neretzat, zu zaitut maitagarriena.*

*

*Zuk bota zortea,
ez zen betikoa,
atxemanik oroit loreen artean,
sekretuen giltza, zu ez othartzean :*

*

*Matte, lillurekin;
indar ituekin,
amorratu zaitut nik ere ongixko,
nerekin larretan eske ibiltzeko.*

*

*Sorginen munduan,
ez da deus argitan,
jestu eta hitzen gibetan,
inkamineri da behar kasu eman.*

*

*Geroztik gauetan,
ilargi betetan,
han, biak, gaude mihan ote beltzetan,
ote beltzetan bai ote xurietan*

Hizkuntza eta sortzapen literarioa

BELTZA

1981

Ipar Euskal Herria

Hizkuntzarik gabe ezin lezake idazleak deus ere sor. Aho hizkuntza, besterik gabe erabiltzen da; eda iduri liteke idazteko beharrezko bitarte bakarrak direla aiseki ikas daitezkeen irakurketa eta idazketa. Baina ez da holan: egia erraiteko, hizkuntzaren erabiltzea ez da gauza hobengabea.

Textoa idazterakoan, idazleak gai ainitz nahastekatzen du bere inspirazioaren labean. Han kausitzen da haren hizkuntzak duen nazione edo komunitatearen egoera; bai eta ere komunitate hontako talde eta sozial klaseen mintzaira bereziak, eta mintzaira berezi horien erabiltzeak suposatzen dituen kausak eta ondorioak. Gainera, idazleari inposatzen zaizkio hizkuntzak berak bere muinetan daratuz balore eta tabuak. Eta idazketa komunikazio nahikundea denez gero, idazleak besteeikiko dituen eta ukan nahi dituen harremanek zerbait eginen diote ere.

Hortaz ez da beti ohartua idazlea. Hizkuntzak behikulatzen dituen erran nahiak ez dira osoki konstzienteak; alderantziz, idazleak idatz lezake erran nahi ez zuena, eta haren testoei irakurleari idekitzen dizkiote egileak berak somatzen ez zituen errannahi eta interpretapenak.

Idazketaren konplexitatearen gaineko ikusketa hau bururatzeko, dezagun aipa eragipenen problema: idazleak ezin diezaioke bere gainean beste testoekegiten duten eragipenari ihes egin; aldiz, beste idazleenganat itzulia izanen da, irakurketen bidez bere mundua eta bere teknika aberasteko.

Horiek hola, nabari da idazle euskaldunak zerbait sortzeko dituen ahalmenak ikertzeko bidea, aski labaintsu eta laburrezina dugula. Artikulu hontan, soziologiak eta linguistikak lagundurik abiatuko gara; idazlea, irakurlea, hizkuntza eta herria aipatuko ditugu, haien arteko harremanak argitu nahiaz. Halere, ai-

patutako eragipen guziak idazlearen inspirazio eta etorriaren labean dira galgatuako, eta azken urrats honen analisisa metodo eta sensibilitate bereziei dagokie.



Herri menperatuaren egoera berezia inposatzen zaigu lehen ebidentzia bezala. Euskal Herriak ez du bere euskalduntasunari legokion estatu edo administralgorik, eta, gure gizarte hontan, honek ez du estatu gabeko gizarte dohatsua garelarik erran nahi; alderantziz, arrotzen estatu eta administralgoaren pean gertatzen gara, eta gizarte industrial modernoari dagozkion bitarte ekonomiko eta sozialak arrotz hizkuntzarekin ditugu uztartuak. Horregatik, egungo gizarte komunikabide gehienak ukatzen dizkigute, eta «mass media» direlakoek behikulatzen duten diskurtsoa arrotza zaigu ere. Edozein kontsumo, eta kultur kontsumorako ere, ederki hornitu eta apailatuak diren irrati-telebistak, kazetak, aldizkariak eta liburu best-sellerrak, euskal (euskaldun) munduaren kanpoan kausitzen dira.

Hau dela eta, guri dagozkigun texto posible bakarrak, espektroaren bi muturretan kokatuko dira, arrotz kultura eta sasikulturaren inbasioak uzten dizkigun eremuetan.

Hala nola, lurraren hurbil, oraino bizirik diren herri xehearen sortzapen espontaneoak: bertsolaritza, trikitrixaren koplak, eta abar. Aintzineko egitura sozialak eta haiekin dagoen euskara biziko direno, mass medien produktuak ez dira gauza izanen holako sortzapenak leku-tzeko.

Eta, beste muturrean, literatura hutsaren sortzapenak aurkituko ditugu: elaberriak eta antzerkia, olerkiak bereziki, publiko murriztatzen eginak.

Maiatz 5

**IDADZLEA, IRAKURLEA ETA HERRIA AIPATZEN DITUGU HAIEN
ARTEKO HARREMANAK ARGITU NAHIAZ**

Halere, bi sortzapen hauk funtsezki ezberdinak dira. Eta politika aipatu behar da.

Pairatzen dugun kinka izenda eta iker daiteke politikaz. Haren aintzinean ematen ari den arrapostua ere. Baina politikak suposatzen ditu kritika eta egoera orokorraren interpretapena. Horregatik, herri xehearen bitarte gabeko ihardespentetan politika gutti. Herriaren egoera inmediatean ez da lekurik kritika orokorrenzat: mass media erdaldunak eta euskal forma tradizionalak elkar ari dira bizitzten, biak gauza naturalak bailira; anitzetan, elkar ukatzen dira euskararen kaltetan; besteetan, euskarak inguratzen eta liseritzen ditu, bere onerako. Hein hontan, euskara maitatzeak ez du giza harreman ekonomiko eta politikoei buruzko ikuspen orokorrik ekartzen, eta politikatik kanpoan gertatzen da usu bitartetik gabe sortzen ari den literatura herrikoa.

Ez da berdin gertatzen kultura elaboratuaz jantzirik diren idazleengan. Komunikabideetatik at eta kultura zentroetatik urrun dagoen hizkuntza bat bere idatz hizkuntzatzat onartzeko, hauta honekin uztartu du idazleak bere herriaren egoerari buruzko interpretapen landu bat. Euskaraz aritzerakoan, herri hori salba, iraun edo bizi dadila duen nahikundeia expresatu nahi du. Eta politikari loturik agertzen zaigu literatura moderna elaboratua: politikari loturik ziren idazle sotanadunak, euskaldun fededunen gaineko eliza eta notable-jaunttoen erresuma betirako begiratu nahi zuten haik; eta politikari lotuak, nahitez, egungo abertzaleak.

**HIZKUNTZA GIZARTEARI
LOTURIK DAGO**

Baina, politikaren gorabehera, idazleak ezin lezake nehongo gizarterik izpilatatu bere gizartean hizkuntza bizirik ez balitz. Eta, zoritxarrez, egungo idazle euskalduna ez da euskararen murgildurik bizi. Hasteko, eredu literarioei dagokionez; herri ttipia gara, eta halabeharrez, nahiz menperatuak nahiz libreak bizi, beste hizkuntzetan idatziak dira (eta idazten ari dira) gure eredu literario gehienak. Holan, bere buruaren barnean etengabeko itzultze lanean dihardu idazleak, bere hizkuntza propioaren egituretan sarrarazteko teen hizkuntzen bidez ardiestutako aberastasanak. Eta honek ez luke, berez, soberazko garrantzia, hizkuntza hartzailea hizkuntza emaillea bezein trebagarri balitz ere; baina hau ez da euskararen kasua.

Hizkuntza gizarteari loturik dago. Euskal Herrian euskara zen gizarte aintzin kapitalistaren hizkuntza bakarra; aldiz, iraultza industrial eta estatuen omnipresenzia gurean kokatu direnean, ez da beti izan euskararen onerako. Euska estaturik ez dela ba dakigu, eta hau gertatzen da nahiz Iparraldean, nahiz Hegoaldean. Baina gure lurraren bi adar urratuen arteko diferentzia beste puntu batean datza : Hegoaldean, klase hiritarrek begiratu eta errebindikatu dute ere bai euskara.

Nahiz burgesiaren parte bat, nahiz langeliaren multzo eder bat, nahiz (eta hau kulturari doakio zuzenki) hiritar burgesia ttipia eta bere intelektualak, euskaldunak gertatu dira haien eguneroko mintzairan eta haien xede politikoe-tan. Laborarien hizkuntzak jarraitzen zueno, gizarte modernoa izpilatzen zuten mintzairak ziren ageri. Hau da egungo egoera. Duda gaberik, erdara sartu da ere Hegoaldeko gizartean, eta indarren erla-zioa ikusirik ez da harritzeko Hegoalde-ko mintzaira hiritarra espainolez ederki kutsatuta ager dakigula. Baina honek ez dio bizitasunarik kentzen; Hegoaldean, Mendebaleko gizarte hiritar industrialetan gertatzen ari diren gizarte, hizkuntz eta komunikazio fenomeno gehienak aipa eta adieraz daitezke euskaraz. Egia da ainitzetan euskaraz ez duela sortzen; noiz-behinka nekez, usu erre'z, espainolatik datorkiona bere baitaratzen eta egokitzen du. Baina mintzaira hura euskara da, eta gizarte multzo handi batek konprenitzen ahal duen erraz erabiltzen da. Hegoaldeko gizarte industrial eta urbanoan, hirien seme alabak zilegi ainitzek erabiltzen dute euskara komunikatzeko kodigo balioarritzat: hau dugu fenomeno nagusia itxaropenez beterik.

Ez da berdin gertatzen Iparraldean. Beste ildotik zen abiatu hemengo bilakabide ekonomikoa, eta laborarien gizartea da lur hauetako barne egitura koherente duen multzo esukaldun bakarra. Noski, laborarien bizkarrean bizi ziren notable, apez eta mirikuak ditugu multzo honen idazle kultoak; baina nahiz eta laborariak ez izan, laborantzak sortzen dituen egituretan sartuta kontsidera ditzakegu.

Bitartean, kostaldeko hirietan batez ere, zibilizazio berri bat hedatu da. Eta zibilizazio hau ez da euskalduna. Ba dira euskaldunak hirietako langile, burges ttipi eta burgesen artean, baina haien arteko loturak ez dira aski azkarrak giza talde eratu eta definitu bat sortzeko. Egun, ez da haizu Iparraldean «euskal burgesia» edo «euskal langileria» dela erraitea, bereziki bere esistentzia eta eginbide historikoaren kontzientzia duen gizarte talde mugatu bat aipatu nahi bada.

Beraz, Hegoaldean gizarte moderno diglosiko bat dugu: erdara nagusi, bai ki; baina euskaraz dituen bizitasuna eta edu-kin politikoaengatik, euskaraz kritika eta

pentsa daiteke gizarte osoa, eta euskaraz elkar komunika daitezke idazlea eta bere hizkuntza erabiltzen dutenak. Iparraldean, berriz, hiritarrak duen bizitasuna oso ahula da eta idazleak eragozpen gaitzak nagusitzen ditu Mendebaldean gertatzen ari diren komunikazio eta gizarte fenomenoak izpilatzeke, eta bere hizkuntzan integratzeko. Bazter batetan, argota, sloganak, modak, hala nola proletargo edo zonaren mintzairak, euskaraz elikatzen duen bere egunerokotasunetik kanpoan gertatzen zaizkio; beste puntan, zientziari lotuak diren hitzmoldeak ez dira nehoiz harenak izanen. Idazleak egiten duen itzulpen lana ez da automatiko; gramatiketan eta hiztegia ibiliko da, eta han finkatuko komunikatzeko textoak. Holan textoa irakur diezaioketeenen kopurua murrizten zaio: gramatikaz eta hiztegi ederki jauntziak direnak, bihurtzen zaizkio ingumaz edo mahumazko irakurle posible bakarrak ...Ainitzetan, amets gaizto hontara ihes egiteko nahiaz, Hegoaldeko idazleak eta irakurleak hemengoak baino errankorragoak ditu Iparraldeko idazle modernoak.

**IDAZLEAK EGITEN DUEN
ITZULPEN LANA EZ DA
AUTOMATIKO**

Eta ez da hau korapilo bakarra. Laborariengan ere, oso larria da euskaraz pairatzen duen kenka: ikaragarria da bere desbalorizazioa eta guttitzen doa bere erabilera.

Egia da gure gizarte zoroan laborari eta hiritar zibilizazioak ez direla ahal berdinekoak. Bizian «zerbait» izateko hiritartu behar dela sinestarazten zaio laborariari, eta gurean hiritartu eta erdaldundu elkar konjugatzen diren aditzak ditugu. Kostaldeko auzoetan mukurruka zenbatzen dira euskaldun lotsatuak, «zerbait» bilakatuak ala ez, baina seme alabeei euskaraz erakatsi egin ez dutenak.

BASERRIETAN DIREN ZINEZKO HAUR EUSKALDUNAK GERO ETA GUTIAGO DIRA :
ERDARARA JOKO DUTE, EZAGUTZEN DUTEN EUSKARA
EZ BAITZAIE ASKI

Kanpainetan ere aspaldidanik sartua zegoen mentalitate hau. Baina aintzineko garaietan, euskarak balore handia zuen lurreko lanetan eta eginkizunetan aritzeko, eta haurrentzat erdara nahi zuten burasoek nekez zekiten frantsesez; holan, euskarak irauten ahal zuen desbalarizazioaren gorabehera. Egun, laborari produkzioa konplikatu da, teknikak eta merkatuak urrun behar dira xerkatu. Gainera, telebista eta komunikabideak indar basaz dira etxalde guzietan sartu. Egun, aise daiteke barnealdeko haurra erdaldundu.

Gehienek diotenez, euskaldunen kopurua gutituz doa. Eta, lazgarriago dena, mintzairaren aberastasuna izorratzen ari da. Baserrietan diren zinezko haur euskaldunak gero eta gutiago dira; gehienak, egungo gizarteari edo sendimendu konplexuei dagozkien pentsakerak adierazi nahiz, erdarara joko dute, ezagutzen duten euskara ez baitzaie aski. Eta ez dute hauta hau nahitara egiten, euskara mespreziatzen dutelako: ezkonzientean gertatzen ari da bilakaera hau bai eta ere abertzale edo euskaltzaleengan, diglosiaren mirail ederra.

Belaunaldi berri hontan, laborari mintzaira petrifikatzen eta elbarritzen ari da, gizarte orokorraren barnean mikrogizarte laborariari gertatzen ari zaion bezalaxe; laborantza tradizionala autonomia galtzen duen heinean, museora amiltzen ari da haren kultura propioa. Egun etnografia dena, arkeologia izanen da bihar. Horregatik, euskarak du balio oraino autonomoak diren etxalde edo folklore guzietan; gupida gaberik, bere eremua uzartzen da edo, hobeki, mendratzen diote.

Hau guzti hau idazlearearen luma-
ren inguruan biribiltzen da, huntzosto
(itogarri ? edergarri?) baten antza.

Idazleak barnean duena jakinarazi
du. Eta textoa idazterakoan, bere gizarte-
arekin eta irakurleko posiblearekin di-
tuen harremanak agertzen dira. Hizkun-
tza eta mintzairak dira hiruen arteko lo-
tura nagusiak.

Euskal Herrian, Iparraldean, idazte-
ko posibilitateak ez dira zentzu bakar edo
alde batekoak; aintz idatz tankera eta
molde aukeratzen ahal da. Baina bat ere
ez da asegarri bere gizartearen osotasu-
na genioz eta egiaz izpilatua nahi duen i-
dazle goitizalearentzat.

Oraino euskara bizia duten labora-
rien mintzaira soilan idatzi nahi duenak
ba du, duda gaberik, erraztasun handia
mintzaira aldetik. Ama hizkuntzak ongi
jauntzirik, aldamenokoek berehala kon-
preni eta sendi ditzaketeen gauzak eta
gaiak, mila zertzelada eta berezkuntzaz
horniturik, erabil ditzake. Goxoa, egiaz.
Baina mugaturik gertatzen da gaiak eta
edukinaz eta, zoritxarrez, kondenaturik
etorkizunari begira, zahartzearen legea
heriotzearena delako. Haren ama min-
tzaira duen gizatalde honen bizi inme-
diatorik kanpoan gertatzen diren fenome-
noak espresatzeko, hitz, erran molde'
ideia eta balore berriak beharko ditu; be-
re entzulegoarekin duen lotura erreza
ez hausteko, bide bakar bat gelditzen
zaio: gauza batzu ez aipatzea, edo gauzen
egiazko edukina karikaturizatzea, bere
herrikideen espresamolde eta balore tra-
dizionaletan sar daitezen.

LABORARIEN MINTZAIRA SOILAN IDATZI NAHI DUENAK BA DU
ERRAZTASUN HAUNDIA MINTZAIRA ALDETIK ...
...BAINA KONDENATURIK DA ETORKIZUNARI BEGIRA.

MINTZAIRA AKADEMIKOAK BALIO DU, BAINA HIZKUNTZA HIL BATETAN IDAZTEAREN IRRISKUA GORDETZEN DA

Iparraldean joan den mendean sortu zen idazmolde klasikoan bere burua agertu nahi duenak ba du eremu zabalago bat. Mintzaira akademikoak balio du, egiaz, akademikoki edo kultur era tradizionalen aurkeztu nahi diren gaiak tratatzeko. Gauza ainitz, gauza guziak abantzu, erran daitezke; baina hizkuntza hil batetan idaztearen irriskua gordetzen da gramatika hiztegi eta idazle klasikoan tomoetan. Eta gure kaleetan euskarak hil egin dezake, kulturadun gizonak haien mordoilloz idazten ari diren bitartean. Holako euskara, klerigoen latinaren gisa ikus genezake; eta elizgizonek idatz dezatela onartu behar da, haien problema eta bizia delako. Baina ez da hori gure herri eta hizkuntzaren etorkizuna.

**GURI DAGOZKIGUN TEXTO
POSIBLE BAKARRAK,
ESPEKTROAREN BI
MUTURRETAN KOKATZEN
DIRA**

Non dira, orduan, beste literaturetan kausitzen dituen aurkikundeak automatikoki itzultzeko eta integratzeko ahalmenak? Non dira gure gizarte osoaren bizia edeki emateko gaitasunak? Lekuan lekuko mintzaira arruntak xederak eta zepoak gordetzen ditu ere, euskaldungo osoaren kaltetan.

Eta mintzairak, gramatikak, hiztegiak, literaturak eta abar bere baitan onar ditzakeen EUSKARA ez du idazleak sortuko: Euskal Herri osoari bere libertatea eta bere duintasuna itzuliko dizkion mugimendu zabal batetan kokatzen da gure hizkuntzaren etorkizuna. Iraultzan.

**KORAPILATUENA ETA
IZORRATUENA AURKITZEN
DENA DA ORAINGO
GIZARTEAREKIN LOTURIK
IDATZI NAHI DUENA**

Idazle oroen artean, korapilatuen eta izorratuen aurkitzen dena da oraingo gizartearekin loturik idatzi nahi duena. Hizkuntza ahul eta menperatu baten egoerak mugatzen dizkio espresabideak; batean, hizkuntza eta herria bizi daitezela idazleak duen borondateak eskatzen do espresabide berri eta modernoak erabil ditzala. Egoera hontan, ez ama mintzairak ez eta bere herriko kaleetako hizkuntzak ere ezin diezazkiote Euskal Herri osoan konprenigarriak diren espresamoldeak eman. Kontradikzio lazarrian sartuta dugu idazlea: bere hizkuntza aberasteko hiztegiak eta beste euskalkiek lagundurik ibiltzea hautatzen badu, ongi daki irakurlegi ttipi batentzat idazten ari dela. Etorkizunean, Euskal Herri osoa euskalduntzen eta alfabetatzen bada haren izkribuak, agian, bihurtuko dira eza-gunak... ala ez. Baina izkribuari komunikatzeko, berehala komunikatzeko, ematen dion balorea egunkotu nahi badu, bere inguruan mintzatzeko denari makurtuko da, hizkuntza errez eta inmediate batez.

Bitartean, etorkizun latzaren aurko erremedio hoberena: idaztea. Etengabeki idaztea... Komunikazio posiblearen zailtasunak morala ez badigu kentzen, hortan jarraituko dugu.

**ETORKIZUN LATZAREN AURKA
ERREMEDIO HOBERENA :
IDAZTEA**

Veuve Cliquot

Hooligan Bar'aren atarrian nago. Txanpaina txistu bat eskatu dut zerbitzariari: «Veuve Cliquot, otoi!». Jendea, bere eguneroko ibilera astun eta nardatu nekatsuan iragaiten da. Irriz ari naiz. Horren beste arpegi desberdin; ez diet kasurik egiten. Bar honen bisian bisean, Hudson ibaia emeki doa ohidurak zilatu bidean, nehoi deusik galdegin gabe.

To, hor gizon lasai, aferagile-money maker (bizneza baakizu!) bat ikusten dut. Ataxekezaren zilarrezko parteak, eguzkiaren arraio-klixketan dirdir ari dira. Bai. Bill izena duela sumatzen dut, behar bada oker nabil; eta zer? emazte rubia fidel bat baduke (bere berea...), bi edo hiru haur publikuz famatuenetan dabil-tzanak eta, cadillac-all automatic bat txofer atxiki batekin...Orain, ordea, oinhu-tsik badoa.

Bill hau segituko dut beraz. Nere krokodil larruzko esku zakuan Colt 45'aren gogortasun beltza senditzen dut. Segurtatua naiz. Tresna beldurgarri honek laguntzen nau, nere sabeleko desir salbai eta morbidoak egiztatu behar ditudanean. Nik, Gloretta Plyn, deitzen nituen John, Jerry, Paul, Franck, Fitzgerald, Richard eta Martin, gorputz utzi nituen hiri hon-tako karrika zikin zirringatsuetan... Polizarekin jostatzen naiz... Beti manera be-rean. Ez naukete errez harrapatuko, ni hain eri lanjerosa, emaztea izan arren, FBI'ko buruzagietarik bat naizelakoan. Behar bada, egun batez, neronek hedatu sareetara eroriko naiz. Nork daki...

Zutitzen naiz, kondua pagatu ondoan Bill horren segitzeko. Bill ez da deusetaz ohartzten. Egiten ditudan ez-tul zaratek ere, ez diote burua itzul arazten. Oh, nolako perfumea! Pederasta ote? Harma ferekatzen dut. Lirudike nik nahi dudan lekura doala. Harlemeko karrika hertsu heze eta ilun batean galtzen da. Nik, dut haren burumuinari manatzen, berea huts baitu.

Ate gorde baten itzalean gordetzen da, goizean lankide bati ebatsi dizkion dolarren kondatzeko. Orduan agertzen naiz, harma esku eskuinean eta krokodil larruzko zakua ezkerrean. Diot: «Eupa Bill! Azkena duzu. Ez dut zure dirua nahitseginez hiltzen dut. Biluz zaite eta... nezazu!» Bill, herabeak hartzen du; paltoa, korbata, atorra, larrusekoa eta besteak kentzen ditu, ikaran. Heriotz hartzardun baten aintzinean gizona: irrigai «Aski! Uste duzu horrela joatera utziko zaitudala!» Hormari itzultzea ordenatzen diot eta bizkarrez delarik bihotz aldeko eremuetan bi bala sartzen dizkiot. Karrikako jende axolagabeak ez ditu silenzieu batekin tiratu kolpeak entzun. Orain ontsa senditzen naiz. Eupa Bill; aztalaz, buruz gora ematen dut haren gorputz biluzia. Colt 45'a nere krokodil larruzko zakuan ezartzen dut, krimaren obratzen nauzkan eskularru beltzak ere...

Eta, deusik ez balitz bezala, Harleem' en gaindi korrika nere Hooligan Bar'eko jarlekuratzen naiz. Oren erdi baten buruan edo. Txanpaina txistu bat eskatu dut zerbitzariari: «Veuve Cliquot, otoi!»

Lenny gizon azkarrak bazuen Steinbeck deitu sagu zuriarentzat ahul bat, galgarria. Ez zen gogoratzen nondik zetorkien sagutxo hori. Dena dela Cannery Row'ko bizitzaleek ez zuten hain ongi konprenitzen Lenny gaizoaren egoera: «sagu bat adiskide? ez ote daki engoitik, abere zantar horiek izurritea dakarkiguketela!» Halarik ere, Lenny'k Steinbeck egiazko laguna zuen, bere burua bakartiegi senditzen zuelarik, belaun bien gainean harturik, saguaren larru gozoa samurkiro ferekatzen pasatzen zuen denbora. Jane, maite izan zuen lehen ohaideari amestuz, noski...Bizia horrela bazoan; Steinbeck'ek maitasun mugagabeko horren truk konpainia fidela ematen zion Lenny'ri: denetan segitzen zuen bere itzala bezala. Zinez zakur umil bat zirudien... Ordea, Cannery Row'ko bizitzaleek ez zuten Lenny'ren Edenaren haraindian sudurrik sartzen. Halere, deusik aipatu gabe, beldur ziren egun batez zerbait gaitzik gerta zitzaion. Baina ez menturatzen erratera!

Eta bizia horrela bazoan. Lenny'k Steinbeck sagua berarekin eramaten zuen Salinas'eko lanlekura; Salinas'en baitzagon T.I.Corp. *aren Californiako lantegia...

Alabaina, bizia horrela...

Asteazken goiz bat zitakeen. Lenny'k iratzartzean, bere gela sakatrapuan, ohe deseginaren aintzinean, tente, zutik, ikusi zuen Steinbeck miletan handitua. «Bezperan xurikaziz edo bebi sobera edan dudalako» »pentsatzen zuen. Baina Steinbeck'ek amorru bizian oihuz zarrarikan salbaiki; Lenny beldurtua harat honaraka manuak uzten zion eremu hertsian, zerbait gertatuko zitzaionez galdeka, eta harma eskuratu nahian. Ohartu zen giza gaixoa, Steinbeck'ek harma puskatua zio-la eta etxeko erreztasunekin berdin egin zuela... Mogimendu bat bultzatu arren, Lenny Steinbeck'en beso zango emendatuen artera erori zen. Saguak, ahotik tu irakina zariola, Lenny urkatu zuen.

Steinbeck

Steinbeck, gorputza hilotz begiztatu zuenean eta zueneko, sagu neurri normaleratu zen. Konturatu zen azkenean, nolako izigarrikeria obratu zuen: maixua hil! Hau baino gehiago izan gogoz edo... Non aurkitu zuen hortaratzeko indarra?

Cannery Row'ko bizitzaleek Lenny'ren hil berria jakitean zioten: «Ah! Baginakien zerbait gertatuko zela!»

Egun hartarik aintzina Steinbeck ez zen Lenny'ren etxean, argian, bizitzera ausartatzen: saguzilo urrintsu ohizkoetan zagon, bere pena ezin jasanez, eta ezin gaindituz. Bakar-bakarrik zen. FBI'ko polizmanek inkesta nagi bat zarrakaten ez baitzuten autolisisaren tesisa izpirik ere sinesten. Cannery Row'ko bizitzaleek ixilik zirauten...

Halatan, alba gorritsu batean, maiatz ondarrean uste dut, Steinbeck'ek erabaki zuen, Lenny'k sagu beltz arruntentzat zaukan gasna zitaldun haren jatea. Bere gorputza, larrua, menbroak, emeki emeki gogortzen senditu zituen. Eta Steinbeck, damuz eta doluz hil zen.

Bakartasun pizuegiak hil dezakeen bezala...

Cannery Row'en, jende normalak baizik ez ziren gelditzen. Kezkati, zioten: «saguen eta gizonen arteko auziak ez dira errez trenkatzen...»

*TI Corp : Texas Instrument Corporation

Dartemalda

ETXAMENDI

Enaut 1981

Muñho pollit bat zen, biribil eta gorrail matela goihena xuhail lepondo bat bezala, eta goizerrri aldetik oihana besape bat bezala, oixe andere-bular legun kuttuna ! Mendebaletik soegin eta Pagaltzetan zuen goi-laurdena, arpegi irritsu emazte ozena ! Sortaldetik begira, Oriune beltzaren pagadoi urruna, zer izarbel gau-birjina !

Astoen saroa. Otarra. Beste mendietarik berex bera - Dartemalda - behe-rago erreka ... Behobiko erreka, lamina gau-latsarien erreka. Ixterrak galtzen zitzazkon zirritu meni latzaren potzazpitan. Zirritu izigarria, patarra pataitz pendoitz erroitz bihotz-zirriztazalea : gauaz neguetan elur-lurtak lerran zirriztaka gure etxea ikararaziz hantikan lerratzen ziren ortzantz burrunbetan, bideak erauziz, arkaitzak hautsiz eta loa kenduz guri eta abere orori. Zirritu buru zuta, iruzkiari begira Dartemaldaren altzoan jarri-ta.

Han baziren, inguruko mendietan, hamalau etxe, hetan gurea. Etxe hetako astoak libratzen zirelarik beti Dartemaldarat johaki ziren. Jendek zioten « Zerbait hunik badikexi muñho hortako bazkak... asto horiek beti horrarat juaiteko ! » Nik aspaldian banakien bai zertako horrat zohatzin, banakien astoak sentimentalak zirela. Elgarrekin nahi zutela egon banakien. Elgarren usain gozoa maite zutela. Elizarako bidetik elizarat juaitean beti ikusten nituen astoak han elgarren ondoan alhan. Eta gure astoak gurekin elizarat juaitean, mendi-bideko azken bihurgunean, Urinaizeko-bixkarrean, Dartemaldari azken behakoa egin ditakeen gunean, orroa nigartsu bat egiten zuen... Hantikan bestiek burua altxatu eta behatzen guri ... eta orrua bedera egiten ! Gero buztanak dantzatzuz inguruka eta ausikika elgarri (alegia), hain ziren kontent elizarat - hek - ez juaiteaz. Nahiago zuten bai ifernuko zorigailteaz eta mundu bekatoros ustel eta nigarrez bete huntaz mintzatzen entzun baino, Ugarreko oihanetik heldu zen hegoaren kantua ... Ipurdiak altxatzen zizuten putinka beste beheiti johaki zohan horrek egin bihotz-ximikoaren ahanzteko, iduri baitzuten ziotela « Kaka dela ta pitokeria horien guzien ! » Gaizo astoak ! Zer asto alegerak ! Bazakiten bai bizitzen !

BANAKIEN ASTOAK
SENTIMENTALAK
ZIRELA

GAIZO ASTOAK !
ZER ASTO ALEGERAK !
BAZAKITEN BAI BIZITZEN !

Beste abere kunde guziek beren etxetan multzo bat badira betartekoz, elgarren usaina beti ihesten dute. Astoa aldiz bat bakarrik etxe bakotxean, eta oraino behiek adarka ez derabilatelarik arduregi barruki zokoan. Beraz gure astoek Dartemalda zuten beren bilkia, atzokia edo ... eliza ?

12 Maiatz

Bidean gure astoak usnatzen zue- larik beste batek busti lekua, izterrak za- baltzen zituen ere sudur mizpirak ikara- tuz plazerrez, Dartemaldako ote-lore ho- riñoak begitaratzen baitzizkion ... Hango basa-xarpotaren usaina ! Eta ottiek nola kantu egiten zuten sekulan gelditu gabe ! Iratze-xoriak baso-dantzetan nola artzen ziren iratze-kaskotan ! Mentaberriko pentze hegitik beleak filosofian zaudela eta Gaztanziloko oihanean uzkinazoak kataskan.

Heldu zenean maiatza ? Hori bizitzaren ardatza ! Ilarrearen lore urdi-

na, urtzabelarraren horia ! leizor-liliak aharrosiz sabel hutsak bezala, eta amula- gukulak bihiz loditurik ! Axeria xaringaz gauak gauari kallaka, bere emea Ugarre- ko harpean umeen zain dagoela-eta ... gure astoari errainetan zirrizta bat heldu zitzaion ! Hango ihauteriak ! Dartemal- daren dantza-soinu oiharzuna ! Zer kala- pitak ! Zer aharrak ? Arrak, arrak ... odola erakitan. Zankarrots eta arrabots, ausik putar ostiko jauzi eroriko eta punpe ! Eta emeak ... begi eztiak, gorde gabe baiderasate galdea ! Zirritu elur-lurteetan bezain susper zen orduan astoa.

HELDU ZENEAN MAIATZA HORI BIZITZAREN ARDATZA !
ILARREAREN LORE URDINA, URTZABELARRAREN HORIA !
LEIZOR-LILIAK AHARROSIZ SABEL HUTSAK BEZALA ETA
AMULA GUKULAK BIHIZ LODITURIK !

Gaizo astoa.

- Juan beha'uk astoka, bihar me- zarat juaiteko behar diat ezpeiniz sobe- raik untsa.

Ande vas astotto ?

Bidez-bide Dartemaldarat. Bazi- ren bi bide. Bat Tellitartetik : elhorri xu- rizko brostak tinki-tinki bi aldetarik. Han xoxo-kabiak eta pika-kabiak izaiten ziren kukua Lopebeltz-azpitik kantuz ari den denboran . Beste bidea Sauseko- Peko-Bixkarretik: gaztaiña-pezu. Zuhaitz haundien matxarde goretan bele kabiak. Ez dakit nola juaun zaukun haur-denbora!

Gaztaiña ondoaren kaskorat-eta, bihotz pil-pil, sogiten nuen Baxa-Xaharre alderat : Indartia, Arrosagaraia, Muñho- ñoenia ... iruzkitan. Hego-alde mendi gorarat behatu eta han beste etxe batean - ez duzu jakinen izena - baziren ene la- gunak bi nexka ... Astoka ere elgarrekin gertatu gira. Sorhopilan jarri eta mendi urdineri begira, oihan urrunekoak amen- tsen kofesategi ilunak. Haien zaiaspiko hegiek urriko bas-onjoen oxkarra arinak eta kamomilaren usain sorginak !

Uda jin zen eta ama eritu. Geldi- tzeko bezperan manatu zautan zerri- atheka baten hestea Gehezpetako hesian. Ari nintzalarik zerbait jin zen. Kexatu. Ezbainuen manera haundirik ... Ikusten dut oraino haren beso eria aiz- koraz hesolari emaiten jo ... (hautsirik eta barnez itze batez apaundurik zuen be- soa, makur. Hortarik gaizkondurik juaun beharra zen).

Biharamunean ohetik : «Xaxi astoka, medikurat behar txit ...» Darte- maldako bidean, suge-lili haundiak lore- tan, leizor ileitsuak heien bisitan. Ikusten nituen primaderako xoxo-kabiak hesian,

hutsak. Oihanean etzen ari kantuz kuku- rik. Bortuko bide-juntan, kamomila u- saindunen gunean, gelditu eta artzain bideari so : bide hori trixte zitzautan, oihanak arrotz ... Halere beharritaritzen zitzaitan ene bi lagunen irriak eta abo- tsak.

Negua jin zen. Bost hilabete eri- tegian egonik ama etxeratu zaukuten ... ez sendaturik.

Amaren astoa zahartua zen. Elur- ra jin zen. Axuriak Donianerat ereman behar. Oherat intzuten gintuen axuri- marrakak goizalderat, argitu baino lehen, gizonak arteitik ekartzean ezkaratzerat. Eta ezkaratzean astoa pildaturik saski- txatik belarraren jaten krau krau krau ... Axuriak kargatzen ziren zaku-alfortxetan eta astoa bazohan elurrean begia lerin, beharriak akituak, aita gibeletik. Peko- Bixkarreko bide-juntan astoak so bat egin zakon Dartemaldako xendrari : la- harrak elurrez kargaturik dilindan zau- den eta xendra doi-doi zen ezaguna. Oro ixilik. Astoa eta aita itzali ziren Gaz- tainzilon behera ...

Telegrama igorri zautaten eskola- rat : ama hil zela. Urtarrileko iruzkiaren distira hotza ! Gauaz autoan etxerat ekartzen nindutelarik geldi-arazi nuen Dartemaldako bide-juntan. Han, lehena- go, gau elurtsu batez, ni eri astoan, eta ama gazte eta eder zelarik bainan akitu lehertua, etzan egin zen elurrean ... Nun ziren orai bele-kabiak eta kuku-kan- tuak ?

AINITZ ZUHAITZ EZAGUTZEN NITUEN ORAINO
BAINAN BESTE ASKO EZ EZAGUNAK

Bi anaia johanik Ameriketarat, aita etxean hiru gazteenekilan zagon. Urte batzu jua ziren. Euskal Herritik urrun nintzan. Letrak segitzen zauzaten arrebek. «Gu arras untsa gituk. Fonsian, dakikan bezala. Astua hil duk ... Aitak behiak buztartu-ta tiratu dik Arteko-pentzeko oihañerat. Han zilua inik ehortzi dik arranoek etzezaten jan.....»

Bi arrebak gero Californiarat jua ziren.

Anaia gaztena soldado.

Afrikarat hunek igorri zautan letra hau :

« Gaur, igandia, etxerat jin nuk aita bera delakotz. Ollaskua in diakoat. Aita atsaldian l.....rat jua duk : hobe'ik han hemen bakarrik bano. Jua nizalaik etxetik etxia gakoturik, Zuhar-Matzardiain ondolik, Dartemaldako parretik etxiari so'in diakoat azken aldi batez : xakurra hasi duk lepua luzaturik etxia giiletik hurubiaz. Gue etxiak, han bera, hutsik, iduri zikan xori-kafia zahar bat abandonatuik. Baakik Eñaut lehen larrazkenian Dartemaldako bideko bele-kafia huts hek ? ... Han ere lehenoo irri, bero eta goxo izan zukan, ta uai ... »

.....

Anaia hori ere Ameriketarat jua zen.

Afrikatik jin nintzelarik, Doniannen adixkide bati erran nakon : «Heldu hiza enekilan ? Sortetxearen ikusterat banoak»

Aita etzen etxean bizi. Arrotz batzu han egonki (bono, Goizuetakoak). Jua ginen lehenik alor eta pentzeen ikusterat. Belarrak eta liliek lehenagoko usain bera zuten. Gero oihañen ikertzerat. Ainitz zuhaitz ezagutzen nituen oraino, bainan beste asko ez-ezagunak, ni juanez geroztik larrituak. Gero jua nintzan eliza-biderat : haltzak eta otsa-laharrak jinak bidexka pollitean. Hargatik peldo eta asta-belarren usaina lehengo zen. Errekaren azantza ere bai. Harri urdin izerdiz ihintzuak ere bai. Bainan eskola

nimiñoa , peña ondoan hamalau etxetako gizonak egin, hantxet, hutsik eta ixilik ... Gure larrazkenetako bas-onjo azpi-oxkarratuak galduak. Enakon ez holako sekreturik salatzen lagunari !

Gero jua ginen gure etxeko mendirat, Azkondegiko zokorat, Harri-Haundirat, Gaztain-Pentzerat, Liska-Zahalerat, Behor-Xilorat, Zorrozt-Harriararat ... Eta lagunari erran :

- Begira, nik hemen iragana diat haur-denbora. Hemen gaindi ibiltzen gintioan behika ta ardika harmonika bat beti gurekin ...

- Eztuk behar izarkirik diren gauza horiek berpiztu ! Sofrituko duk geihegi. Nik erranik jakizak : utzak iragan denbora hori edo erituko haiz ...

Etixerakoan, goñoa eri eta bihotza hebaindurik erran nakon :

- ago, behar diat oraino Dartemaldarat jua ... Eztakik ez hori zer den. Ezteat erranen ere.

Artzain-bide juntako kamomila lekuan ... Oihan urrunekoek gure lehengo sekretu xoragarriak berekin zauzaten. Elorri-xurietan barna mila pasioneren daldaran nindohan. Elhorriek egiten zauzaten zarramaskien odolak nolako gustu goxoau zukan ! Begiak zerbait tek itsutzen bezala zauzatan ... Heldu nahi nuen delako muño neska-bular polliterat.

Astorik etzen ...

Lopebeltzerat sogin eta hango ardiak, behorak eta zinur-oskiak ere arrotz.

Sogin nuen Harri-Kotorretako maldarat : auto bat goiti bazoan bere tarranta irringarriarekin ...

Bainan ? Otar malda hartan ikusten dut asto bat. Bat bakarrik. Lehengo ihauteriak hegoan ... ?

Jarririk Dartemaldako belarrean astoari so ...

Etixeratu eta, gaua.

Jari nintzan zoko batean, oro lokartu zirelarik, paperrarekin eta arkatzarekila eta hasi :

Tiki-taka, tiki-taka
Ibilki da astottua goizik ...

Zenbat nigar musika nota batean ...

Miren 17 orenetan etxeratu zen. Akitua zen, bainan etzuen astirik galtzeko. Bere atearen aintzinean gelditu zen. Begi elektronikoak ezagutu zuen; atea ixilki ideki zen. Bainugelak krabelin usaineko bainu bat hartuta, zaia perde bat hautatu eta jauntzi; bere ile aztun gorriak luzaz orraztatu zituen, bai ta ere bere aurpegia kasu emanez tindatu, arrats hartan ederra ta dotorea izan nahi baitzuen.

Bere langelako mahainean zegoen mezu iraunkorra (hyperezkozko hosto bat; beste mezuak, kutxatik kanpoan baziren, bost minuten buruan suntsitzen ziren) poliki berrirakurri zuen; gero bere zakuan sartu. Mahainaren gainean, Gorkaren potreta, hiru neurritan emana, une bat behatu zuen.

Bizileku ta beriganeko ate-begiek bidea ideki zioten. Karrikan, espaloi mugikor urdinak geltokira eramane zuen. Han, arroltzmaticko batean sartu. Ibilgailu horrek gurpilgabeko auto bat zirudien. Lurretik 50 cmra airatzen zen. Karrika nagusi ta bide bakotzak bere arroltzmatickoak zituen, jendea karrikaz aldatuz ibilgailuz ere aldatzen zen. Bidaiak zergen medioz ordaintzen ziren. Arroltzmaticko guziak Sigma-renak ziren. Miren abiatu zen.

Etxea hiritik 20 kmrat zen. Esferiko ta urdina. Hall ubelduna. Miren ezkerreko bulegoan sartu zen. Han ile urdindun androido batek paperak luzatu zizkion. Bost minutuz bete zituen, fitxa hoietan deus ez zutela ahantzi pentsatzean.

Gero, kafeteriara iragan zen. Hango mahain ta jarleku apalak xuriak ta era guzitakoak. Meketak urratsen abotsa itozten, argia urdina, ta doinu ezti bat entzuten zen. Mirenek dute bat galdatu ta emeki-emeki edan zuen, Biziki ona.

Berantago, androido arrosa-kolorezko batek bere gelara lagundu zuen, eta Mirenek ekarri zinta «girogilea» ezarri. Ohea eskuineko hormaren kontra zegoen. Perdea, zangogabea, biskosezkoa. Etzan zen. Logale zen. Atzol bat hunkitu zuen.

Bat batean, logelaren lekuan, mendi perde bat agertu zen; kaiolar baten ondoan, mutiko bat txistua jotzen ari. Ardiak ere ikusten ziren. Mirenek begiak hetsi zituen.

Urrunago, erreka baten ondoan, zakur bat jostatzen ari. Zeruetan, zeru urdinetan, arrano bat.

Mireni bihotza, pixkanaka, gelditu zitzaion.

Berehala ta ixilki, logela berrageratu zen, eskuineko horma ideki, ohea uzkailli, gorputza erretzekora igortzeko.

Egina zen Mirenen nahia.

Miren

Sarreren Bulegoan, 11.gelako argitxo gorria piztu zen. Androidak fitxak bidalgailuan sartu zituen.

IZENA Etxegorri'tar Miren 0600536779

BURUTIK SANOA bai ez

HERIOTZAREN KAUSA euthanasia

EUTHANASIAREN **BAIMENA**

Dr Mello-k emanda

EUTHANASIAREN **MOTIBOA**

eritasun ezin sendatuzkoa

ERITASUNA bularretako leproa

ERITASUNAREN **KAUSAK**

itsas bazterreko Kutsaduraren

Aurkako Hormaren ondoan lan

egiten zuen **IGOR**

BERRIA 662236711 Lasa'tar Gorka-ri

EUTHANASIA legeak agindu baino lehen

galdatzen dut

HAU da nere egiazko nahia

2040/07/26a

Maizte 15

maitasun hau

Maitasun hau
Hain jauzkor
Hain hauskor
Hain goxo
Hain etsitua
Maitasun hau
Ederra eguna bezala
Eta txarra denbora bezala
Denbora txarra denean
Maitasun hain egiazko hau
Maitasun hain eder hau
Hain uros
Hain alai
Eta hain ezdeusa
Ilunetan beldurrez daldaran haurra bezala
Eta hain segurra
Gauaren erdian gizon geldia bezala
Maitasun hau besteei beldur emaiten zuena
Mintza arazten
Hits arazten zituenak
Maitasun barrandatu hau
Barrandatzen ginituelakoan
Setiatua, zauritua, zangopilatua, kalitua, ukatua, ahantzia
Setiatu, zauritu, zangopilatu, kalitu, ukatu, ahantzi dugulakoan
Maitasun oso-osoa
Eta dena iguzkiaz estalia
Zurea da
Nerea da
Izan dena
Gauza beti berri hau
Eta aldatu ez dena
Landare bat bezain egiazko
Xori bat bezain daldaraduna
Uda bezain beroa, uda bezain biziduna
Joan eta itzuli
Gu biek ahal dugu
Ahantzi
Eta lo egin
Iratzartu, min hartu, zahartu
Eta lokartu berritz
Herioarekin amestu
Atzarri, irriño ta irri egin
Eta gartzetu ahal dugu

Hor dago gure maitasuna
Asto tzarra bezain kaskogorra
Biziduna gura bezala
Bihotz gogorra oroimena bezala
Zozoa urrikiak bezala
Goxoa oroitzapena bezala
Hotza marmola bezala
Ederra eguna bezala
Hauskorra haurra bezala
Irriño batekin so egiten dauku
Eta deusik erran gabe mintzatzen dauku
Eta nik daldaran entzuten dut
Eta oihu egiten
Zuretako oihu egiten
Neretako oihu egiten
Otoizten dut
Zuretako, neretako, elgar maite duten beste denendako
Eta elgar maite zutenendako
Bai, oihu egiten diot
Zuretako, neretako
Eta ezagutzen ez ditudan beste denendako
Hor zaude
Zauden lekuan
Lehen zinauden lekuan
Hor zaude
Geldirik zaude
Etzaitela joan
Guk elgar maitatu dugunek
Ahantzi zaitugu
Zuk ez gaitzazula ahantz
Munduan zu baizik ez ginuen
Hoztera ez gaitzazula utz
Beti urrun-urrunago
Eta nun nahi
Zure berri emaguzu
Berant-berantago oihan hegian
Oroimenaren sasietan
Bat batean jalgi zaitte
Eskua zabal ezaguzu
Eta salba gaitzazu

Maitasun hau

.1976.ean. egia
Maizte

Nor zira, Piarres Lafitte ?

HITZ agerkariarentzat, 1976.ean, Piarres Lafitte-kin mintzatu ginen. Bizi bat, ezagutzen ez ginuena, jakin ginuen, piska bat. MAIATZEn atseginekin agertzen dugu euskara hainbeste lantu duen gizon baten lekukotasuna.

Nor zira, Piarres LAFITTE ?

P.L. : Ni orain xahar bat naiz, 75 urte eginak eta hemendik goiti ez dakit gauza handirik egiten ahalko dudan. Bainan entseatuko gara hala ere zeren eta, ez bait naiz oraino etsitua.

Ene hasteko bizia arras bitxia izan da zeren eta ttipian euskaraz mintzatu nintzen zazpi urteak arte. Gero, ene aita eta amak galdurik, ene osaba baten emazteak altxatu ninduen. Hura biarnesa zen, ez zakien frantsesik ez euskararik. Beraz etxen biarnesa erabili nuen zenbait urtez eta kasik hura nuen ene etxeko mintzaira.

Gero, hogei urtetan, semenario handian Mgr Saint Pierre-k nahi izan ninduen bildu eta, bildu ninduen ; behar nuela ene aitamen mintzaira ikasi baitezpada, bestenaz ahalgegarri zela. Onartu nuen erranez hasiko nintzela euskararen ikasten, bainan hainbat gaixto sobera egiten banuen.
- Entsea gaiten lehenik gero ikusiko dugu ea arrastatzen ahal zaitugun ala ez.

Eta orduan eman zidan metodo bat arras bitxia. Erran zidan :

- ez duzu ez gramatkarik ez hiztegirik hartuko, ez duzu holakorik hartu behar. Euskararen ikasteko guk ez dugu holakorik erabili eta ikasi dugu.

- Ba, etxen euskaraz mintzo bait zinezten !

- Ba, bainan hala ere emanen dautzut liburu bat.

Eman zidan Arbelbiden «erlisionea» liburu bat gotorra. Erran zidan :

- Eman dezagun liburu hau nehork ez dakiela zer den, zer mintzaitan egina den. Behar duzu zuk zilatatu gauza hori ikusteko zer den mintzaira hori. Eta orduan irakurriko duzu hurbildik, kasu eginenez nola egina den eta entseatuko zira haren asmatzerat. Emanen dautzut berehala gako bat : liburu hau erlisionekoa da eta, euskaraz, gure mintzaira erlisioneazkoa beti latinetik hartua da. Beraz, emazu gogoan latin asko ba dela mintzaira hortan eta hortik behar duzu pentsatu nola latinetik euskaralat bihurtu den mintzaira, eta gero, hitz batek bertzea argituko baitu, orduan pentsatuko duzu hitzek zer erran nahi duten. Ba dakizu gaia, erlisionea, ba dakizu ere latina ba dela hartan eta gaineratikoa zuhaurek ikus. Huna zer egin behar duzun : zure ganberan behar duzu zonbeit lerro irakurri, gero gogoz ikasi eta errepikatu, errepikatu, errepikatu. Gero entsea zaite gero ta hobeki konprenitzera eta egizu zuhaurek hiztegi ttipi bat, hor ikasiko dituzun hitzekin eta egizu zure moldeko gramatika ttipi bat, eta ikusiko duzu gero nola entseatuko ziren. Horra eta orai xantza on eta berriz artino !

Joan nintzen liburu horrekin ere ganbarara eta berehala hasi nintzen eta hiru hilabeteren buruan irakurria nuen bururen buru. Ez dut erraiten konprenitu nituela gauza guziak, bainan gehienak hala ere uste dut konprenitu nituela. Gero

18 Maizte

entseatu nintzen ikasi nuen mintzaira hortan behar nuela zerbait izkiriatu eta hartu nuen «Imitation de Jésus Christ» delako liburu hori eta lehenbiziko hiru kapituluak ezarri euskaraz, ene euskara hartan.

Pazkoz joan nintzaion ikustera goizean, eta erran nion :

- *Horra. Pazko on nahi dautzut desiratu, bainan nahi dautzut erakutsi zer lan egin dutan hiru hilabetez. Anartean ez nuen ikusi. Harritu zen eta :*

- *Uste nuen utzia zinuela !*

- *Ez, ez, ez dut utzi.* Ene paper guziekin hor nintzen eta gero :

- *Orai ez dut astirik. Behar dugu katedralera joan ba ditugu elizakoak egiteko eta hobe ginuke, sarri bezperak ondoan, gauza horien ikusteko denbora baten hartzea. Utzkitzu hemen berean, sarri ikusiko ditugu gauza horik.*

Arratsean, katedraletik sartu ginelarik, berehala joan nintzen haren ganbarara eta orduan ikusi zuen nola itzuli nituen hiru kapitulu horiek eta harritu zen halere puska bat. Ez zuen uste holako lanik egiten ahal zen. Ene huts guziak altxatu zituen eta erakutsi nola behar ziren ezarri eta ene gramatika ttipi hori ez zen batere behar belakoa. Pentsatu nuen ba zela deklinabide bat, bainan ikustekoa zen nik pentsatua.

- *Hemendik goiti hartuko duzu gramatika bat. Emanen dautzut «la grammaire de Ithurry».*

Eman zidan berehala Azkueren hiztegi handia bi tometan. Aa orduan orduan, hasi nintzen lanean. Azkue kasik gogoz ikasi nuen, bururen buru.

Orduan, euskal ikaskintzetan sartzeko gogo zinuen ?

P.L : Ez dut uste. Erran behar dut gauza bat : gaztean nahi nintzen misionest egin. Seminario handian sartzeko mementoan mediku baten ikustera joan nintzen, ikusteko Afrikara edo beste norapeit joaiten ahal nintzen. Lasserre zen medikua eta hark erran zidan flako nintzela, ez nuela osagarririk. Egia zen, biziki tristea nintzen osagarri aldetik eta erran zidan :

- *Behar duzu hemen berean egon, ez duzu holako astokeriarik egin behar. Zaude hemen, ba duzu hemen berean aski lanik.*

Orduan ene arrazoina hauxe izan zen : Afrikara joan banintz, hantxet ikasiko nuela hango mintzaira. Eta hemen egonez behar nuela hemengo ikasi. Ez da beste ixtoriorik. Bainan, alabainan mintzaira aldetik pasatu nintzen fite beste euskaldungo guzietara. Ba nekien zenbait aire euskaldun zeren eta lagunekin aditu bait nituen, bainan ez nintzen batere estekatua gauza horieri. Orduan alabainan, Mgr St Pierre ez zen oraino «Monseigneur» eta emaiten zizkidan irakurtzen zituen errebista guziak : «Euskal Esnalea», «Euskalerrriaren alde» eta horiek oro. Nola alemana ikasi bait nuen orduan alemaniatik heldu ziren ere.

Ba zen errebista «Euskara» deitzen zen, ekartzen zidan eta erraiten :

- *Ez dut irakurtzeko astirik, zuk behar dautzazu puska bat irakurtu. Egizu laburpen bat enetzat.*

Holaxet pusatu ninduen alegia deus ez. Behar nituen kasik errebista guziak ikusi. «La revue internationale d'études basques» burutik buru irakurtzen nuen. Nahi eta ez, euskarazko literatura guzia emeki emeki ikasi nuen. Orduan pentsa, berotzen ninduen alegia deus ez. Ez zuen puzatzeko lan handirik zeren eta arras errabiatua bait nintzen. Gero, xantza bat handia izan nuen. Hau ez dut uste ainitzek izan duten holako xantzarik. Huna zer gertatu zitzaidan. Gaztea nintzen, eta erran dudan bezala ez nuen osagarririk batere eta orduan ez dut soldadogorik egin. Bainan apezteko edo ordenuen izaiteko, behar zen libro izan zerbitzutik. Nik eskolak egin ditut aitzina eta erori naiz 14-18ko gerlari ohiekin. Haiek estudioak hiru urtetan egin dituzte eta nik haiekin egin ditut. Hogeitabi urtetan finitu nituen estudio guziak. Gaztea nintzen eta zer behar zuten egin nitarik ez zekiten. Begiratu ninduten semenarioan, bainan urte bat pasatu dut, deusik egin gabe, salbu euskara. Eman zidaten bibliotekaren gakoa. Hantxet ba zen biblioteka ttipi bat orai ez dakit zer bilakatua den. Eta hori Inchauspe zenaren biblioteka zen. Liburu euskarazko ainitz ba ziren. Denak irakurtu nituen, pentsatzen duzuen bezala eta bereziki eman nintzen Axularren estudioan, haren iturburuak nahi nituen ikusi eta uste dut lan pollita egin nuela. Irakurtu nituen Vivier editorialak agerrarazi

Louis de Grenade-k eginikako autore zaharren bildumak. Hori da hiztegi handi bat. 18 toma handi ba ditu. Hortan, lehenagoko izkiriak zaleek nolako pentsamenduak zituzten ezarriak dira lerro lerro.

Eman dezagun «hasarre» : hasarreaz zer erran dute lehenagoko izkiriak zaleek ? Orduan ikusten zenuen Homere, Platon-ek zer erran zuten eta beste ainitzek. Hain xuxen, hartzen duzularik Axular ohartzen zara etsenplu berberak hartuak dituela eta ordre berean. Beraz, liburu hori ba zuen eskupean, ez dut erran nahi kopiatu duela, bainan hortarik hartu ditu gauzak, gaiak, zenbait aldiz laburtuz, beste zenbait aldiz ainitz zabalduz, gauza hori ohargarria da. Hain xuxen Luis Michelaren alaba nik eman diodan bide horren segitzera doa : lan hori eginen duela behar bezala uste dut. Orduan ikasi nuen gauza hori, hogeitahiru urtetan.

Ondoko urtetan apezte ninduten eta Tolo-sara igorri. Tolosan beste gauza bat gertatu zitzaidan. Aita Lhande hatxeman nuen hantxet eta, pentsa, aste guziez joaiten nintzaion ikusterat. Hark egiten zituen kurso batzu, ez euskaraz, bainan euskarari buruz, literaturari buruz. Ez dut urte bat baizik ikusi gizon hori bainan arras adiskidetu ginen.

Maiatz 19

Nor zira,

Gero apezpikuak eman zidan hauta : ala filosofia har ala har bestenaz literatura, nik filosofia hartu nuen. Ba zen urgulu puska bat. Pentsatzen nuen erakasle egiten banintz hobe nuela filosofiaren erakustea, mukuzu batzuekin egoitea baino. Ba bainan, zenbait egunen buruan, hilabete baten buruan, Mgr Mathieu-ren letra bat errezebitzen dut. Baionako semenarioan zen erakasle. Igorri zidan letra bat, frantsesez erraiten zidan ikasi zuela «pena handirekin» filosofia hartu nuela. Segur igorri banindute Beljikara, Louvain edo nunbeit hara onartuko zuela, bainan Tolosako professeur batzuekin, Touverès eta horiekin, biziki bide gaixtoan nintzela eta ba zekiela nolako menturazko burua nuen, xori buru pixka bat, gauza berrietara arras abiatua, eta beldur zela lerratuko nintzela behar ez diren xendretara eta kontseilu bat nahi banuen entzun, behar nuela gauza hori utzi. Arrapostu bat eman nion, fierra, erranez bere gauzetaz okupa zedin, nik ez nuela haren beharrik apezpikuak eman zidanaz geroz hautua, nik hautua egin nuela eta apezpikua zela hobendun eta beste inor ez. Hortan utzi nuen. Bainan, hamabost egunen buruan, beste letra bat ukaiten dut. Aldi huntan St Pierrena :

- *Ikusi dut filosofiari lotu zirela, gauza ederra da filosofia eta uste dut gauza hortan ongi aterako zirela, bainan bainan, huna gauza bat. Ondoko egunetan zure beharretan gintazke bereziki euskarari buruz eta euskara ontsa zilatu nahi baldin baduzu, behar dituzu zonbeit mintzaire hartu. Filosofia ez zaizu hortako gauza handirik baliatuko. Behar duzu mintzairetan ibili. Bertzalde ikusiko duzu filosofia denetan kausituko duzula, ala literaturan ala mintzairetan. Ondoko egunetan zure beharretan baldin bagira, bereziki gramatika baten egiteko ontsa litake. Zuharek ikus bainan nik pentsatzen dutana erraiten dautzut.*

Abilki ari izana zen. Hain abilki nun orduan berean,, ez oren baten buruan, bainan orduan berean joan bait nintzen, utzi nuen filosofia, Lettres-eta eta hantxet hartu nuen latina, greka, alemana, espainola eta frantsesa alabainan. Nahi ta ez hortan abiatu nintzen. Denbora berean ez nuen euskara utzi pentsatzen ahal duzuen bezala.

Gero hunat* igorri ninduten. Gaztea nintzen, hogeitabost urte, gazteena. Ba zen Etcheverry delako bat, euskara poxi bat erakusten zuen. Historiazale zen. Ez zuen euskararen gustu handirik, izkiriartzen zuen, liburuak egin ditu, bereziki historiari buruz. Kapablea zen. Hemen* muble ttipi bat ba zen eta hor ba ziren zenbait liburu. Mgr Mathieu hunat etorri zen superior eta hark ekarrarazi ninduen bere ganbarara eta erran zidan :

- *Il y a ici un meuble d'une petite bibliothèque qui a été fondée par Harriet et alors je voudrais que vous soyez le gardien de cette bibliothèque.*

- *Milesker bainan, errazu, «gardien» zer nahi duzu egitea, bera ere egonen da biblioteka hori. Biblioteka behar nuke hazi puska bat, liburu zonbeit ezarri, bilatu bertze libururik ba denez hor gaindi. Orduan etxeak zer emanen daut diruz ? - Diruz, diruz ? Uste duzu hemen ekonomak dirurik emanen dautzun euskarari buruz ? Ja, ez pentsa holakorik, ja ja ja.*

- *Orduan ez dut ikusten zertako behar dutan biblioteka hori zaindu.*

- *Funtsean egia duzu, huna zer eginen dutan. Zaude ixtant bat, ba noa zerbaiten bila. Joan zen beste ganbara batetara, etorri zen eta eman zizkidan orduko hoge mila libera.*

- *Eta horra ! Première et dernière subvention. Arraña zite. Aski duzu ebanjelioan bezala egitea, ez duzu hoge mila libera horik ehortziko, behar duzu baliatu.*

- *Baliatuko ditut, ba.*

Apez bat edo notario bat edo mediku bat hiltzen zenean, berehala joaiten nintzen haren hurbilekoein ikusterat. Holaxe erosten nituen bibliotekak hatxeman arau. Jaun horien biblioteketan usu ba ziren liburu euskarazkoak, guti bainan beti zenbait. Ahaidek ez zekiten baliorik, denak emaiten zizkidaten bostehun liberetan gogotik, ez zutela haien beharrik, liburu xahar, paper tzar... Gogotik uzten zituzten denak. Euskarazkoak begiratzen nituen denak eta besteak saltzen. Zenbaitek ez zuten balio handirik, pizura saltzen nituen eta balio zerbait zutenak ontsa paga arazten nituen. Euskarazkoak ez ditut sekulan saldu. Nahiago nituen doblezka edo hirunazka izan. Euskaltzale bat hatxemaiten banuen egiten genuen truk. Emeki emeki muntatu dut eta orain ba da zerbait, berrogei urteren buruan. Liburuak, paper zaharrak eta orotarik.

Horra nola hasi nintzen ene gaien biltzen. Orduan gogoan ezarri nuen behar nituela lehenagoko liburu guziak irakurri eta fitxetan ezarri. Bostehun mila fitxa egin nituen, hamazazpi urte barne. Hiru talde nituen : alde batetik bildu nituen hitzak, bigarrenekorik bildu nituen erraiteko manerak, kasik gramatika nota batzu, eta hirugarrenekorik liburuen laburpenak eta kritika puska bat. Horra ene lana.

20 Maiatz

Uztaritzen

Orduan denbora berean Aita Lhandek hasi zuen hiztegi bat. Lehenbiziko ehun eta zenbait paia egin eta utzi zuen, ez zuen denborarik. Nik ba nuen geia, baina ez nuen sosik haren agerrazteko. Ba nuen ene gisako hiztegia egina eta nik bildu ditudan hitzak hartan sakatzeari pentsatu nuen, hark bildu zituenak hartuko nituela eta hola eginen genuela lana.

Jesuitek gauza ona egin zutelaren behar dut. Onartu zuten liburuaren despendio guzieren egitea. Jesuita sositik ari izana naiz. Nik ez nuen sekulan eginen, ez nuen behar zen dirurik. Zazpi urte barne egin nuen lan hori, Aranart apezarekin. Nik fitxak preparatzen nituen eta hark garbira emaiten.

Gero hamar urte eman nituen ene gramatikazko noten biltzen, xuxentzen. Gramatika hola atera nuen, erran behar dut ez dela laburpen bat baizik. Gogoan dudana gramatika egin banu, beste zerbait liteke, baina nork eros lezake ? Geroztik bildu ditut ehun mila hitz. Behar litezke agertu. Ez nuen horren egiteko biderik baina uste dut orain norbaitek agerraraziko dituen. Horra zertan ari naizen. Zenbait urtez egona naiz Gure Herria aldizkarian ez arras zuzendari, baina euskarazko gauzen kudeatzen. Hamar urtez.

Anartean ez nintzen biziki akort «Euskaldunarekin». Hori zen kasetea. Hango ideiak ez nituen biziki onartzen. Alde batetik erran behar dut ni «soziala» nintzela, ez zuten sozialik entzun nahi ere. Bestalde arras frantsesiarrek ziren eta hoztua nintzen frantsesari buruz. Agerrarazi nuen errebista ttipi bat, «Aintzina» zuen izena. Denak gure kontra ziren, erraiten zuten berrizale ginela eta.

Muntatu genuen «Euskal Herrizaleak» gizonentzat eta «Begiraleak» emazteentzat. Begiraleak, hastean, bildu genituen asko herritan, baina emeki emeki denak urtu eta Donibane Lohitzunekoak baizik ez ziren gelditu. Beste emazte guztiak joan zitzaizkigun beldurturik. Gazte zenbait ba genituen gurekin. Orduko problemak ez ziren arras orainekoak. Alde batetik orduko emazten egoera ez zen ona. Ez zuten fitxik irabazten, neronek ikusi ditut orduko gauzak nola ziren. Pentsa, egona naiz Donapaleuko xoko hortan, gaztean, eta badakizu emazte batek zenbat irabazten zuen egunean ? Hamar sos, berrogeitamar zentima ! Zer nahi duzu egin horrekin ? Baiton gauza bera zen.

Frantsesez ari izana naiz gauza horietaz. Tolosan* nintzen denboran, hango artxapezpikuak galdatu zuen norbait «quartier des amidonniers» delako hartaz okupatzeko. Nahi zuen ikusi zer egin zitekeen xoko hortan. Bolontario joan nintzen harat. Ikusi nuen ene kapera ttipian ez zitekeela fitxik egin, egitekotz, behar nuela elizatik kanpo ari izan. Gazte eta ixtudiant batzuekin egin genuen gauza bat arras bitxia. Ez dakit orain nola kausa lezaketen jendeek «des brise-fer» afiak ezartzen genituen, joaiten ginen zinemetara edo ba zelarik zerbait hitzaldi, hara joaiten ginen eta mintzatzen ginen, inun ez ginen ixiltzen. Ene kartierean sozialistak ziren gehienak. Tolosako merian sozialistak ziren buru eta biziki ontsa atera nintzen haiekin. Erran zidaten :

- *Behar dugu elgarrekin arizan lanean. Kartier hori ez dugu ezagutzen. Jendeak ez dira batere merialat etortzen, ez dira meriaz ezkontzen ez bertze nehun ere. Elgarrekin jartzen dira eta hartan fini. Haurrak ez dituzte sekulan agertzen merialat.*

Ba ziren jendeak ehunka, inun izkiriatuak ez zirenak. Ez zuten soldadogorik egiten, haurrak ere zeinenak ziren ezin jakin Ixtorio izigarriak ziren. Han bizi izan naiz eta gustu hartu nuen gauza horietan. Meriaren laguntzarekin egin genituen «Les soupes populaires». Entseatu ginen jenden ezkontaraztera. Egin genuen joko bat aski bitxia : ba ginen zenbait lagun, zenbait meriakoak eta ni, zenbait katolikoekin joaiten ginen etxetara eta galde egiten genien ezkondu nahi ziren, , zer abantaila zuten, bereziki haurrentzat. Zenbaitek igortzen gintuzten antzara ferratzera baina beste zenbaitek onartzen zuten. Bi ezkontzak egiten genituen etxean berean. Ez ziren sekulan elizara joaiten ez eta meriara ere. «Oeuvre de St François Régis» deitzen zen gure ixtorioa. Ni lekuko nintzen eta beste lagun bat ere, meriaren ordekoak egiten zuen meraren afera : eta gero ni apez eta beste biak lekuko. Gero botoila bat ixur eta edan eta ikus arte eta hortan finitzen zen afera.

Noiz zen hori ?

P.L : 1925-ean. Galde egin nuen gauza horien egiteko baimena apezpikuari. Erran zidan :
- *Vous me demandez beaucoup là-dedans !* Erran nion ez nuela fitxik egiten ahal, gauzak elizatik kanpo behar gintuela egin : sakramenduak eman eta hola.

- *Je vais vous donner le pouvoir d'accomplir tout ce que vous voudrez, mais je ne vous donne pas l'autorisation.*

- *Comment ?*

- *Oui, je vous donne le pouvoir pour que ce que vous ferez soit valide, mais je ne vous donne pas l'autorisation. Je ne veux pas qu'on puisse dire que vous avez reçu mon autorisation.*

- *Vous me soutenez comme la corde qui soutient le pendu ?*

- *Oui un peu. Je vous donne huit jours pour réfléchir, vous reviendrez et vous me direz ce que vous en pensez.*

Joan nintzen ene kofesorraren ikustera.

Donapaleukoa zen, Fourcade. erran zidan :

- *Qu'esct-ce-que vous risquez ? Si ça ne marche pas on va vous vider, vous renvoyer à Bayonne, un point c'est tout !* Lagunek erran zidaten :

- *Vas-y, vas-y, qu'est-ce-que tu veux que ça fasse ? Tu feras une expérience, ça te servira, tu ne risques rien du tout !*

Joan nintzen artxapezpikuaren ikustera :

- *Et alors mon petit ?*

- *J'accepte.*

- *Comment vous acceptez ?*

- *Oui j'accepte.*

- *Moi je vous avoue franchement que je n'aurais pas accepté. Parce qu'enfin, ce n'est pas très rigolo la situation dans laquelle vous allez vous trouver.*

- *J'ai réfléchi, j'ai consulté, je suis décidé.*

- *C'est très bien. Quand vous aurez fini ce stage vous me ferez un rapport, vous m'indiquerez ce que vous avez remarqué etc. Entre temps vous serez surveillé de près.*

Bainan ez naute sekulan arrastatu eta, bi urte pasa, hantxet egin nuen ene lana erranez ez zela apez bat ezarri behar hor bakarrik, behar zirela bederen hiru ezarri. Hamar mila arima ba ziren toki hartan. Bestalde nik hasi nuen sailari behar zela jarraiki, bestenaz ez zela onik eginen. Anartean langileak arras enekin nituen. Zeren eta grebak eta horiek oro laguntzen nituen. Arras «gorria» nintzela erraiten zuten jendeek, berdin zitzaidan eni. Hara nola hasi nintzen gazte gazterik. Beraz konprenitzen duzue aise Eskualduneko ideiak ez zirela arras eneak.

Nahi nuen zerbait egin. Hunat eta, emaztez okupatzen hasi nintzen eta egin nuen errebista bat : «Le Carillon», Bordelen ateratzen zen eta ez zekiten nor zen buru. Nik sinatzen nuen «Pierrette Labbé». Baionatik laguntzen ninduen neska batek, arras inteligenta. Hark Baionako zindikatak laguntzen zituen, uste dut sortzez judua zela. Katoliko bilakatu zen eta lagundu ninduen biziki ontsa. Egun batez gauza bat gertatu zen : kongreso bat egin zuten neska horiek eta nahi zuten Pierrette ikusi ! Ai ai ai, hori besterik zen. Orduan eri nintzela eta ezin joan.

Nor zira, PIARRES LAFITTE ?

Igorri nuen ene hitzaldia andere horrek irakurtu zuen ene izenean. Denek erran zuten beste aldi batez etor nendin. Zenbait egunen buruan jakin zuten Ameriketara joana nintzela. Horra nola hasi nintzen eta emazteen dretxoan alde lehenik.

Gero egin genuen «Aintzina». Hortan ere gure xedea ez zen arras politikoa. Politikoa zen bai zeren eta Ybarnegaray-en kontra ari ginen. Eskualduneari izkiriartzen nuen aintzina. Egun batez izan genuen bilkura bat, Eskualdunaren konduak eman zituzten eta horiek oro. Ni xoko batetan nintzen, oraino gaitza. Orduan Ybarnegaray-ek atakatu ninduen :

- *Ces jeunes blancs becs qui veulent mettre la pagaille dans notre pays !*

Altxatu nintzen eta erran nion aseak ginela «cacique» horietaz eta hemendik goiti geronen buru izanzen zirela gauzak, ez genuela haien iritzia beharrik, ba genekielako geronek zer dugun egiteko eta bakea eman zezaten. Ai ai ai orduan, denak harrituak eta jin zitzaidan :

- *Calme-toi mon vieux, qu'est-ce-que tu fais ?*

Gauzak hola pasatu ziren. Geroztik ez ziren biziki xuxendu bainan egiten genituen nahi genituenak.

Gero gerla jin zen, bestaldeko gerla hori. Hortan ere hartu nuen ene parte bereziki okupatu nintzen hango haurrez. Lan harrigarria izan zen hiruehunerahurogei bat haur ba ziren Hendaian bilduak eta inor ez zen okupatu nahi haieztaz.

Egin genuen biltzar bat, hemengo euskaldunek behar genituela haur horiek bildu. Lehenbiziko dei hortan kasik denak akort ginen eta bereziki Ybarnegaray bera eta apezpikua ere. Bildu ginen Ybarnegaray-en jauregian. Ontsa errezebitu gintuen. Planak egin genituen eta ezarri ninduten sekretario. Behar nuen izkiriatu dei bat Euskal Herriari buruz eta haieek behar zuten sinatu. Uztaritzera biltzen naiz, egiten dut deia frantsesez eta euskaraz eta joaiten natzaio apezpikuari :

- *Voilà Monseigneur le texte.*

- *Ah oui mais ...*

- *Quoi oui mais ! Vous avez promis de signer.*

- *Il s'est passé beaucoup de choses entre temps. J'ai eu la visite de Monsieur le doyen de St Jean de luz, le chanoine Bellevue et son cousin Harriet, est venu de St Sébastien et il lui a fait comprendre que c'était une grosse erreur, parce qu'au fond, c'était se mettre dans le camp des rouges. Vous comprenez, c'est très ennuyeux cette histoire-là, de compromettre la Sainte Eglise.*

- *Compromettre la Sainte Eglise ? Je ne vois pas*

22 Maiatz

du tout en quoi elle est compromise. C'est une oeuvre de charité un point c'est tout !

- Remarquez bien que je ne vous interdis pas de vous en occuper et même je vous conseille fortement de le faire, il faut que nous soyons...

- Qui nous, moi seulement ?

- Vous ne voyez pas les choses sous le même angle que moi et j'avoue que je ne puis signer cet appel. Remarquez qu'il faut absolument que vous vous en occupiez, il ne faut pas laisser les enfants comme cela.

- Je vous remercie de votre bon conseil.

Joan nintzen Ybarnegaray-en ikustera. Hark erraiten dit :

- Ah mon cher ami, tout est changé !

- ça change vite !

- Oui mais que voulez-vous, c'est comme cela. Nous n'y pouvons rien.

Paperean nuen ene deia, haien sinadurarik gabe eta hasi nintzen haur horien biltzen. Ez zen aski biltzea, behar ziren hazi, beztitu. Behar zen norbait haietaz okupatzeko. Zenbaitek sinatu zuten : Louis Dassance, Jaureguiberry medikuak, eta sosa behar zen nunbaitik jali. Uztaritzen ba zen errefugiatu bat diruduna, Intxausti Imanol. Aberatsa izan baldin bada, erran daiteke denak eman dituela obra hortan. Ene eskuetarik hiruetanhogei miliun pasatu ditu haur horientzat. Hartu genuen etxe bat, hemen Jatsun, gero joan ginen Xuberora. Han ere ba zen lantegi xahar bat, hura hartu genuen. Donibane Garazin hartu genuen Citadela eta hantxet haurrak ezarri. Bainan ez zen aski, behar zen andereño zenbait hatxeman haurretaz okupatzeko, behar ziren pagatu. Diru ainitz behar zen. Haur handituenean behar zuten ahalaz ofizio bat hatxeman, aprendizgoa egin bederen.

Bestalde aitamak nun ziren behar nuen hatxeman, elgarren berririk ez zuten. Hortan Uztaritzeko superiora arras idekia zen. Erran zidan :

- Occupez-vous de cela, on se débrouillera pour vous remplacer pour le travail de classe. Ne vous cassez pas la tête, faites votre boulot, c'est le plus pressé en ce moment !

Hemen ene apez lagunek arras alde onetik hartu zuten. Hori ez zen literatura. Zerbait zen gauza hori ere. Gramatika geroztik egina dut, frantziako bigarren gerlatik landa.

«Eskualduna» kaseta itzali zen. Preso ezarri zuten Arotzarena* jaun apezalemanen aldekoa zelakotz omen. Ni, gerla denboran, alemanen kontra ari izana nintzen. Ba nuen «une chaîne» Uztaritzetrik Arnegirakoa. Nik geografia kartak egiten nituen, nun ziren alemanak eta berri guztiak hunat etortzen ziren. Nik xehetasunak kartetan ezartzen nituen eta Espainiatik Afrikara pasatzen ziren. Alabainan behar genuen jende hortako. Ez dira gauza horiek hola egiten.

Gerla ondoan galde egin genuen baimena kaseta euskarazko baten egiteko. Bainan zenbaitek ez zuten nahi. Orduan ez zuten errefusatzeko bainan beti luzaz entzuten genuen :

- Bai, eginen dugu, bainan ba dakizu, ba da beste lanik, goazen erreposki, geroak erranen du.

Xifrituak ginen eta erran ziguten :

- Faites un bureau, un comité du journal, portez-nous les noms, ea...

Ekarki genuen hori, «comité de la libération» delakoari eta :

- Celui-là il ne faut pas, celui-ci non plus, il ne nous plaît pas. Vous ça va très bien mais...

Bizpahiruetan gure komite hura erreberritu genuen. Joaiten nintzen haien ikustera eta beti :

- Ondoko egunetan ikusiko dugu. Sekulan ez zuten baimenik emaiten. Uste nuen baimena behar zela. X..... zen «comité de libération» horren buru.

Egun batez (Pauetik behar zuten omen baimena), ba noa nihaur Pauera eta hantxet kausitzen dut xuberotar bat, bulegoetan zena eta erraiten diot :

- Et alors quand allons-nous recevoir l'autorisation de faire paraître un journal en basque ?

- Mais nous n'avons jamais à donner d'autorisation pour aucun journal. Ça dépend de Bordeaux. Vous avez là-bas une rue judaïque et le bureau central du Sud-Ouest est là-bas.

Hara noa eta han ba zen bulego batetan andere bat. Galde egin dit nundik heldu nintzen, Euskal Herria biziki maite zuela eta Donibane Lohitzun biziki toki ederra zitzaiola.

- Ez naiz hortara jina, nahi nuke jakin emaiten ahal dautazun kaseta baten agertzeko baimena.

- Zertako baimena ?

- Baionako kasetek eta Pauekoek izan duten baimena.

- Uste duzu ? Ez, nehorik ez du baimenik. Bako txak hartzen du berea eta fini. Egizu bestek bezala, ez duzu nehoren baimenik behar !

Uztaritzen, telefonaz igortzen diot Xri:

- Cher docteur, je vous remercie de toutes les démarches que vous avez faites pour notre journal basque, nous avons parfaitement réussi et nous sortons la semaine prochaine.

- Ah vous avez reçu cela ?

- Grâce à vous heureusement et je tenais précieusement à vous en remercier.

- Ah vous savez je suis ravi, je m'attendais bien à ce qu'un jour ou l'autre ça arrive, ils ont tardé quand même !

Gero harrapatua izan nintzen zeren eta, hala ere, zenbait denboraren buruan, paperik ez nuen kasetaren egiteko. Egun batez Bordelen ikusten dut Plevén, betroin bat, gobernuko moltseroa, egiten digu gaitzeko hitzaldia, frantzia behar dela lagundu, «un emprunt national» eginen zela. Bere hitzaldia bururatu orduko igaiten naiz haren ondora eta erraiten diot :

Maiatz 23

- *Monsieur, nous voulons bien vous aider mais nous n'en avons pas les moyens*
- *Qu'est-ce qu'il vous faut ?*
- *Du papier. Vous ne pouvez pas me donner du bon papier ?*

Hor berean paper bat egin zuen eta sinatu. Bainan nik astokeria handi bat egin nuen. Uste nuen zer nahi galde egiten nuela. Galde egin nion lau mila aleren sinadura. Hamar mila ere galde egin banu, emanen zizkidan bainan ez nuen hori batere karkulatu.

Denbora puska baten buruan, paper eskasian ginen eta izkiriatu nuen Pauera, han bait zen «dépôt pour papier de presse». Galdegina zidaten :

- *Vous ne pourriez pas envoyer le certificat du moment où vous avez commencé ?* Paperik ez genuen. Arrapostua egin nion :
- *C'est dans votre bureau que se trouve le texte de l'autorisation qu'on nous a donné, cherchez et vous trouverez certainement au 16 novembre 1944.* Ez zuten bilatu ere eta papera eman ziguten.

Ez zen lan aisea izan agertzeko. Bestalde zentzura ere ba zen. Ba zen Baionan komandante bat eta behar zuen gure lana ikusi. Ez zekien euskararik eta norbait behar zuen. Poliz bat hatxeman zuen bainan gurekilakoa zen eta gauzak hobeki ari ziren. Zer nahi gisa, zenbaitetan heldu zitzaidan gaixoa :

- *Nola behar dut hau itzuli ?* Emaiten genion behar zen itzulia. Pauetik batzuetan zenbait erreportxu errezebitzen gintuen.

Izan zinuten beste trabarik ?

P.L : Ez. Orduan galde egiten genuen behar zela hori egin, gobernuak ez zuela behar zuena egiten. Egun batez prefetak igortzen dit letra bat :

- *Monsieur le Directeur, l'article paru en deuxième page à la troisième colonne ne nous a pas fait plaisir.* Arrapostua :
- *Monsieur le Préfet, cet article n'avait pas été fait pour faire plaisir à qui que ce soit.* Gataska piska bat, bainan gauza guti izan zen.

Geroztik izan genuen besterik, bereziki Afrikako gerla hasi zenean. Guk igorri genuen «un coup de béret aux Fellagha». Ai ai ai, orduan prefetak berak eman zuen gure afera tribunalean. Ez genuen ukatzen ahal. Jukeak galde egin zidan ezagutzen nuenetz artikulua hori, nik agerrarazia zenetz. Ene gain hartzen dut :

- *Ez duzu esplikatzeko ahal nolazpeit ?*
- *Ez. Ez dut esplikatzeko ahal.*
- *Nahi zinuke abokata ?*

Ez. Ene burua nihaurek xurrituko dut behar balin badut.

Orduan Larzabal apezarekin ginen. Hitz bat igorri zuen : nahi zuela partzuer izan enekin. Bainan abokata ba zuen, Olphe-Gaillard hartu zuen abokata gisa. Hurreko lagunak ziren, elgar ezagutzen zuten ttipitik. Jakin nuen dozierean zer ekartzen zuten. Kontseilu jeneral guziak altxatu ziren orduan gure alde, joan ziren parisera eta erran zuten eskandala izigarria izanen zela preso ezartzen bagintuzten. Baionan utzi zituzten epeak pasatzera. Gero, zortzi hilabeteren buruan, ez bait zen gure doziara pasatu tribunalerara, afera erori zen. Bainan jujea joan zen apezpikutegegira eta erran zuen :

- *Vous savez, ce n'est pas parce que l'on a reconnu l'innocence de vos deux gaillards qu'ils ne sont pas en prison. Dites-vous qu'ils sont bien coupables. Ils échappent à la loi par un tour de passe passe.* Prefetak nahi zuen bost urte presondegi guretzat eta ez dakit zenbat diru. Ez nuen dirurik eta ez zuten aise izanen. Horra gure ixtorioa.

Zer lanetan zira euskarari buruz, egun ?

P.L : Euskarari buruz bi gauza ikusten ditut. Alde batetik euskararen ikertzea eta hortan ari izana naiz asko, zeren eta ba dakizue sei urte hauetan ez dudala besterik egiten. Preparatzen ari naiz «Atlas linguistique du Pays Basque Français» delakoa. Ba ditut bostehun karta egiten ari ditudan ikusteko hitzak nola barreiatuak diren Euskal Herrian gaindi eta nun nola pasatzen diren hitz horien lerroak, zeren eta gauza harrigarriak ba dira hala ere. Hitz zenbait, doi-doi toki batetan gertatzen dira. Beste batzuek hedadura biziki handia dute. Beste batzuek ez dira goratasun batetarik goiti baizik hatxemaiten. Ikusten dugu latina agertzen dela zelaietan, latinetik heldu dira kasik hitz guziak. Aldiz mendietan ez, eta ikusteko da nola biarnes, kaskoin, aragoi, lehenagoko «romance» hortan edo Katalanean, hain batetarik goiti hitz berak ditugu denetan. Uste dut «langue pyrénéique» zerbait izan dela. Ez dakit euskara zenetz bainan denek hitz berak ditugu. Hori gauza harrigarria da.

Nun ikas ditake euskara «garbia» gaur ?

P.L : ene ustez ez dakit nun ikasiko duten oraiko egunean. Lehenago ba genuen iturri bat : xaharren ikustea, haiekin mintzatzea. Nik, hola ikasi dut euskara eta hasi nintzenean, kurritu dut Euskal Herria. Ikermen zenbait egin dut. Ohartu naiz gauza batzueri : artzainekin ikasten da euskararik hoberena. Zertako artzainekin ? Artzainek astia ba dute eta orduan, mintzatzen dira elgarrekin asko. Bestalde kasu egiten dute gauzeri, landare bati, besteari, mamutxak ere, xoriak, denak ezagutzen dituzte. Erran daiteke, Arnegiko artzain batek ba dituela milaberrehun hitz bere meneko. Aldiz hartzen baldin bada laborari bat, Jatsuko herrian, bederatziehun hitz dituzke. Ez da miletara heltzen. Eman dezagun Uztaritzeko karrikako bat, hunek ez duke zortzi ehunik. Beti hitz berak erabiltzen ditu. Ez dut erran nahi ez dakiela euskara, euskara ba daki, baina ez du hedadurarik.

Bainan ba da beste lanik egiteko. Akademian ari dira bilatzen. Proposatu dizkiet lan berri batzu erakusteko nola erabili behar diren, ez dut erraiten «la conjugaison», baina aditz bakotxak nolako konplementuak ekartzen ahal dituen, nolako osagailuak. Hortan ba da aintz egiteko zeren ohartzen bait gara, oraiko asko idazlarik ez dakitela gehiago nola ibiltzen ziren aditz horiek. Zenbaitek erranen dute : jarraitzen dut gauza hori. Beste batzuek : jarraitzen natzaio. Ez da batere gauza bera. Ba dira zentzu batzu berextekoak : «ahantzi zait» eta «ahantzi dut» bi gauza dira. Gauza horietaz ez dira batere okupatzen, ez dute kasu egiten. Aldiz gure xaharrek eta bereziki laborariek ba zekiten euskara eta ez dira tronpatzen. Ba zekiten «mintzo naiz» -ek erran nahi duela «mintzatzen ari naiz». Baina oraiko zenbait jendeak erraiten bait dute «euskaraz mintzo naiz», hori irringarri da, beharko lukete ezarri «mintzatzen naiz». Gauza horiek oro behar litezke izkiriatu eta behar bezala xekatu. Hortakotz nahi nuke egin dadin liburu bat hortakoa. Frantsesez, ba dakizue orai lan hortan ari direla. Alemanek dute hasia lan hori.

Hiztegiari buruz, zer diozu ?

P.L : ene gostuko hitz sobera ba duzu euskaraz, zeren eta herri bakotxak bereak baititu orduan galtzen gara. Ene gostuko hitz gutiago behar genuke, baina horiek hautatuz horiek berak denek erabiliz. Ez dakit franziako literatura ezagutzen duzuen baina hauxe : teatroan, Racine-k frantsesez ez du mila hitzik. Pascalek lauehun hitz ditu bakarrik bere obretan eta, bizkitartean, hark bezala mintza ba gintez ! Hitz gutirekin baina haien joskera ezagutuz, mintza gintezke. Hoberena liteke entzutea euskaraz baizik mintzatzen direnak nola erabiltzen duten.

Zer diozu gaurko idazleetaz ?

P.L : Zenbaitek, ene gostuko ez dakite euskararik. Española ba dakite ba, biziki ontsa, baina euskara guti. Izigarri da.

1976. eap. egipä .

EZ

hegaldatu dira
 oihuaren oiharzunak
 zirimolaka elgar jo eginik
 oihua garrazi
 eta garrazia orro luze
 eta artekaren ixilak
 neurri hautsi batez gela jantzi du
 begiaren aintzinean
 nigar gorri bustiak
 xortaka
 bederazka
 bainan
 ezpainean
 ez
 ez ene herriko guzien izenean
 ez
 ene herrian
 atzartzen ari dira
 ez koma baten lo tzar batetarik
 jeikiak dira ene etxean
 ni xutik dilingan
 radioa piztua luke
 Salvador-en haur garbitzen ari dira
 yankitarren harmek heriotzezko loreak
 elikopteren hegalen burrumban
 hegalez eta begi hutsez
 haien begiek jadanik hila naute
 jo ta erre ta eletrika ta dilingan
 eta lorik gabe ta zikindurik
 eta herraren ezpatak
 orro luze itoak
 leihorik gabeko leize ifernuzkoan
 zintzur zauritutik garrazi hilak
 kurrinka ezdeusak
 irringarriak
 bainan
 ezpainean
 ez
 ez ene herriko guzien izenean
 ez
 ene herrian
 lanera doatzi
 bizia galtzeta nagusi batentzat
 besterik ez dute ikasi
 lana eta lana
 indar osagarri gogoen truk
 dirua
 dirua biziaren sari
 akitua denarentzat
 lo belarra
 telebixta tierzea futbola rikarra
 ados ez denarentzat
 ene zanpatzaileen beldurra
 beldurra
 kolpea nundik jinen den
 beldurra
 bizia ixurtzen ari baitzait
 beldurra
 nola eta noiz utziko nauten
 zanpatzaile guzieri



ez
ez ene herriko guzien izenean
ez
ene herrian
eguzkia badukete
haizea zuhaitzen adarren perekatzaile
edo euria berdin
hedoi pizuen izar bustiekin
ur xirripak kantari
edo gaua behar bada
mendi urddinak itsasoan
izar hotzak kantari
ez hemen bezala
ez hemengo gaua
auhenaren gaua
indarren ezeztatzailea
gogoaren erho arazlea
erraiten delarik
ez
ez ene herriko guzien izenean
ez
ene herrian
barda bere buruaz besterik egin du batek
tiro bat ahoan
bakarrik bizi zen mendian
nork hil du
nork kezka bidegabea zabaldu dio
ene herri mutuak
ene herri mespretxatuak
ene herri umiliatuak
bizia kendu dio
buru puskez eta odolez inguraturik
barnea urratzen ari zait
higitzen naizelarik
etzanik argiak itsutzen nau
odolak lotu begiak ezin hetsiz
itzultzen dira jadanik
kaskak urrun dira orain
ez ditut senditzen
forma bitxiak dituzte izarrek
irri egiten diotet
ez dut beldurrik
ez
ez ene herriko guzien izenean
ez
ene herrian
mendiak jauzika ari dira
ibaiak iguzkiarekin jostetan
emazte gizon eta haurrak besarka
airez
ene auzoen artean nabila
ez naute ikusten
eliz dorretik itsasora punpaka
besoetarik tiratzen ditut
itsasoa gorritzen da
begietan hatsa gelditu da
orro eta garrazien oiharzunak
zerutik behera
jausten dira
hegalez.

Egiaren egarriz

Henriette AIRE

1981 - X - 29.

Zure harriari
Kaska kaska kaska
Egunak urteak
Kaska ta kaska
Pereka eta kaska
Egunak urteak
Kaska ta kaska
Eta hantxe
Atzo moldatu xilopi hartarik
Odola dario
Xortaka xortaka
Zure odola dario
Ezagutzen dut
Xilopi bakoitzetik ere
Odola dario
Eta zu , zure harriari
Kaska kaska kaska
Egunak urteak
Kaska ta kaska
Pereka eta kaska
Munduak gorde nahi duen
Poesiaren arnasa
Zure harriari eman arte
Egunak urteak
Kaska ta kaska
Pereka eta kaska
Munduak berak ezin itzaliko
Poesiaren arnasa
Zure harriari eman arte ...
Egunak eta urteak
Kaska ta kaska
Pereka eta kaska
Odola ere xilopiatik dario
Bainan azkenean
Zure egiaren egarriaz
Eta bakartasunean
Zure harrian kokatu duzu
Munduarentzat
Betiko
Hilgarri ez den
Bizia.

28 Maiatz

Total, hemengo laurok airoski lorietan ginen eta ipuin polit guziek bezala; sorgin bat etorri zen Hura ez zen batere gaiztoa. Ez, batere... Izgarrizko bihotz handi bat zuen. Baina, gure ipuinetazko herrira heldu zelarik, ez zuen konprenitzen ahal, harek, horren luzez ezagutzen zuen gizonttoa. Sorginak beti eta gutiago ulertzen zuen; beti eta gutiago bere burua geure ipuin herriko jendeetaz bere burua maitaturik sentitzen zuen. Eta, batez ere harek gizonttoarekin ipuinak egin nahiz eta ahuntzak gorde zaindu eta berotu. Baina, gizonttoa jadanik biziki urruti zebilen beste ipuin batetan sartua. Ipuin berrian neska erdi-tzar-erdi-on ezagutu berri zuen. Begiak dirdiraz, gizonttoak ez zituela sorgin onaren intenzioak ikusten.

Halako batetan gizonttoak neska berriarekin beste ipuin mundura ihes egin nahiz ari zen... astelehen euritsu batez gure sorginttoa bere ahuntz goxokekin bakar bakarrik gelditu zen - nigarrez - bihotza euria bezala, busti bustia.

Gizonttoak begiak dirdiraz zituen: beste mundu berria bere esku beroez hunkituko baitzuen neska erdi-tzar-erdi-onak bidea erakutsiko ziokean.. Mundu berri hori zorbait gustatzen zitzaien nihork ez du asmatzen ahal; Eguzkiak irripark egiten zien haren begi dizdiratsuei eta neskatoak behatza gora aldera itzuliaz erakusten zion: «Hara neure lagun minena!» Eta gizonttoaren sudurra, ahoa bezala, dardaraz gelditzen, mugitzen zen!

...Mundu hortan etxe luze luze bat, hiru ehun eta berrogoi malladi elkarrekin higo behar zituzten, sei dorre luze eta zorrotzak hunkitzeko, bi dorreen gainean izgarrizko zuhaitz bat josirik zen, tontorrean, Maltako gurutze hori, xuri eta urdin. Eguzkien pindarrek gurutzeak itzuli arazten zituzten: hala gizonttoak mila eta mila kolore desberdin, forma desberdinak asmatzen ahal zituen. Batzuetan dorre gainean arrain gorri gorri eta bustiak jauzika eta hegazka ikusten zituen, gero suangile gero musker itzel batzu, geroxago suge dotorre batzu... Gizonttoaren begiek ez zuten nihoiz halako dizdira berezirik erakutsi; neska erdi-tzar-erdi-onak bidea erakutsiko ziokean! Neskak ez zuen gizonttoaren esku beroa uzten; bere eskuak horren latzak, neskak ez zituela bere-atarik joaiten uzten ahal.

Ahuntzek gizonttoa apreziatzen zuten bizi. Orain, bere begietako dizdira ikusi ez zutelakotz, ez zuten konprenitzen ahal nola gizonttoak beste mundura joaiteko gutizia ukan zuen.

Goiz batez, sorgina hurbildu zitzaien eta esplikatza ensaiatu zen nola gizonttoa suangile, musker, suge eta gurutze polit batzuen laztantzera joana zela. Baina, ahuntzek ez zuten dizdira hura ikusi, eta beti gizonttoaren berri jakin nahi zuten.

Ahuntzen Ibilaldia

Egun oroz, gizonttoari eskeintzen zioten esne gardena gutika, gutika suntsitzen hasia zen. Sorginak bere egin ahalak egiten zituen ahuntzei esplikatze nola gizonttoa laster etxeratuko zen eta esneak beti garden izan behar zuela, hura berriz itzuliko zenerako. Baina, ahuntzek gizonttoaren esku latzak sentitu nahi eta buruez denak elkarrekin ihardesten zioten «BeheEZ; beheez, beheez, ez behe ez».

Sorginak ahuntza begiraturik burua apaldu zuen eta berak ere gizonttoaren begi dizdiratsuk begiratu nahiz ari ari zen. Gizonttoa beste ipuin munduan bai ontsa zela, suangile, musker, suge eta gurutze kolorezkoak bere buruan sentzazionez zitsu batzu sor arazten zioten.

Neskatoak bere behatzez beti eguzkia erakusten zion, gizonttoari noiztenka: «Hori da neure lagunetatik minena!». Oroit arazten, gizonttoak ahazten zuelarik Honi maiz burutik eskapatzen zitzaien, bere begi dizdiratsuek beti suangileei, muskerrei, sugeei, eta gurutzei so egiten zielako eta egun batez neskatoak ez zuen bere lagun mina hartxeman, gizonttoaren eskua azkarki hesitu zion, nehoiz ez zituen horren esku latzak sentitu behatzaka neskak lasaitu zuen, eta gizonttoaren eskua gutika hoztu zuen. Neskak ez zuen geroztik berriz bere eskua eman nahi izan. Gizonttoak eskuak izoztuak zituen eta neskaren eskuak harrapatu nahiean zen - orduan baizik oroitu zen neskaren behatzak erakusten zionetaz...

Ahuntzen berotasuna bururatu zitzaien. Non ote ziren orain eguzkia eskutatu zelarik eta bere esku latzak horren gogortuak zituelarik? Hoztasun berri honek belarrietako mina emaiten zioen eta begiak hesten zituen, bere buruan suangile, musker, suge eta gurutzeak nahasten zirela, horren nahasmasi handia eginez, gizonttoari berriz sorgina aurkitzeko nahia sartu zitzaien, eta ahuntzen begirakada ezia ikusteko ere bai!

Neskatoak ez zuen gehiago bere lagun-mina bere hurbilean sentitzen ahal eta ez zekien zer zuzenbide har, ez zekien norat abia...

Aldiz, gizonttoak bazekien eta ahuntzen usaina belarrietaraino higo zitzaien. Unean, ulertu omen zuen ahuntzek eta sorginak bere begi dizdirat begiratu nahi zutela, beraz haren gana hegazka abia behar zutela. Ordudik ahuntzek esku latzak goستن dituzte eta begirakada dizdiratsua mihazkatzen.

Maiatz 29

s'endormir (faire un somme)
grognement de porc
ronflement
(en dormant)

kozkor :
kraskatu :
kukuldu :
kulunkatu :

trognon
briser
s'engourdir
osciller

kuluskatu :
kurrinka :
zurrunka :

kahaka :
kalkutza :
kalakari :

chouette
contenu d'un kaiku
bavard

kiskil kaskail

Kiskil kaskail kirrikili-karrakala kirrikilak
kiskun-kaskun batean kilimiskan, kirrikaka
kizkira kizkur kozkor bat klikatu zuen,
kilin-kalan eta kezkarik gabe, kokotzazpia
kilikatuz kitzikatzen ziola.

Kinkun-kankun, kakarazkatu zen, iduri kahak
kahaka kalakari bat kali baten gainean
konkolotx lurrari karrakaz.

Kaskoraino kalkaraz ari zen kaikutra batez
kalkatu zen eta kaskaka kraskatu zuen.

Kinkili-kankala kilikoloturik, kulunkatuz
kokorikatu zen eta kukuldura batean
kuluskatu, zerri kurrinka baten zurrunkan.

kirrikil :
kirrikili-karrakala :
kiskil :
kiskun-kaskun :
kitzikatu :

bofteux
maladroitement
vaurien
en bafouillant
taquiner

kilikatu :
killkolo :
kilin-kalan :

kakarazkatu :
kali :
kalkaraz :

chatouiller
instable
couci-coupa

glousser
baton
en ébullition
se gaver

kizkira :
kizkur :
klikatu :
kokorikatu :
kokotzazpi :
konkolotx :

crevette
recroquevillé par
la chateur
ingurgiter d'un coup
s'accroupir
gorge
à califourchon

karrakatu :
kaskail :
kaskaka :
kaskoraino :
kezkarik gabe :

kilimiska :
kirrikil-kankala :
kinkun-kankun :
kirrika :

gratter
dégainardé
en dormant des coups
à rebord
sans souci

plaisanterie
se soutenir à peine
de façon nasillarde
grincement

30 Maiatz

Arrozen

Lehenik, bideak kartsutasun hartzak erakutsi ditu. Duda batekin hala ere. Nornahiren adierazle ez baitu izan nahi. Mendi mazela harritsuari mendeetako euri uharrek egin arroila iduri luke. Bainan, ezker eta eskuin, esku batzuek altxatu murruxka batzuren ondarrak hor dira, gogo sineskor eta eragile batek noizbait arta hartu duela erakutsiz. Erdian, eskaler baten pare, behar orduan, edo denbora txarrek sortu errekek lurra ez eramaiteko, harri lauzen moldean jarririk, mendiko harri zuriak milaka dira. Jendeen eta abereen urratsari doakon patar ezti batekin bidea iragaiten da. Eskuin, iratze eta haitz ederrak, mendiari goiti doaz. Esku ezkerrean, lurralde baketsu gizen perde eztiak, Oztibarreko pentzeak, eta, urrutian, Iratiko mendi hesi ilun basa, hedoiak koronaturik, mugidura aldakor eder batean. Huntz hosto batek besarkaturik iduri, arbola bat, ezin bizian dago. Guri ohar arazteko bizidunak bizidunen bizien iresle direla eta bizidunen mamiaz jabetzeko beharra dutela.

urteen

Patarraren gainean, hiru bideen artean, ukurtu eta, sasipean sar ditake. Bazterrak ontsa ezagutu behar dira: ezkerrean jo ondoan, gero eskuin aldera eta goiti. Haitz zahar zabalaren oinetan, lapar, sasi, asun, elorri xuri edo aihen xuriek lekuak gainditu dituzte eta bideak galdu dira. Konkortuz eta kasu emanez elorrien aztapar zorrotzari, iragaiten ahal da: argiaren eta ilunaren mugetara helduak gira.

Leku umi sapatun hauetaraino iguzkia ez da sartzen. Nun nahi, harri puskek, ereinak bezala, urteak eta urte luzeak hor direla. Esku batek lantuak, hautsiak, aurdikiak? Ez da argi ageri zeren eta goroldio perde lodi batek kukuturik baitaude. Sasi haundi baten gibelean, eraikidura bat: lerro lerro, denak goroldioz estaliak, hil herrien kanpoko murraren oinarriak. Parte gehiena eremana izana da; bestea, eroria, metaturik dago. Hil herrietarik gauza guti dakusagu: lau metro gorako sasiek bai hil harriak eta bai eliza estaltzen dituzte. Nekez itzulia egin ondoan, sasi gutiagorekin, toki bat edo beste. Harri meta zerbait jauzi egin eta sartzen ahal da.

bidean

Hemen hilak etzanak direla, ezin da sinets... Aspaldiko jauregi baten baratzeta basa zerbaiten airea duke toki hunek, bainan ez hilen eremu batena. Sasipean, harri lantu puskak hor dira, denetan bezala goroldio eta likenek janak. Gainera, arbelez eginak izanez gero gehienak, tipularen axalaren moldean barreatzen ari dira. Beste puska batzu: kurutze ezkina bat, harri biribil zartatu bat, moldegabezko beste batzu.... Kurutze batzuetan izenak. Izenak izaitzearen deiadar ixilak bainan zoin hunkigarriak: Katalina Arrogainekoa, 1749.ekoa, Maria Diribarnegaray Aizpuruko anderea, 1780.ekoa edo Ioanna Irigoinekoa, 1688.ekoa. Ezpel eta laparren erdi erdian, euskaraz jantzi kurutze bakarra: «Dominica Sala hil içan da açaruaren hogeï eta bigarrenian 1821». Hil harri miresgarri bat, soilki herriko hargin batek loretua. Belaunikatu ondoan irakurtzen den harri xume xuria, iguzkiaren argiak aspaldi norbaiten begietara atera ez duen oihua. Suntsitzearen kontra jarri izaitea. Zu, orduko emaztea, gaur hemen hezur zirena, nor zinen? Urteek jan emazte xahar beltzez jantzi bat ala udaberriko irriek bete neskato gazte gona gorriduna?

Larrazkeneko hegoak maite ote zinituen? eta zure biziko urratsak zorionak ala zorigaitzak ditu beztitu? Zure begien dirdir ezta zer bilakatu da? Nola ziren orduko Arrozeko bideak eta bizi moldeak?

Nork eta zergatik ahazturaz eta gordetasunez betetzera bazter horik utzi ditu? Gogoeta joriak jauzten dira Gizakia izpirtuaren fruituekin bakarrik ez da bizitzen ahal. Bere egokitasun sozialetik bere kultura eraikidura xeheetaraino, biziduna lege batzuen pean dago. Gogoaren funtsa, oroitzapen minberena pizu gutikoak dira eguneroko biziaren behar orduen aldean. Harri sakratuak berdin borda edo etxe baten xutitzeko baliatzen ahal dira eta hilerriek behi edo zaldientzat bazka on bat sor arazten ahal dute...

Noizbaiteko sinesteen bortxapenek patarrerri goiti jendeak ibil arazi dituzte. Mendi eta mendi mazelatan artzain izaitteek eta beraz artzainen sinesteek bizia kudeatzen zuten Ekonomia aldakuntzak, gure herrian, mendi beheretako izaitte eta sinesteeri, duela berrehun urte, bidea ideki zuen. Eta, Arrozeko eliza ixil eta gordeak denboraren atea hetsi izan behar zuen. Jaingo, zaharrak hegaldatu dira. Zibitze edo Larzabalen jaingo bera denez? Goiko Jauna, mendi gainetik ikusia, eta erreka zolatik begistatua ez ditake bera.

Elizako murrak ageri dira orain. Arku baten azpian, harri hautsi batzu. Ondoan, ate bat, edo, hobeki, ate baten herrestoak, hetsia baita Atean berean, beste ate bat' apalagoa Hemendik sartzen ziren gure herriak menperatzen zituen bazterlariak: agoteak, buhamiak, sineste 'dudazkoen jabe ziren etxe ta lurrik gabeko miserable tristeak. Hemen, girixtinoetarik aparte eta herritik aparte, burua behehitu behar zuten sartzeko gisan, umiliazione bezala. Aldiz, 1648.eko urtea ekartzen duen uztai harri ospetsuaren azpitik herriko jaun eta andereak' beren liburu eta arrosorioekin sar zitezkeen debozioriekin. Gaur, ez gira kopeta gora sartzen ahal hortik ere: elorri eta sasiek muga bat egiten dute Lehenagoko agoteen moldean burua behehitu ondoan, sartzen ahal gira Teilatua, aldarea, ur benedikatu ontzia, bataio harria, denak galdu dira. Kendu dituzte noizbait, apez, herri-gizon eta guzien benedizioriekin. Kalostrapea, teilatua erori ondoan, harri meta bilakatu da. Huntzosto eta laparrek pesta onik egiten dute leku saindu horiekin.

Hemen, betierearen bakean etzanak direnen artean, urrats bakoitza ikur bilakutzen da. Hil ziren herriaren gogoak bere baitan atxikiko zituela segurtamenarekin Izenik gabe, izan galdu batekin, gure oinen pean dagoenari, zer gelditzen zaio? Etxeko ahazturak minberatasun hunkigarri bat zabaltzen du. Gure gogoetaraino hegaldatzen da eta lore basen erditik altxatu ondoan, urteen hatzak ezeztatzen ditu

Ibar luzeko baserri zaharretat
Joanak ginen
Euskara
Euskara bakarrik entzuteko

Harat orduko leher egina zen
Leher egina dena !

Telebixta
z
a
o
r
r
o

sukaldean.
Aitatxi bera horren aho zilorat bildua,
Atseginez konkortua,
Lastozko kadiran ixtapeka :
« Sensationnel-a da 14 juillet aurtengoa » !

Hilortu denez mundua ?
Hala dirudi baserri hortakoak.
Hilorteak erremediorik ez
Berehalakoan !
Noiz ba orduan ?
Negu honek noizko udaberria ?
Ala erroek berek galdua dute bizia ?

Erran zautaten behin,
Bainan ez idatzi !
(Hatzik ez nahiz utzi ?)
Harritu nintzan :
Suzko opil borobil,
AZKEN EUSKALDUNAK ginela gu !

Azkenak, azkenak,
Eztenak,
Lehenak, azkenak !

Nor ziren holako igarleak ?
Noren ganik zituzten holako eleak ?

Paratu naiz barne min itsusi batean
Historiaren haize apalari ...

Larreak, etxeak, dorreak,
harresi zahar eta gazteluak
Arrak eta emeak
denak,
zorro haundiz ernalduek
Eta,
eta,
Altxatu ditudan izenak
Ez baitira hor denak :

Caesar Augustus eta Karlomagno
Napoleon, Hitler eta Franco ...
Eta hoi enume frango
(Bai eta gutarteko)
Mutu bainaiz aipatzeko ...

Aizkorak altxatzen zituzten kalitzak bezala
Ostiak emaiten ostikoen neurrirat.
Biluzten deusik eskatzen etzuen
Eta lehertzen galdeka ari zena.
Goi manuz ezina
« Zeru » tiarki aise egina

Eta Euskara, Euskara
Euskoen kantu-hats lehena
Heuie txixtu ta danbolina ...
Orai jo duk azkena,
Lehertzen ari haiz dena !

Ai nere mina
Bertzeen atsegina

Maiatz 33

Azken
euskalduneri

Herri honen erraietan

Manex - 2974 -

*Jende multzo ederra bildu zenean soroan
bere oinetan atab la pausatu zuen Herri-mutilak
eta, bere papertxo sakelatik ateraturik,
zintzurra bi karrakaldiz garbitu ondoan,
hasi zen oihu egiten doinu latz batez :*

HEMEN, GEURE HERRI ZAHARRAREN ERRAIEN ATARIAN GAUDE.
SARTU AINTZIN, HONA ABISU BAT :

Jendea dena begi-belarri eman zen...

HONA SARTZEKO : INORK EZ DU BAIMENIK
EZ ETA PASAPORTERIK BEHARKO.
EZ DA ERRATE BEHARRIK : INOR EZ DA FITXATUA IZANEN.
HAATIK, IPURDI - BARKATU - BELARRI MOTZAK...

*Jende guzia irriz hasi zen ..
Herri-mutilak letaginak atera zituen...*

BELARRI MOTZAK KONTROLATUAK IZANEN DIRA
EA BELARRI ZULOAK GARBI DITUZTENETZ.
ESKALAPOINEZ - ABARKAZ HOBE - IBILTZEA HAIZU.
EZ DA BARUR EGUNIK : BERAZ JAN-EDANAK LIBRO.
NAHIKO ZIGARRO ERRETZEN AHALKO DA.

*Haizolbean Txominek marfundia bildu zuen :
Urtzainka hasi zen eta animaleko uzkerria eskapi !
Soroan, jende guzia irriz karkailan hasi zen ..
Herri-mutilak bekainak zimurtu zituen ..*

ZAKUR ONGI HEZIAK BAIZIK EZ DIRA LAXOAN UTZIKO
ZAKUR ERRABIATUAK ALDIZ, KALITUAK IZANEN DIRA.
ERRAIETAN BARNA JOANEN GARELARIK,
NAHI DEN PENTSAMENDU GAIZTOA, ONA, BIHURRIA, ZUZENA
NORNAHIK EDOZEIN TENOREZ HAUSNAR DEZAKE;
BAINA SOLASEN BURU-BUZTANAK ORRAZTATUAK IZANEN DIRA...
HAU DA LEHEN ETA AZKEN ABISUA.

*Jende guziak burua makurtuz eta balantzatzuz
abisu haur onetsi eta onartu zuen bere osoan ..*

NOR EDO NOR XEHETASUN BAT EDO BESTEREN
BEHARRETAN GERTA BALEDI,
HOR LUKE BERE ZERBITZUKO, GAUERDITIK GAUERDI ARTE,
ERROIMENDI LEPOAN, BASA AHUNTZEN ARTEAN, ORHI JAUNA !

*Herri-mutilak bere papertxo plegatu zuen,
atabala bizkarrean eman; eta denak abiatu ziren
HERRI HONEN ERRAIETAN barna.....*

34 Maiatz

lehen oharra :

Herri honen erraietan

Gure herri zahar honen egoeraren
minaz kolpatuak direnek
badakite nolakoa den
egunero daramaten borrokaren saria !
Beren buruaz axolatuago direla
eta beren ideiak nagusiarazteko ari daitezkeela
orenak eta orenak, egunak gau,
uste dutenak
oso jende nahasiak direla
salatu behar da goraki,
herri guziaren agerian...

Alegia
orotan badira jende nahasiak
baina ez
gure herrian bezala
jende nahasi sabantak !

Gure mendietako erreka, zelai, kaskoetan
teknikak zilatu ditu aldapak, urratu ordokiak
zabaldu xenderak, eta bide egokiak ireki...

Gure herri zahar honen erraietan barna
doanak : ez du bide legunik aurkituren
ez eta ateka garbirik ..

zeiharka eta belauniko eta herrestan askotan
ibili beharko du haztamuka, itsura,
adina ere ahanzten den eremu honetan !

.....

Etxe aitzinean, pentzea
eta pentzearen zolan
haritz handi baten sahetsean
oihanetik ez hain urruti
haur denborako iturriaren
musika zoragarria...

Dakar :

Haizea ta arkatza
herri honen iraultza
hotza
gure odol hezgaitza
uhaitza ..

Ttortta
ttortta
ala
tturustan
nondik hator ur garbi xirripa ?
Hiri beha, beha ta beha
ezin aspertuz niagok oren luzeak
oren luzeak bakartasun betean
irriz ala kantuz...

Ttortta
ttortta
ala
tturustan
noiz abiatu hintzen ur garbi xirripa
haritz handi honen pean eta itzalean
sortzeraino ?
Ezin isilduz niagok orenak eta orenak
oren luzeak atsedean gozoan
irriz ala kantuz...

Nondik hator
non gaindi ibilki haiz lurpez-lurpe
haritz honen sahetsean jalgitzeraino
ta nire lagun bilakatzera ?

Ttortta
tortta
ala
tturrustan
biltzen dizkidak neure etxekoen
oihuak, aita-amen bihozkadak
anaien zalapartak...

Hiri beha, ezin aspertuz, hiri beha
eramaten nauk ametsetan
heure musika zoragarrian ..

ttortta
ala
tturrustan

ekartzen dizkidak neure herriaren
lanak, gorabeherak, izerdiak, nigarrak ..

Hiri beha, beha ta hi entzunaz
ezin aspertuz niagok egunak eta egunak
eure herriaren historia ikasten ...

Neure herriko lanak, izerdiak, nigarrak,
ipuiak,
aita-amen bihozkadak, karkailak, abestiak
etxondoko bazterretan
hasten gaituk kantatzen, kantatzen
xoriekin
ezin aspertuz, ezti ala azkar,
polliki eta finki, polliki eta gora
ibiltzen gaituk orenak eta orenak
lurpez-lurpe
herritarren intziriak biltzen...

Nondik hator
non gaindi ibilki haiz herro honen erraietan
zehir
eta haritz honen sahetsean jalgitzeraino ?

Ttortta ttortta ala tturrustan
nora hoa ur garbi xirripa ?
Hiri beha eta hire lagun, lurpez-lurpe
ezin aspertuz niabilak, zoratua, oren luzeak
egunak eta egunak, irriz ala kantuz
hi entzunaz bakartasun betean
hiri beha eta hire lagun, lurpez-lurpe
herri honen ele itoaren bila ...

Non galdu ote da
erri honen historia ?
Nork hautsi ote dio
gure herri honi
bere izana ?

Hiri beha eta hire lagun
 lurpez-lurpe eta oren luzeak
 oren latzak, oren goibelak
 baina halere
 eramaten nauk
 eramanen nauk
 herrestan behar bada, aspertu gabe,
 irriz ala kantuz eta, beharbada, nigarrez
 hi entzunaz eta hire lagun
 geure herri hautsi honen
 historiaren bila ...

Heure musika zoragarrian
 kondatuko dizkidak
 herri ukatu honek
 galdu ez dituen lanak, borrokak,
 ipuiak
 eta salatuko didak
 bila nabilan herri honen
 izena ...

Neure herriaren garrasiak, borrokak
 iraultzak mendeetan

zegar

aita-amen bihozkadak, zotinak,
 anaien jauziak , karkailak eta abestiak
 etxondoko funtsetan

gaur

hasten gaituk kantatzen, kantatzen
 xoriekin

ezin aspertuz, ezti ala azkar,
 polliki eta finki, polliki eta gora
 aritzen gaituk orenak eta orenak
 lurpez-lurpe

herri isildu honen historia
 mintzatzan
 gaur ..

Apurka apurka
 jakinen diagu ere
 nork
 zuen gure herri hau zatitu eta
 saldu
 nork zion
 bere izana hautsi
 eta nork zuen
 isilarazi...

Nora eraman ote dute
 herri honen historia ?
 Nola ukatu ote diote
 gure herri honi
 bere izana ?

Ttortta ttortta ala tturustan
 hire musika zoragarrian eramana
 niagok orenak eta orenak
 egun luzeak bakartasun betean
 bizi nahi duen herri honen barruan
 bizia pil-pil bere beroan senditzen den
 gunean
 niagok historia eder bat ikasten...

NEURE HERRIAREN BORROKA, ERDI-MINAK
 GAUR
 AITA AMEN BIHOZKADAK, IZERDIAK, ZOTINAK,
 ANAIEN JAUZIAK, ABESTIAK IRRINTZINAK
 GAUR
 HASTEN GAITUK KANTATZEN, DANTZATZEN
 XORIEKIN
 EZIN ASPERTUZ, EZTI ALA AZKAR,
 POLLIKI ETA FINKI, POLLIKI ETA GORA,
 ARITZEN GAITUK ORENAK ETA ORENAK
 PLAZAZ-PLAZA
 BIZI DEN HERRI HONEN HISTORIA
 MINTZATZEN
 AGERIAN
 GAUR...

ttortta ttortta ala burustan
 hirekin narabilak oren luzeak, luzeak
 egunak eta egunak, ezin aspertuz
 bizia pil-pil bere beroan
 hurrupatzen den herri honen betean
 niabilak irriz, kantuz, dantzan
 hire musika zoragarrian eramana
 plazaz-plaza
 gaur...

Noiz behinka halere
 niabilak urduri
 nork zituen jarri
 muña eta zedarri ?
 Nork zuen ezarri
 gure herri zahar hau
 gartzela bat iduri ?
 Nork zion bihotzean
 askatasuna ebaki ?

Nola amets ilunak
 lo zorroaren gozoan...
 halaxe herra eta gorrotoa
 libro izan nahi duen
 herri zahar honen
 barru barruan !

NEURE HERRI ZAHAR HONEN BARRUKO
 HERRA ETA GORROTOA
 ZIARABILTZAAT
 PLAZAZ-PLAZA
 NOIZ BEHINKA...

bigarren oharra :

Jende onak
 ez arren beldur izan
 nire herri zahar honen
 odolaren kexuaz
 herra eta gorrotoa
 kantatzen baldin badizuet
 musika hautsi batez...
 Ez samur
 herri gartzelatu honen
 gateak
 apurtu
 nahi baldin baditut...
 herri isildu honen
 eleaz
 mintzatu
 nahi baldin badizuet...

Herri zahar honen barruko
 herra eta gorrotoa
 darabiltzat
 odolean-eta
 nabila urduri
 plazaz-plaza ..

Arren
 ez otoi kexa
 jende onak !

.....

NEURE HERRIAREN BORROKA, ERDI-MINAK
 GAUR
 AITA-AMEN BIHOZKADAK, IZERDIAK, ZOTINAK
 ANAIEN KEXUAK ETA KOLPEAK
 GAUR
 HASIAK GAITUK KONDATZEN, MINTZATZEN
 ESKU-BESOEZ
 EZIN ASPERTUZ, EZTI ALA GOGOR,
 POLLIKI ETA FINKI, POLLIKI ETA SEGURKI,
 ARI GAITUK ORENAK ETA ORENAK
 PLAZAZ-PLAZA
 BIZI DEN HERRI HONEN HISTORIA
 EGITEN
 AGERIAN
 GAUR....

DAKAR:

HAIZEA TA ARKATZA
 HERRI HONEN IRAULTZA
 HOTZA
 GURE ODOL HEZGAITZA
 UHAITZA...

Maiatz 30

Non gordeak ote dira
geure bizi espazioak
ebatsi dizkigutenak ?
Geure askatasunaren gustua
kendu digutenak ?
Gure larruko izerdiaz
irri egiten dutenak ?

Manex ERDOZAINTZI-

Herri honen errailetan

ttortta ttortta ala tturustan
nondik hator ur garbi xirripa ?
Hiri beha, beha ta beha
ezin aspertuz, niagok oren luzeak
oren luzeak herra eta gorrotoa
bihotzean...

Non gaindi dabilta
nire gudu lagunak ?
Nongo mendietan ?
Nongo xenderetan ?
Nongo kaleetan ?
Nongo gartzelan sartu dituzte
nire gudu lagunak ?
Hik
ba ahal dakik
ur xirripa garbia ?

Hemen niagok
borrokaren bakartasun latzean
neure lagunen haiduru
nonbaitik
bederen
bat
noiz
etorriko
den
?

BAKARTASUN LATZA
GIZONAREN HOTZA
GALDURIK BIHOTZA:
BESO-ZANGO MOTZA !

ttortta ttortta ala burrustan
hirekin narabilak oren luzeak, luzeak
egunak eta egunak, ezin aspertua
borroka gogorra bere beroan
eramaten duen herri honen betean
niabilak goibel, urduri, isil-isila
hire musika hautsian murgildua
xenderaz-xendera
gaur...

kalez-kale umezurtza erne doa
tiroz hil eguneraino
mendiz-mendi bere aita zihoan bezala
aitaren oroimenaz
begi bustiak
amaren babesean
xukatzerak
kalez-kale
umezurtza
doa...

borrokaren bakartasun latzean
haiduru dagoen andre baten intziriak
tiroak eta gartzelak
umezurtzen negarrak
lagunen berriak
lagunen irriak
galtzen dira
kalez-kale...

40 Maiatz

Noiztik noizera
niabilak kezkat
nork zituen nahasi
erloien orenak ?
Nork zion ebatsi
herri alai honetan
azkorria gauari ?
Nork zuen hil zorian
gure herri zahar hau
maitasun gabez ukatu ?

—ETXART

Herri honen erraietan

Nola euri uharrak
gau izartsuen lilluran ...
halaxe borrokaren ukaldiak
egunak gauean galdu dituen
herri zahar honen
hezur-mamietan !

Herri zahar honen
borroka erraietan
ahantzten ziazkidak
munduko erlojuaren
oren banatuak...
noiztik noizera...

hirugarren oharra :

Arren
neure herriko sinesdunak
inori ez diot zorrik
baina
barka
umezurtzak izanen direno
musu baten sari ostiko bat ukanen duguno
nire gudu lagunak
mendiz-mendi doatzino
haizatuak, tirokatuak, gartzelatuak,
zanpatuak
izanen direno
gur herri honek
gartzela bat iduri
diraueno
eta gauak
egunak bihurtu ez direno
guretzat besteentzat bezala
barka
nire herriko sinesdunak
neure Fede
apurtua ...

Maiatz 90

Zer derasak ?
Zer derasat ?

Hau hortxe
behar dela
hori hemen
hau horrela
egin behar litzatekeela
hori bestela...

Itzuli mitzuli
zer derasak ?
zer derasat ?

GURE BORROKAK
LEHER EGITEN DIK
LEHER EGIN DIK...

Zer derasagu

HIL ZORIAN DEN
HERRI ZAHAR HONEN
IZENEAN ?

..... zibilizazio hil baten jestu hilak
errautsetik zaintzen.....

balentria handiz
berriz eta gero
joanen gaituk
haritz erori baten
enbor usteldua
agurtzera...
edo
lehenagoko gizon famatu
baten bati
eraiki harri
monumentuaren
inguruan lerro lerro
humiliatuak
isil une
triste bat
lortzera...
edo
bazkari oparo baten
bultzada beroan
geure buruen
ehortzetak
euskaraz
kantatzera...

eta haurrak hazten baldin badire
neska mutilak eskolatzen
berriz eta hobeki
laster ikasiko ditek
zigarroa pipatzen
whiskyaren zaporean
le 14 juillet
frantses guziekin
el 18 de julio
espainol mota guziekin
betan eta bezala
bezperak
ostatu
baletan
zelebratzen
jainkoaren lorian» !

48 Maiatz

LEHER EGITEN DIK
LEHER EGIN DIK
GURE IRAULTZAK
HIL ZORIAN DEN
HERRI ZAHAR HONEN
IZENEAN...

Alta
ez dituk ez
jende guziak
irri gose
zenbaitetan !

MERKATUAN
edo...
eman dezagun
MUSEAN

irriz ari dituk irriz
karkailaz usteltzekotan

MERKATUAN
makiñunak galdu ... Ez...
makiñuna izorratu dutelarik... Ez...
makiñunak

HAUZOKOA

izorratu duelarik

edo...
eman dezagun
MUSEAN
pare dobleak lagunak atera dituelarik
eskutik
hoge ta hameka
keinurik gabe...

MERKATURA

zihoan Maritxu
Baionara
La Côte d'Argent fabrikak
Biarritz Shoes eta
Biarritz Chaussures-en ondotik
porrot egina zuen-eta
Maritxuk bere beste lagunekin
galdu hogei ta hameka
eskutik :
irabazpidea eta
izerdiaren bustia

Jende guziak
ez dituk ez
irri gose
zenbaitetan ...

FABRIKA BAT EDO BESTE

hesten delarik
edo...
eman dezagun
MARITXU
bihotza samur
gurutzatzen delarik
negarretan...

irriz ari dituk irriz
 haurrak jostetan
 eta iparraldetik jaitsi
 udatiar aberatsak
 (udatiar pobreak ez dik irri egiten langilearen atorra zikinaz !)
 Euskal Herriko ondartzan
 iguzkitan larrua beltzatzean
 beren pentzetan eta alorretan
 baserritarrak belar biltzen,
 ogi epaiten, nekatuak
 ari diren sasoinen
 eta Baionako merkatutik etxerakoan
 Maritxu lanik gabe
 murriz gauez-gau
 bere senargaia besarkatzera
 doalarik....

irriz ari dituk irriz
 patxaran
 langilearen bizkar
 hogei ta hameka
 eskuratu dutenak
 eta diru xahutzen
 ezaxolki, joko lekuetan
 dabiltzanak
 eta urrutian
 langileriaren kexua
 ahantzi nahi luketenak...

FABRIKA BAT EDO BESTE
 HESTEN DELARIK
 ETA....
 LANGILEEN KEXUA JAISTEN
 DELARIK KALEZ-KALE
 BASERRITARREN KEXUA ABIATZEN
 DELARIK BIDEZ-BIDE
 LANGILEAK ETA BASERRITARRAK
 METATZEN ETA AGERTZEN
 DIRELARIK PLAZAZ-PLAZA
 HANDI-MANDIEN HEZURRAK
 HASTEN DIRA KRASKATZEN
 BELDURRAREN IKARAZ ...

Maritxuk
 xukatu zitian
 bere begi bustiak
 alai, gauez-gau
 bere senargaia besarkatzera
 izarren bidetik
 zihoan ...

SORTZEAR DUK
 GURE IRAULTZA
 BIZI NAHI DUEN
 HERRI ZAHAR HONEN
 ERRAIETAN ...

NEURE HERRIAREN BORROKA, ERDI-MINAK
 GAUR
 AITA-AMEN BIHOZKADAK, ZOTINAK
 ANAIEN KARKAILAK, ABESTIAK, IRRINTZINAK
 GAUR
 HASTEN GAITUK KANTATZEN, DANTZATZEN
 MARITXUREKIN
 EZIN ASPERTUZ, EZTI ALA AZKAR
 POLLIKI ETA FINKI, POLLIKI ETA ARIN
 ARITZEN GAITUK ORENAK ETA ORENAK
 PLAZAZ-PLAZA
 BIZI DEN HERRI HONEN IRAULTZA
 MINTZATZEN
 DANTZATZEN
 AGERIAN
 GAUR ...

ttortta

ttortta

ala

tturrustan

nondik hator ur garbi xirripa ?
 Ez dizkidak aipatzen
 Viet-Nam eta Palestina
 Txiletarren askatasun itoa
 Giscard d'Estaing-en Frantzia
 Franco-ren Espainia ...
 baina
 salatzen dizkidak
 herri ukatu honek
 ukatu ez dituen izerdiak, lanak, borrokak,
 ipuiak
 eta
 ibarren
 isil-isila
 iraultzen ari den
 mutil sendo baten izena ...

HIRE BEGI LARRIAK ETA
 HIRE ESKUAK,
 FREDERIKO,
 ZERBAIT DITUK
 HASTEN DIRELARIK MUGIMENDUTAN
 AZTAPARKA LOTZEN DIRELARIK
 HIRE ESKUAK
 PINDARKA HIRE BEGIAK
 IREKITZEN

Aurten ere BIZITZEARI ...
 gure herri langile honen izerdiaz
 busti dituk pentzeak, alorrak,
 zuhaitzen hostoak ...

BAINA
 herri xume honen haurretan
 zenbat
 ez ote dira lanik gabe gertatu ?

ALTA
 badakik
 ez zituan ez
 jende herrebesak
 edo diruzaleak
 edo hemendik joan nahiak
 bederazka
 behereko bide horietan abiatu direnak
 eta Baionako edo Kostaldeko
 uzinetan lanean ari zirenak ...

HIRE BEGI LARRIAK ETA
 HIRE ESKUAK,
 FREDERIKO,
 ZERBAIT DITUK
 KEXATUAK DIRELARIK MUGIMENDUTAN
 AZTAPARKA LOTZEN DIRELARIK
 HIRE ESKUAK
 PINDARKA HIRE BEGIAK
 IREKITZEN

ZUZENTASUNARI ...

Aurten ere
iguzkiak berotu zizkiguk
geure mendiak, zelaiak, itsas-hegia ...

Herri honen erraietan

ERDOZAINITZI-ETXART Manex

BAINA
herri xoragarri honen erraietan
zenbaten begiak ez ote dira lanbrotu
han edo hemen
etxalde edo lur peza bat
nonbaitik etorriek erosi dutela
jakitean ?

Geure herri langile honen lurra
ari ziguk intzirika
itsasoak berak ez zirokek
oraindik kontsola ...

ALTA
ez zituzkean ez
jende makurrak
beren etxaldea
edo lur poxia
horrela saldu zutenak
beharbada
nork daki
diru beharretan edo
diru gehixagoren beharretan ?

HIRE BEGI LARRIAK ETA
HIRE ESKUAK,
FREDERIKO,
ZERBAIT DITUK
JAUZTEN DIRELARIK MUGIMENDUTAN
AZTAPARKA LOTZEN DIRELARIK
HIRE ESKUAK
PINDARKA HIRE BEGIAK
IREKITZEN

EUSKAL LURRARI ...

Ez dituk ez
jende herrebesak
edo jende makurrak
edo beldurtiak
gure herritarrak ...

BAINA
ez baitakite beti
nola planta
nola joka
eta norekin
gure herri honen borroka latza duk eta
mementoka gogorra
luzea, luzea ...
askatasunerako bideetan
ahazten ere baita berdin
noiz behinka edo betiko
Euskaldunak garela
gure herri hau duk puskatua eta
alde guzietarik ukatua
gogorra duk gogorra
eta luzea, luzea ...
gure herri honen borroka
askatasunerako bideetan ...

Maiatz 45

ez dituk ez
jende herrebesak
edo jende makurak
edo beldurriak
gure herritarrak ...
geure herri honen borroka
duk gogorra
askatasunerako bideetan
eta luzea, luzea, luzea

ttortta ttortta ala burrustan
hirekin nabilak oren luzeak, luzeak
egunak eta egunak, ezin aspertuz
bizia pil-pil bere beroan
hurrupatzen den herri honen betean
nabilak irriz, kantuz, dantzan
hire musika zoragarrian eramana
plazaz-plaza
gaur
.....

ZUBEROAKO MENDIETARAINO ...

ZUBEROAKO MENDIETAKO
LORE BIKAINA
KRISTINA
HEURE HEMEZORTZI URTEEKIN
JOAN DEN NEGUAN
SUBAZTER XOKOAN EZAGUTU
HINDUDANA ...

Mintzatu nahi-ta frantsesez
behartu hire kezka larria
euskara galdua
adiskideei salatzera ...
hire odolaren beroa lagunei
erratean :
«Zendako ez dit ikasi euskara ?»
hire soiburuen mugimendua
gitarra jotzean, polliki eta finki,
hire ezpainen ikara
Mauleko antzokian
kantatzean :
«Zendako ez dit ikasi euskara ?»

ZUBEROAKO MENDIETAKO
ABOTS BIKAINA
KRISTINA
HEURE HEMEZORTZI URTEEKIN
AURTENGO UDAN
EUSKARA IKASTEN HASIKO
HAIZENA ...

Ez ditun ez
jende uzkurak
edo jende herabeak
edo lotsatuak
gure herritarrak ...
abestuko ditene hire gitarraren
kexua, gozoa, marruma,
lankietan, iraztorretan, plazetan
datorren neguan ...

HERRI KANTARI HONEN ERRAIAK
BIZI BERRI BATEN SORTZEAZ
HASIAK DITUN ALAITZEN ...

ZUBEROAKO MENDIETAKO
EUSKARA BIKAINA

KRISTINA
HEURE HEMEZORTZI URTEEKIN
AURTENGO BORROKAN
HERRIA BILATZEN ABIATU
HAIZENA ...

hirur ehun milako jendetze
honen barruan
heure lagunekin garrasiaz
besteei juntatu hatzaiena
egunero, taigabe,
herri hau askatzeagatik
hirur ehun mila harri koxkor
pikatzea eta hedatzea
erabaki dutenekin ...
hirur ehun milako jendetze honek
gaurtik jakin dezan
nondik nora doatzen bere zorionbideak ...

hirur ehun milako jendetze
honen barrutik
hire lagunekin errabiaz
besteekin mintzatzen haizena
egunero, taigabe,
herri bat lortzeagatik
hirur ehun mila hitz gogor
zorroztea eta baliatzea
erabaki dutenekin ...
hirur ehun milako jendetze honek
behintzat jakin dezan
nondik nora doatzen bere eskubideak ...

Egunen batetan, taigabe,
hirur ehun mila ipui
asmatuko ditun eta kondatuko
heure lagunekin eta besteekin
gitarraren musika zoragarriaz ...
hirur ehun milako jendetze honek
biziaren pilpira sendi dezan
bere hezur-mamietan ...

ZUBEROAKO MENDIETAKO
NESKA LIRAINA
KRISTINA
HEURE HEMEZORTZI URTEEKIN
AURTENGO BEDATSIAN
IPUIAK KONDATZEN HASI
HAIZENA ...

POETA DEN HERRI HONEN ERRAIK
IPUI BERRI BATEN HAZIAZ
HASIAK DITUN ERNALTZEN ...

..... Zeren hirur ehun milako jendetze honetan
gure herri gizonak ez baitira notableak,
baina jende baliosak eta ohoragarriak :
hedadura handikoak, zerbitzu egileak,
politika segurrean Herria kudeatzen
dakitenak ... Omen !

Baten batek pentsatzen dikek bere barru beltzean :

ERDOZAINZI-ETXART Manex

Herri honen erraia

- Zertarako honenbeste buruhauste patxaran bizi garen sasoinean ?
- Zertarako honenbeste kalapita leporaino aseak garen mahaian ?
- Zertarako honenbeste amets nahiko diru xurga dezakegun giroan ?
- Zertarako honenbeste bazter nahasle ordrean finkatua den gizartean ?
- Zertarako ? ... Zertarako ? ...

eta Herriak ziarabilak folklolarien soinuan !

Handi-mandien seme puxantak aho betean irria joaki dira besta jantzian
itzulikatuz gerria : trosta gaitzean zaldi zurian pasatzen dute herria zeren
baitute saldu beharra artoz gizendu zerria !

Garkoan gora alan ari zen
animaleko zorria !
Gure hizkuntzaz mintza baledi
kilikatuz belarria
anitz uste dut erranen lukeen
berri bat harrigarria :
Benetan barur egun beltzetan
hauxe duk bazka joria !
.....

holaxe hil nahiko digute poeta den geure herri librea ... baina behin ere ez
da entzun poeta herri bat holaxe hiltzen denik

laugarren oharra :

NEURE HERRIKO EUSKALTZALEAK
GUDULARIAK BADIRA MILATAN
NI BAINO AUSARTAGOAK
ETA IDAZLEAK MILATAN UGARIAGOAK
ETA POETAK MILATAN FINAGOAK ...
BAINA
UTZ NAZAZUE
NEURE HARRITXOAK MARMOLAN PIKATZEN
NEURE HITZAK ELEAN ZORROZTEN
TITULURIK EZ DUEN HERRI HONEN MAILAN
FAMARIK EZ DUEN HERRI HONEN BARRUAN
OHORERIK EZ DUEN HERRI HONEN APALEAN
HIRUR EHUN MILA IPUI BERRI ASMATUAK
IZANEN EZ DIRENO
HERRI ZAHAR HONEN HEZUR-MAMIAK DANTZAN
ARIKO EZ DIRENO
TXISTUEN MUSIKA LIBRE ZORAGARRIAN ... ETA
GEURE HERRI ZAHAR HONETAKO EMAKUMEAK
MANTELINA XURITAN ATERAIK
IKUSIKO EZ DITUGUNO ...
UTZ NAZAZUE
HIRUR EHUN MILA HARRI XURIZ
HIRUR EHUN MILA HITZ GOGORREZ
ZAPALDUA DEN HERRI HAU
ALTXATZEN

48 Maiatz

HIREKIN ETA HIRE LAGUN
GUDULARI BEILARIA

Gauean berant jakin ondoan
hil lagun baten berria
hautsaren pean kukutu zuen
ikatz hondarkin gorria ;
bi eskuz hartu mailu giderra
ta belauniko jarria
lapitz hotzean pikatu zuen
hamabosgarren harria !

Bihotz barruan oraindik dakar
heriotzaren dohaina :
hamabosteko hil-herri baten
izen lerroen labana !
Zori gaiztoak goizegi hartu
anaia gazte lerdena
asteri batez neguak hautsi
bere aitamen adina ...

bosgarren oharra :

Ale hau galtzen baldin bada
nonbaiteko polizier baten eskuetan
edo suan sartua zentsore zital baten manuz
edo, beste gauza ezdeusen artean,
pubelagian suntsitzen baldin bada
ez dolu ukan
eta ...
krima bat izan bazen ...
barka
zeren
holako aleak
mila ta mila baitaude gordeak
harri xuriekin nahastekatuak
hitz gogorrez estekatuak
herri zahar honen erraietan.

UTZ NAZAZUE
HIRUR EHUN MILA HARRI XURIZ
HIRUR EHUN MILA HITZ GOGORREZ
HERRI ZAHAR HONEN ERRAIETAKO
POESIA
LIBRATZEN ...

UTZ NAZAZUE

GEUK NAHI BALDIN BADUGU :

Herri Batuen hauzitegian
ez da sekula erranen ...
Zapaltzaileen mintzaldietan
ez da agian entzunen ...
Historiaren horri beltzetan
ez da nonbait idatziren :
Europa zahar honen lurretan
behin herri bat izan zen !

..... hola ziotean
Herri zahar honetako erraien barruan
gertatu eta juntatu zirenek
bizia pil-pil bere beroan eta garrasian
senditu eta hurrupatu zuten egun hartan ...

Erabaki zitean eta
zin egin :

EZ DITEK ERRANEN
EZ DITEK ERRAN BEHARKO :
HERRI BAT IZAN ZEN !

Maiatz 49

ZIN EGIN-ETA GERO ...

Herri honen erraietan

ERDOZAINTZI-ETXART Manex

Kexu minean hasi zituan
zedarri-mugak gainditzen ...
Lotsagabeko zapaltzaileen
indarkeriak ordaintzen ...
Kartzela-herri bihurtu zuten
ate ustelak botatzen :
Tinkatu herri honen jendeak
has zitezen oldartzen ...

LEHER EGITEN EZ BALDIN BADUGU ...

Kalda gaitzean ari zituan
harri xuriak pikatzen ...
Arnas kolpeka izerdi trenpan
euskara hitzak limatzen ...
Burdin beltzaren golde gogorraz
lur lehortu hau iraultzen :
Herri agortu honen erraiak
has zitezen ernaltzen ...

ORAINDIK INORK EZ DIK ERRANEN :
HERRI BAT IZAN ZEN !

GEURE HERRIAREN BORROKA, ERDI-MINAK

GEURE HERRIAREN BORROKA, ERDI-MINAK
GAUR

AITA-AMEN BIHOZKADAK, ZOTINAK, NIGARRAK
ANAIEN KARKAILAK, ABESTIAK, IRRINTZINAK
GAUR

HASTEN GAITUK KANTATZEN, DANTZATZEN
GUDULARIEKIN

EZIN ASPERTUZ, EZTI ALA AZKAR
POLLIKI ETA FINKI, POLLIKI ETA ARIN
ARITZEN GAITUK ORENAK ETA ORENAK
PLAZAZ-PLAZA

BIZI DEN HERRI HONEN IRAULTZA
HIRUR EHUN MILA HARRI XURIREN ARTEAN
MINTZATZEN
DANTZATZEN
ARIN-ARIN
AGERIAN
GAUR

HIRUR EHUN MILA HITZ GOGORREN
MUSIKA ZORAGARRIAN ...

GAUR ETA GERORAKO
GAUR ETA BETIRAKO
UTZ GAITZAZUE LIBRE
HIRUR EHUN MILAKO JENDETZE HONENTZAT
HIRUR EHUN MILA HARRI XURIZ
HIRUR EHUN MILA HITZ GOGORREZ
HERRI ZAHAR HONEN ERRAIETATIK
POETA DEN HERRI ISILDU HONEN
IPUIA
SORTZEN ...

GAUR ETA GERORAKO

GAUR ETA BETIRAKO
GAUR ETA BETIRAKO

UTZ GAITZAZUE LIBRE.

50 Maiatz

Salomonen heriotza

Salomonek begiak ireki zituen : ganbara iluna zen oraino . Higitu nahi ukan zuen, oinazearen xixta zorrozki bihotzean barna sartu zitzaion, eztul egin zuen, horrek saminagotu baitzion mina. Deit zezakeela pentsatu zuen, baina goiz guziez bezala oroitu zen urtea bazela Miriam, bere emaztea, zendu zitzaiola, eta huts hori oraino latzago iruditu zitzaion. Berritz ere xixta hura. Etxezaina altxaraz ? Ez. Edozein oinaze iragankor da, hala nola bizia. Ideia arrunt horrek beldur eman zion. Zergatik jin zitzaion gogora ? Iluntasunaren zilatze-entseiatu zen. Hastapenean, ez zezakeen deus ere hauteman. Ganbarako itzul inguruak, puskak, emeki emeki agertu zitzaizkion. Horra, bertze aldeko paretan, leiho-kuadroa. Gibelean, zerua : eremu urdina beltza abantzu, bazterretan urtzen bezala zena. Sosegatu zen.

Gogoia alha zitzaion : Abraham bere aita, Varsoviako imaiia zenbait ... Estonatu zen giza bizi batetan hainbertze gertakari bil zitekeela pentsatzean. Oinazeak berriro gorputza aldean bertze xixtatu zion eta grimasa egin zuen. Bularren bete hats hartu zuen eta, zergatik ez zekiela, zenbat gerlaren lekuko izan zen jakiteko tirria piztu zitzaion. Kontatu zuen. Behar zituena kontutan hartu juduek jasanikako jazarraldi, pertsekuzioeak ere ? Baietz deliberatu zuen : juduentzat jazarkundeek gerlek bezainbat balio zuketean naski. Lehenbiziko gerla mundiala, zinagogen kontrako erasoaldiak Grodzisk eta Varsovian, bigarren gerla mundiala, ghettoa, ihesaldia eta berritz ere jazarketak Frantzia aldera abiatu arte : anixko bazen. Kiresdurak bereturik, egin zuen bere baitan, hil bakar batek hunkitzenago zituela jendeak milaka hilek baino. Bertze girtenkeria bat, aski egia zeritzana hala ere. David-ek, adibidez, David Erregeak, ez zuen nigarririk egin, Absalon bere semearen tropa errebeldatauek hil zizkieten soldadoengatik, bai ordean Absalonengatik. Hori dena hain zen argi eta garbi ... Ez zuen konprentzen zergatik ideia horiek oro - oiloak arto bihietan irudi - jauzika bezala aritzen zitzaizkion buru muinetan. Oinazeak bihotza tinkatu zion, eta gutik egin zuen ez baitzen orduan ito. Dolorea jabaldu zen.

Leihotik so egin zuen : oraino gaua. Labur lo egin zuela iruditzen zitzaion. Mekanikoki otoitzez hasi zen : «Eskerrak derauzkiat Errege bizi eta betiereko haizen hori, zeran, heura amodioan arima itzuli baiterautak; handi duk hire fidelitatea». Goizeko otoitza zen, gaua lo eman ondoan bizira arraekarri zuelakoan, Betierekoari, - benedika dadila ! - eskerren bihurtzeko egiten ziona. Baina sendi ere zuen, begiak hetsiz geroz, berdin ez zituzkeela gehiago idekitzen ahalko. Izitu zen. « Heura heriotzearen bezperan egik heura penitentzia », erran ohi zuen Rabbi Eliazar-ek. Nola baina dakike gizonak, noizko duen heriotzearen eguna ? Horra zergatik gaineratu zuten zuhurrek : « Egik penitentzia, bada, heura biziko egun bakoitzean. » Irrifio bat egin zuen : judu zuhurtzia zentzutasunez betea zen..

Eli bere semea gogoratu zitzaion, eta gogoz haren irudikatze entseiatu zen. Eli-k noizik behin izkiritzen zion. Urteak baziren ez zuela ikusi. Gomitua ere izan zen, Djamil bere arrasemearen ezteietara, judu marokano batekin ezkondu zelarik. Nola zuen izena emazteki hark ... ? Rachel. Kontent zen Rachel-en izenaz oroiturik. Arras ahantzia zuen, ordean, zergatik ez zen ezteietara joan nahi izan. Abdallah-engatik ? Ez, aspaldi hila zen Abdallah - haren arima bakean bego ! - . Bidaia-aren nekeengatik orduan ? Eztulka hasi zen Salomon eta bularrak eskuz tinkatu zituen, oinazea bere hartan atxeki nahi ukan balu bezala. Bat-batean, Yiddish- ez idazten ari zen familiaren historiaz gogoratu zen; beretzat egiten zuen, lekukotasunaren uzteko. Lekukotasunaren uzteko ala beretzat ? Arranguratu zen berritz. Azken gertakariak ezarriak zituena ? Xuxen jakin beharrez ohetik altxatu nahi ukan zuen, baina gorputzak huts egin zion. Etsiturik, begiak hetsi zituen.

Lokartzeko beldur, berehala iraki zituen, eta iluntasunean itzaturik edukiki. Bai, segur bezala zen notatuak zituela. Oroit zen, arriloben izenen emateko toki aski ez ukanik, kaier berri baten hastera bortxatua izan zela. Bide nabar jendea lehen baino luzeago bizi zela ohartu zen. Ez zituena berak hiruetan hogei eta hamabortz urte ? Eta Eli-k ber-

rogei eta hamabortz ? Eta Gamliel-ek berrogei eta hamazazpi ? Eli-ren semeak, Djemil-ek, jadanik hiru haur zituen : alaba bat, Yahia eta, bi seme, Aduan eta Abraham. Satisfos, egin zuen bere baitan, ez zukeela Djemilek bere jatorria ahantzi. Salomonek ez zion bere buruari aitortu nahi, aihor zitzaiola Eli-ri arabesa batekin ezkondu zelakotz. Hain segur, bazekien, Betierekoaren aintzinean - benedikada dadila ! - gizakume guziak elkarren pareko zirela, eta basamortuan Israelgo populurekin egin Aliantza, anitzez berriago zela Noerekilakoa baino. Bazekien halaber, Jerusalemeko Hamad familia, 1948.eko gerlan, juduen alde agertu zela. Altabada, arrotzak iruditzen zitzaizkion arabere horiek. Zergatik ? Haren jokabidea zuzenkontrakoa zen, jakinean zegoen, baina, ororen buru, zer munta zuen ? Ez ziona Eklesiastak : «Zuhurraren memoria ez da zentzugabe-koarena baino eternalago zeren, jada ondoko egunetan, oro ahantzirik baitaude. Eta zer ? Hil behar du zuhurak, hala nola zentzugabeak ! Banaloria da dena. » ?

Mundu guzia haren beldur zenaz geroz, ez zatekeen herioa, banaloria. Salomon, herioaren haizatzera entsaiatu zen Ruth, bere alabaren begitarte nigarrez estalia ber-ikusit zuen. Herstura batek gorputz guzia hartu zion. Oinazea bizia-gotu zen. Ito-aldi batzu ukan zituen, eta sosegatu zen. Ingurura behatu zuen : ilunaren iluna ilunago iruditu zitzaion. Zer adin luke egun Ruth-ek ? Berrogei eta hamaika urte. Haren haurrik maite-ena zen, bizia, ederra, dohainez betea ... Egun batez, ghettoan. Poliziak, isilkako inprimategia non zen xekatu zuen. Ruth trakt zabaltzen ari zela hartua izan zen. Biharamunean, Gestapo-a inprimategian sartu zen. Hamazazpi jende fusilatua izan ziren.

Zenbait egun geroago, Moise zapatainak Ruth ikusi zuen jende behar-eri salda ematen zieten tokian. Miriam-ek harengana joan nahi ukan zuen, baina Salomonek ez zuen utzi. Harentzat Ruth hila zen. Shira egin zuten, eta handik hara iraganean mintzatu ziren hartaz. Bizkitartean goiz batez buruz buru egin zuten bien Zinagogan. Ruth-ek bere begitarte nigarrez estalia harengana itzuli zuen baina berak ez ikusiarena egin zuen. Zergatik ez zuen barkatu ? Hori zen behar bada Ruthen penitentzia. Zertarako zen intrantsigentzia, amodioak ez bazuen ordaintzen ? Ezekhiel ahantzia ote zuen : « Desiratzen dudana, gaitzegilearen heriotza dea ? - erran zuen Jaunak -. Ez dea gehiago, bere bizimoldean aldaraztea eta haren bizitza ? ».

Salomon ahalketu zen eta nigarrez hasi. Bizi bat ez daiteke berritx egin, ordean, bururatuxea delarik. Bere nigar malkoen artetik, zeruko urdina oihal gris batek estaltzen ikusi zuen. Gaua bukatzera zihoakoen. Egun berriaren altxatzeak, beldurra garaiturik, esperantza berritx piztu zuen haren baitan. Gamliel eta Eli berritx ikusi nahiko zituzkeen. Zergatik herioaren obsesione hori ? Egun sentiko argiak ez zuena gauaren iluna iraungitzen ? Leihoaren gibelean, zeru puskaño hura gorraildu zen. Eztulak

beretu zuen berritx. Bista nahasi zitzaion. Begiak estaltzen zizkion lainoa urratu nahiz, indar bat egin zuen, bularretako mina iratzarri ziona. Hasperen bat bota zuen, eta etxe guzia ikaratan jarri zuela iruditu zitzaion. Nolaz ez zuen atezainak deusik entzun ? Begietako lanbroa altxatu zen, ganbara ber-ikusten zuen, mahaina, armarioa, leihoa zeruarekin. Azken hau kolorez aldatu zen : arrosa, briolet. Salomonek biziki maite zuen Gamliel, mutiko jeneros, langile, legeari atxekia. Haren alaba, Sarah, ez-kondua zen, eta haren semea, David-ek bi haur zituen : Abraham eta Rebek Betierekoaren laguntzarekin - benedikada dadila ! - denak judu zintzoak izanen ziren. Altabada maiteago zuen Eli, mana-gaitzago, irekiago zen. Maite zuen, bai, arabe horieri juntaturik ere; juntatu zitzaielakotz behar bada. Bizitza, bere haurtzarorako bideen irudikoa zitzaion : arrolak, harriak, eta bizkitartean, bide markatu bat. Irriño bat egin zuen.

Ez ziroen konpreni zergatik irriño hori ezpainetatu zitzaion eta herrek nahigabea sortu zitzaion. Oinazearen ausikia bortitxago egin zen. Deitu nahi ukan zuen, ezin, bermatu zen momentu bat, debaldetan : ahotsa, hor nunbait bere hortz tinkatuen gibelean gelditzen zitzaion. Etsitu zuen. Zertaz ari zen orai gogoeta ? Bideez, Poloniako bideez, hango urki zuriez, Ukrainiako bideez, elur zikinduak estali bide-xendra bihurtuak-tuez, Kazakh estepetako errauts horilaz ...

Jerusalemeko bideak haren gogo nahasia estali zuen. Sanson-en bidea zertzala uste zuen. Itsas bazterrean hasten da, eta eskuin-ekzer zeharka goiti badao, Judeako mendietan gairi : bihurtune batetan, ustegabetarik, agertzen zaizu Hiria. Salomon, Harresiaren-zutik irauin zuten harri zabal juntatu haien aintzinean ukan zuen pozaldiaz oroitu zen. Bere Historia. Nola ez bere erchiez hunki memoria : harri haiek esku betez perkatu zituen orduan. Eztulka hasi zen. Oinazeak begiak hetsi arazi zizkion, eskua higitu nahi ukan zuen, baina beso-zangoak pizuegi zitzaizkion orain. Berritx jendaldea ikusi zuen Auhenen Harresiaren oinetan, haren aitzineko bilgion. Arrotzentzat, aztarna baizik ez zen Harresia. Juduentzat, aldiz, ... zer zen zuzen ? Lekukotasuna. Kontent zen hitza atzemanik, zenbait aldiz errepikatu zuen, hortzak tinkinean zituelarik beti. Horrek akituago zuen. Nekez ireki zituen begiak. Oro lanbrotu ziren. Lanbroetan Varsovia, Eli, Ruth, Harresia.... lekukotasuna ... zergatik lekukotasuna ? Oroitu beharrez ari zen. Zertaz oroitu beharrez ? Begiak hetsi zituen, ilunean zen berriro. Beldur zen. Betazalak beso-zangoak bezain pizu zituen orain. Goizargian ematu zitzaion dolorea berritx atzarri zen. Emeki emeki bularretan gairi goiti heldu sendi zuen. Ahoa ireki zuen, oihua atera zekion, baina ez zuen aditu.

Goizean, atezainak Salomon Rotstein hilik aurkitu zuen, eta norbait Gamliel-en bila igorri zuen.

Ez dugu gehiago ikusiko Georges Brassens, bizirik, bere gitarra eskuan, denbora zaharretarik aterako bardo bat bezala.

1952.ean, lehen aldikotz publikoaren aintzinean presentatzen delarik, Brassens-ek 31 urte ditu eta ez da batere ezagutua. Sete-n sortua, familia xehe batean, 1940.ean joan zen Parisera. Gerla denboran, Alemaniara igorria izan zen «Travail obligatoire» delakoaren egitera. Gerlaren bukaera segitzen duten urteetan, anarkista militante bat izan zen. Baina ez zuen militante baten izpiritua. Brassens bakartiarrak, musika eta poesiaren bideak hautatuko ditu.

Orain duela 30 urte, publikoak hasi zuelarik ezagutzen, sekulako eskandala egin zen bere izenaren itzulian. Kritiko gehienak kontra joan zitzaizkion. Ez bait zen tabuen beldur, agintedunak ez bait zituen errespetatzen, usaian ziren ideien kontra joaten bait zen ... Ez, Brassens-en piko, zirikada eta zantarkeriak ez ziren aise ametuak izan.

Baina aspalditik «fama txar-ratik» ateraia zen, Frantses Akademiak ere onhartua zuen «Poesiaren Saria» emanek. Gaur Brassens denek laudatzen dute; monumento bat bihurtua zen. Segur, berak nahiagi izanen zuen orain duela 30 urte bezala, izitu eta harrotu «sendimendu onezko» pertsonak, baina gizarteak poeta gibeletik atxemana zuen eta lehen eskandalo egiten zuten hitz eta ideiek inor ez zuten harritzen gaur.

Batzuek diote damugarri dela ikustea aspalditik ez zuela deus berrik ekartzen. Halere ez dezakegu ahantz, frantses kantu bideak ideki eta berritu dituela beste batzuekin.

Georges

ARCOCHA Aurelia

Aurelia

ARCOCHA

Brassens

Bere influentzia ez da hor gel-ditu. Brassens, Paco Ibañez-ek dion bezala, «poeta unibertala» bait da. Halaber Gabriel Garcia Marquez-entzat, Frantziako poeta handien-tarik bat zen. Ez zitzaion, alta, Brassens-eri «poeta» kalifikatibo hori gustatzen; «ni kantu egile naiz» zion. Eta Colombiar idazle handiak aitortzen duelarik frantsesa ikasi aintzin bazakiela gogoz «Testamendua», ez ote zuen denbora berean ametitzen, Brassens-en boz berezia, Brassens-en kantuen erritmo zatikatu-a, hautsia, zitzaiola lelo magiko bat bezala, buruan sartu lehenik ?

Xalbadorek ere ainitz maite omen zuen Brassens. Eta kantu egileaz zen jelos preseski. Xalbadorek, usaia den bezala bertsolaritzan, jadanik ezagutzeko doñu batzuekin beztitzen bait zituen bere bertsoak.

Badirudi urriki zuela doñuak berak ez eginik. Berak egin izan balu musika, kantu gehiago eta ederragoak egingen zituela omen zion. Ongi pentsatuz, nola Xalbador bezalako bertsolari bat indiferent egon zatekeen musika eta hitzak hainbat ongi josten zituen gizon baten aintzinean ?

Kritiko batek dio «Brassens musikaren gainean promenatzen zela». Ez ote du bertsolariak gauza bera egiten ? Bestalde, Brassens-en poesi-antzerkiek Xalbador hotzik uzten ahal ote zuten ?

Dena dela, biziki interesante da ikustea Xalbadorek Brassens-engan atxematen zuen ahaidetasuna.

Xalbador eta Brassens lurra-ren pean daude, baina haien bozen oihartzuna orain eta luzako airean dabil.

Poetak ez bait dira hiltzen, omen.

Maiatz 53

Mintzaje ta eskola ziberoan

E'lüke üdüri, bena gure kartiel txiapiak, mintzaje ta eskola süberte hanitx egari, ezagütü eta galdü dütü, mente batetik bestila igaraitez.

I Mente zaharrenak (X - XV)

Frantsesez «Moyen Age» eta eüs-karaz «Erdi - Haroa» deitzen dügün denboran, baktzak bere lekia etxekiz, Züberoak lau mintzaje erabili dütü : latia, Gaskoniako eta Nafarroako erdarak, eta kartieleko «hüskara». Denbora hetzaz berri güti balin badügü, badakigü - orotan bezala - popülia artzaiñ laborari, eta ofiziale zela, jaunak beste herritan beno txi-piango ziren eta zombait aldiz laborariak beno lür apürrago zielarik, gerlakan ari zirela Europa orotan eta eskola güti zielea.

Züberoako paper zaharrenak latiz ezkibatürik dirade, eta lege-gizon zombait ez kanpo apezek baizik etzakien irakurtzen. Erdi-Haro horren hürrentzian, Gaskoniako Mintzajiak legezko paperretan latiaren lehia hartüko dü; bi mintzaje horien artean Nafarroako «Romance» izeneko lengüajia, españolaren egite diana, ere mintzatzeko eta ezkibatzeke erabili da, Züberoa Nafarroako herri bat izan deno, hots berrehün urteez (X-XII. menteetan).

Eta ordüko «hüskara» ? Jenteek, oroek, mintzatzan beitzien zombait nahi aberats izanik ere, gure mintzajian da ordüko «aho Literatüra», geroago ezki-büz bildüko dena. Gure Literatüra zaharraren puska ederrik baratzen zaikü hala nula «Berterretxen Khantoria», hamabostgerren mentekoa, hots 1445. agitia kontatzen deiküna. Denbora hetako dügü «Urrutiako Anderia» Altzürükün egina. Ordian, Eüska Herrian ez eta beste herrietan etzen Poesia eta Khantoria berexten eta Frantzian Ronsard-artino poesiak, guriak bezala, kantatzen ziren. Gure poesia zahar horietarik kanpo, Pariseko Bibliotheque Nationale-an diren Pastoralak ikertüz, jakitera heltü niz, trajedia zombaitetan XV.menteko mintzajia- ren herexak badirela. Bouchon, Frantziako directeur des Antiquités Nationales delakoak, 1500.urteko pastoral «Cahier» bat eskien artian ükhen dü.

Hortakoz, Züberoako eüsakara XV. mentean ezkibatü dela erraiten ahal dügü, ezpada lehenago, familia handien historiak «Khantore» delakotan aipatzez, bai eta baliman Ezkiribü Saintietarik jelki trajediak (Pastoralak) emaitez. Orai, üdüri bazaizie Züberoa lau mintzaje soberaxko zela, ez zaizie, ahatze behar Basabürian ba direla xaharrak, bearnes, español, frantsesez eta eüskaraz mintzatzan direnak.

II Hamaseigerren mentean (XVI)

Mente hortan dü gaskü ezkibatiak (zombaiten «gascon de Bayonne») dela-koak, frantsesari lehia ützen legezko paperren egiteko Züberoa, nahiz zien etxeko paperretan orano XVII.menteko kontratü zombait, bearnesez badiren Oloruen eginik badirade. Mente hortan, aintzinekoan bezala, eskola egileak apezak dirade, oroz gaiñ Maulen eta Atharratzen. Eskola handien egiteko eüskaaldunak Pauerat, Bordelerat joan behar dire, nun ezten Parisera. Frantsesa, aberatsen artean ikasten da, abokatü, notari izateko, bena ordüko Jaun handiek ez die eüska baztertzen, Bela-ko Jauna eta Zalgize-ko jaunak eüskaraz ezkibatü badie, maleruski beren ezkibü handienak galdü dütügü, protestant beitziren.

Protestant horien, higanaut horien semeak katoliko arraegitian apez eta apezküpü izanen dira, hala nola Bela-Peyre eta Ezponda (de Sponde).

Ezponda, Mauletar familia hortan bat protestante egonen da bena La Rochelle-ra eskapiko, han, frantsesez, seküla-ko poema ederrak eta jakintsiak ezkibatüren dütü; hori da Züberoa, frantsesari, orai arte, eman dian ezkibazale handia.

Sirats gaistoak hunkirik protestanten obrez ez zaizkü, Bela-k eta Zalgize-k bildü erran zahar zombait, baizik baratzen, gure kartieleko eüska kanbiatü den ikusteko hitz bat edo beste baztertzez, manexa üdüri beitu. Orduko, pastoraletan, ber «hüskara» irakurtzen da. Eta popüliak zer ? Lan-gosez, Ziberotar hanitx Españala jornaletor joaiten dirade, eta besteak Frantzian behera Errege kor-te famatiala mithil; ordian gizonetan hanitxek española badakie, zombait frantsesa.

Denbora hartan ere familia handietzaz khantore ederrik egiten da Atharratzeko Jauregian edo Ozaze jauregian, ordüko ederrena dügü. Badakigü denbora hartako ziberotarra zer zen, Lizarraga protestantak bere Testamendu Zaharra-ren ondotik kartieleko hitz «diferent» en herroka bat emaiten beiteikü, Zalgizen hüskara eta pastoral zaharrak üdüri. Urte hetan, ihork ez peitzian gaskua ontsa konprenitzen züberotar Lege zaharrak frantsesez ezarten dira eta librü gisa emaiten «La Coutume de Soule». Mente hortan bost mintzaje batügü bena Nafarroako erdararen lekhian, Españako Castilla-ko erdara badügü; gaskuaren lekhian bearnes sübertia ere mintzatzan da Züberoa lekhü hanitxetan; latia, apezek eta eskolatü zombait die erabilten eta frantsesa beste ezkibütan. Mintzaje ezagütienak eüskarak eztü bere lekia legezko paperretan, lati mintzajetik hürünegi izatez ezpeitü haren lekia hartü ahal izan.

Memento bat gauza bihurtu, gauzatu, hartzen eta itzulikatzen ahal izaitzeko, oroitzapen labean pausatzeko, denboraren korapiloan ahantzi orde.

Iheskorrak bait dira, iheskor. Zigarretaren kea bezalakoak, gauza berdinetaz eginak baina beti forma diferente bat. Aintzineko zuhaitz hauek, eta hango haiek, berrikitan berdetuak.

«...llaman al teléfono...zaldi bat dago salgai... beharrean aurkitzen da... Loiolako Herri Irratia...» Baionako katedralaren geziak, buruak baizik ez ageri. Zuhaitzak dardara, ezker eskuin, eskuin ezker, haizeari esker. Lanpagailu anakronikoa, tren-bide erdoilduaren hango aldean, errebotean ari da eguzkiarekin. Harek damaio segurik aire bitxi hori, beste galaxia bateko metalaz egina baillitza, dirdiratsua, xuri zorrotza.

Hotzgailuaren kurrinka iraunkorra, Macondoren euriaren gisan beste ixiltasun mota bat bilakatu. Garazitik datorren tren arkaikoa, bi bagoiekoa, urratzera jina baina ohituren kapituluak gaketua. Hura ere ahanztean eroria ixilka : nahiz haren oihartzuna oraino hisiatzen zuhaitzetan, nehor ez da gehiago haren iragaiteaz oroit. Teila gorriak hauzoaren etxeokak. Gaineko leihoa erdi zabalik, ala erdi hetsirik. Zuhaitzak berriz, hauek ere dardara, zerbait oraino bizi delaren lekuko. Primaderako lehen uli ausartia balkoiko ate idekitik barnera, itzulika, kanpora.

Beste tren bat, munstro bat iduri. Zuhaitzei lot soa, trena paisaiaren beste gailu bat baizik ez da. Trenari lot begirada, denak mugimendu iduri du, baina pasatua delarik, zuhaitzak mutur. Zuhaitz hurbilek, hor berean. Aulkiaren zura bizkarrean sartzen maltzurki, bere burua haragian ehortzen progrezione monotono batez. Posizioez aldatu.

Aldaxka bat, bestetarik berextua, bakarik, beso fin baten grazia, larrua zeruak ixurtzen duen esneak xuritu, haren formak ezin hobeak bait dira, artista ezezagun batek maixuki xixelatu. Aldaxka-besoaren osotasuna, hausketarik gabe, erregularra, bizia, maitagarria. Zeru hurbilari eskainka ala deika, gora begira, bakarra eta ainitza, kea bezala, zuhaitzen gisan, iragaiten den unearen pare; dena eta deusaren sinbolo ahula.

Txori bat pasatzen. Txori bat, haragia eta hezurak, lumak eta hegalak, alimale ttipi artikulatu, airean ibiltzen da-kiena.

Itzala gibelka hasten da balkoian. Lurra ba diak, nahi likek joan, bai, baina ezin, beti itzuli bera egiten dik. Utzak egitera. Kearen usaina, sukaldea kutsatzen duena, gure azken hezurak suntsiturik oraino somatzen ahalko baita. Gaineko estaiatik zenbait kadira-arrobots. Lasaitasun desesperagarri eta beldurgarri hori. Azantzen ausentzia edo, xuxenkiago, arrabots guzien ixiltasunean ixurtzea. Telefonaren mututasun erogarria. Zigarreta hiltzen ari, pittaka, oldartzerik gabe. Hari bat, natura eta gure artean, mehea, Damoclesen ezpata inebitablea gainean dilindan. Pika, luze eta ebats. Detaileak. Oro berdina, herenegun, atzo, egun, bihar, etzi. Bat, bi, hiru, lau, bost. Helduden, joanden. Ezahakerizko sentimendu krudela. Azken puntu hura, hontan baitira nahastekatzen bizia eta heriotza, xuxen ez bait daitezke berex. Hutsaren intuizioa, oihuka. Ttipitasunarena.

Sukaldetik

pehora

Desagertzearen bidean, agurea beti ipuin bera kondatzen, alta aldi guziz diferente iduri. Ipuina beti agure diferente batek kondaturik, alta aldi guziz berdina iduri.

Balkoiko atea hets.

Maiatz 55

Irakurle, ez zaitela izi, ez naiz Lafontaine zenaren gisan fikzio harrigarri eta ororen buru adimendurako probetxugarriak kondatzen hasiko. Ez, nahi nuke soil soilik, bi lagunen zortea den bezala aipatu eta zuen kritikari humilki eskaini.

Ene ezagunetan, ba dira bi gazte, bat munduko itzuliaren egitera joana dena, haizea gidari, bertzea preso altxatu eta atxiki dutena, harria bizkarrean haren lehertzeko.

Haizea

eta

Bertzeak, Harriak, ez dit gauza handirik kondatzen ez eta usu izkiriartzen; iduri du uspeldua duela mintzoa; arrastatu dutelarik, haragiak itsuski zanpatuz mintzoa hautsi diote, baina biziki minbera baita, hark, mintzoak, luzaz atxikiko du uspeldura. Iparralde hontan, maiatzaren hamarra pasatu geroztik, frango ari dira demokrazia goraki aipatzen eta nola erabil eskuin eta ezker erakusten, baita ere urruneko herrietan altxatzen diren fazizmokerien kontra gogorki mintzatzen. Baina, hitaz eta Puerto de Santamarian hirekin diren lagunetatik ez die kasik deusik erraiten.

Hona orain lekukotasun bat, Argia errebistatik hartua, España demokratikotan egiten diren gauzeri buruz: lehenik komisariako gertakizunak: «Beti argi zuri baten pean, denboraren ideia ere galdu egiten duk. Azkenean koltxoia (burukita) ekartzen dutelako dakik gaua noiz den. Eta egun osoa izugarritzkoak hartzen.»

Puerto de Santamarian: Preso lanjerosendako erregimen ezpeziala (zeldatik atera gabe egun osoan). Sistema honen ondorioak ongi aztertuak daude, USAn lehenik, Alemanian gero, kartzelatuaren gorputza nahastu dute, asko jaten hasiko da, edo janaria utziko, urduri jarriko da eta erabat desekilibratu. Ondoren burua nahastu; irudipenak, aluzinazioak, izugarritzko deprezioak. Zampaketa zientifiko honen bidez, gizakia anikilatu nahi da, aislatu, herritik, lagun eta senideetatik eta kartzela-kideetatik urrunduz, zihurtasun falta etengabe bizi erazi.»

Haizea eta Harria, adin berekoak, sorteri berean agertuak, biek mintzaira eta mintzo apal berdina, biak mendeak leherturik. Bakotzak ba daukagu gure egun guziko bizi xumean, ainitz gauza poxulu, behatz-topa bide frango segurki... Eta hik, «Haizea», hireak ukanki, bizitzen ikasi duk. Orroik haizea nola ilun eta jada urrundua hintzen istudioren denboran! Orduko bizitzak ez zigen hire heineko helbururik eskaintzen. Xumekeria, xuhurkeria ditugu nagusi eta gidari hire gostuko, eta hemengo ideietaz nardaturik, hemengo jendeen arteko har-emaneztaz aserik, haizearen bidea hartu duk. Noizbehinka letra bat ukaiten diat hireganik, eta ene ausartzi eskasak eskertzen hau bihotzez, ikusiz tinbre-enbelopetan Lima, Mexico, Denver... Ez bait dut sekulan izanen etxetik jalgitzeko indarra. Eta hirekin bukatzerakoan ezarri nahi nizek hire frasetarik ederrena: «Ez diat gauza handirik ikasi, ez nindian hortakotz joana, zerbait erraitekotan, erran nezakek des-ikastera abiatua nintzela; zer nahi gisaz, ukanen ditiat (sekulan itzultzen banaiz!) gauza ainitz ikusirik, eremu askoren usain-koloreak haragietan barrera sartuak.»

harria

«Haizea» lagunaren hegalaldia segitzen dut, letraz letra bere bozkarioan parte hartzen, iraganaren hari hauskorra dugula bien artean hedaturik.

Baina «Harria», nola dezaket ahantz hire baitako mina, nola onart egiten diaten bakardade minkorra.

Letra batean galdegiten didak: «Bizi hiza hi bederen?» Bai bizi nauk, bizi gaituk eta samur gainera.

Ez Espanian, ez Euskal Herrian, ez Rusioan, ez ta ere Argentinan, ez bertze nihun, ez dezakegu onets gizon edo emazte zelda baten hotz mingarrian itzaltzea, deuseztatzea. Baina gaiztoa, nola duk izena? A. Soljenitsyne? Milan Kundera? Miguel Angel Estrellas? Ez, bertze askok bezala, izenik ez duk, baizik harri bat, bizkarrean lotua, ontsa eta luzarako.

Abendoaren 11an, Xavier Grall, Bretaniako idazle poeta zendu da. Bizi guziaz jazarria zen bere herriaren zapaltzaileen kontra eta bereziki Bretaniako kultura tipitu eta ezdeustu nahi zutenen kontra (Haundien botere mugagabe nahiaren kontra bere azken hatseraino borrokatu da, bere idazki eta mintzaldietan. Pentsatu dugu ikasle batzueri egin zuen mintzaldi baten itzulpenaren argitaraztea gure maiatzerako agerkarian. 1967.ean eman zuen, baina egungoa da haren karra eta kultura aberasgarriarekin. 1982 eko leihorretan, Bretaniako haizea

Xavier Grall

Bretania, egun, Antigonan da Azazkalekin lurra zila dezan, han bere maitearen ehorzteko, galdegiten diote {

Haren maiteak, zuek zarete, ni naiz.

Creon-ek, Pompidou izena duela, bere zangoko behatzak gure ondartzetan mainatzen ditu Antigonari buruzko omenaldia ez da urrunago joaten. Baina, Antigonaren azazkalak gogorrak dira. Eta boz eder batekin Hil hobien sahetsean jazartzen ari da

Kulturaren garrantzitasuna Bretaniaren geroarentzat, baina arrunt baitezpadakoa da. Erraiten ahal da problema bakarra dela Ez dela beste problemarik. Bizia beraren problema dela

Kreatzen ez duen populu bat, hiltzen ari den populu bat da.

Kantatzen eta oihuka ari direnen ahoak hesten badira, erahiltzen dira. Hesturak mota guzietakoak dira. Batzu dira basak Beste batzu sutilak. Hemen Inca herrietako bardoak ezpatarekin suntsitzen ziren. Hor, bardo bretoinak ero bezala ekartzen zituzten. Hemen konkistadoreak. Hor, eskoletako inspekturrak. Mundua, horrela, ezin entzunezko kantuek, kolore fundituek eta poema galduak betetzen dute. Inperio haundiak inperio kulturalak dira.

Ezaguna da Staline-n ateraldia: «Batikanoak, zenbat soldado dibisione?». Oharpen zozoa. Zer izanen zen Staline, Karl Marx gabe? Zer izanen zen frantses inperioa, Klasikoak gabe? Zer izanen zen espainol inperioa jesuiten Biblia gabe?

KULTURAZ KOLONIZATUAK

Ez da kolonialismo izigarriagorik nola kulturazko kolonialismoa. Mail hortan, monarki gaullista ez dabil hain gaizki Gramatikak soldadoen livretak ordaindu du. Norbait aiseago estekatzen da arrotza zaion mundu bati. Eskola alienazione tresna erradikalago bat da kaserna bat baino. Jakin behar da hori. 3 esterik ez.

Frantses inperio kolonial berria deitzen da Francofonia. Ez du balio harritzea. Jarriak diren botere guziak, nun nahi izan dituen, zapaltzaile eta konkistatzaileak dira

OSOKI GIZAKI BAT IZAITEA

Bainan, zertaz ari gara? Kultura eta Bretaniaren geroa, diozue (Ba, eta Bretoinen geroa Azken finean, gizaki batzu izaita, osoki. Ez gizaki kanbiagarri bat. Ez da bizi guziaz aireportuen hall-etan pasatzen ahal; kurioski, leku horietan, Detroit-eko makinuna eta Tel Aviv-eko tratulantea edo Paris Match-eko reporter-ak elgarren egite berdin berdina dute. Sortu gara eta lur berezi bat maite dugu. Piska bat mundua kurritu dugu. Bazter batzu ikusi (Beste leihor batzu maitatu (Gurekin egiterik ez zuten beste emazte batzu maitatu ditugu Eta hunat gara itzultzen Brankan dugu bihotza Eta, nun ere ibili baigira, nolana hikoia izanikan ere gure ametsak goxatu duen itsasoa, hunat gara itzultzen. Gure iparrorratzetan, gure bihotzak mendebalera gidatuak dira (Horra zergatik zonbeitek erraiten duten iparra galdua dugula !!

Horrela, osoki guhaur izaitearen gura dugu. Eta hortakotz gure kulturaren begiratze-ko gura.

BA DEA KULTURA BRETOINIK ?

Azken finean, ba dea kultura bretoinik? Eta, gain gaitetik, kultura hori balin bada, zer etorkizun duke oraino, giren mende huntan?

Bainan, zer da Kultura? Malraux-k, hor-tarako etxeak eraiki ditu. Baina berak aitortu du etzakiela soberarik zer zen kultura. Erran dezagun, denbora sobera galdu gabe, kultura dela senditzeko, pentsatzeko eta izaiteko manera bat Eta horrela, dudarik gabe, ba da kultura bretoin bat.

Sentsibilitatea. Lehenik, bat behar da ukan. Alde hortarik ez gara sobera gaizki Sentsibilitate jauzkor bat da, iduri sartua, lurpekoa European dabilan xahar bat bezala gure baitan bakarrik mintzo da. Xahar hozpil bat. Kantu bat, bidean kausitu adiskide bat, baso bat arno, eta horra sentsibilitate hori, argian dantzan. Irma bretoinak, alde hortarik, eslava aire bat ba du. Kasetalaritzan ibili denboratik bi oroitzen azkarrak gelditu zauzkit. Bi taberna ziren. Bata Viennan. Hungriar taberna bat Bestea Dublin-en, Irlandan, bera gelditua izanen zen Bretania hortan. Bi toki horietan senditu dutana da elgarren arteko sentsibilitate baten jalgitzea. Batean eta bestean, edaleek ikusgarrian parte hartzen zuten. Poetekin kantatzen zuten. Heiekin irri egiten zuten. Heiekin oldartzen ziren. Herri bat osoa, zauritua, hor zela sendi zen.

Hemen, tanke rusoez odoleztatu Hungria bat Han, Ingalaterraren korona desafiatzan zuen Irlanda bat, erreginararen soldadoeri lehegailurik botatzeko ez ukanik penetan zen Irlanda bat. Denek senditzen zuten eta bertutan erraiten, bizidun talde batek izaiten ahal dituen jazarketa, aberrirako pasione, kolera, alaitasun, tristezia eta etsidurak. Momentu horiek maite ditut. Populu ukatuen graziazko estatuak...

Maite 57

Bretaniaren geroa

SENTSIBILITATE BIZI BAT

Sentsibilitate bizi horrek, bere buruzaz kezkatua, gure gogoetako ezin geldituzko uren gorapen eta beherapenekin, espresio poetikora zuzenki ekartzen gaitu. Erromantismoaz eta bere sorkunde keltoaz ikasia duzue. Ez du balio berriz horren aipatzea. Tesiak idatziak izan dira. Liburu jakintsunak ere. Erran dezagun laburki gure amentserako ixurkia segurki ba dela eta ixurki horrek, ontsa baliatua balitz, gaurko idazki eta arteeri dimentsio gainerako bat ekar lezakeela (Robbe Grillet-ek kasu eman behar luke Ossian ez sobera bazterteaz.

Gure adimenaz (inteligentziatz), erran dezagun intuiziozkoa dela. Bakotxak ba daki hori. Jadanik erranak ez ditut ber erranen Jainkoak, nolazpeit, zerbait gehiago eman dauku. Baitezpadakora xuxen joaiteko ahal. Ba dira populuak duda-mudakariak. Guk, burura jotzen dugu berehala. Guri da holako ahalaren baliatzen jakitea (Guri izendatzea. Guri erraitea. Guri idaztea. Guri bizitzea Guri gudukatzea Borrokarikan gabe ez da kultura bizirik.

Orai arte, kultura hori, elearekin idatzia-rekin baino aiseago agertu da. Barzaz Breizaren gertakariak jakinak dira, Selauruetan erran leiendak eta hitzak. Jauregi gordagietan erran leiendak. Etxaldeetan ahozkatu leiendak. Miseriazko eta fiertasunezko leiendak larretan erranak. Ahozkatu kultura Kultura ahozkatu bat dugu. Bihotz garbi batzu, taulaño zombaitetan kultura hori bildu nahiz ari izan dira. Ebanjelio bat bezala. Bainan, dudarik gabe, beren sor jantzietan texto horiek behar dira entzun Beren berbo propioarekin. Frantsesera ez itzuliak. Ezpaten puntak bezala hitzek, orduan zilatzen dute. Hitzak, orduan, ardi ileak bezain beroak dira.

Ukatuaren nahikeriarekin edo bakar-tiarraren urguluarekin berriz eskuratu kultura. Jakez Riou bezalako poeta batzuek edo Tanguy Malmanche bezalako antzerki egileak. Ez dut gehiagorik erranen. Ba dakit, hemen, ni baino jakintsunagoak ba direla. Neofita bat naiz gai hortan. Ene herriaren ritmoa ez dut hogei ta hamabost urteetan baizik ber aurkitu. Egunak eta egunak beharko ditut oraino nihaurren izaiteko.

Jantzietan, mubleetan, arte sakratuan agertzen den kultura kolektiboa. Beste nunbaiteko herrietarik jiten zen guzia bretoinak bere agotik ber pasatu du. Munduko tankera guzietan hartu bere ontasunak eta bere moldera plegatu ditu. Zerbait erraiteko ba zuen. Akaia zuen eskas. Nobleen edo Elizakoenganik beharrezko eskudoak hartu ondoan, erraiten zuen: «Eginen dut hori, Parisen edo Floren-cen bezala». Obra bururatu eta, beste zerbait egina zuela, gerezi basa edo harria keltizatua zuela ohartzen zen. Keltizatuak zituen ere burukoa, maripulisa, xapela, Introit-a eta Ite Missa Est-a...

HERRIKO KULTURA BAT

Herrikoa deitzen den kultura. Kultura kolektiboa, arras pertsonalista. Aire bat hatsa hartzeko. Xorilari lerdan batek bezala guretzen ginuen haize bat. Xoria beste nunbaitkoa balitz ere, gure nigar eta irriak emaiten ginizkion. Ontasun gorde hori, munhoen gordagietan, lei-horretako haizean. Haren bihotza eskuratzeko, Bretanian ainitz ibili behar da. Zuen denborako hutsuneak baliakitzue. Herriko bidexkak harzkitzue. Sar zaitetze kaperetan. Egin galdeak iturri eta hezur hil herrieri. Zuetarik puska bat beti nunbait lurretik bilduko duzue.

Zuen indarrak eta kuriositateak emeki emeki aberastuko dautzueten jakintza horren gatik ez ukan espantu zozorik. Gureak baino eskultore abilagoak ba dira. Poeta handiago batzu. Kulturaren kontrarioa da kultura eihartua. Geroxago aipatuko ditut.

Beraz, kultura berezi, lanbrotsu, lurpeko bat ba dugu. Hartarik dugu abiatu behar, eta egungo munduaren haxean jarri. Eta biharkoan. Zeren eta, Bretania ez da izanen ez balin ba da exprimatzen.

SINESTEN DUTANA

Orduan, erranen duzue, zergatik lanpak itzalirik daude? Arrazoin duzue. Hor da arazoa Ene sinestea salatuko dautzuet. Lehenik hau ba da izurrite bat, «la province» goiko nagusiek hala deitzen dutenaren baitan dagoena. Regionalismoa kulturaren kontrarioa da. Henri Queffelec, Michel Debré-ren ildoetarik doa. Nahiz Queffelec -ek talendu zerbait ba duen. Bainan, zer erran dezakegu beren buru «bretoin» deitzen duten literatura horietaz? Gure andere haundiek izenpetzen dituzten poema eta elaberriak, beren broderia, buruko muntadura, kaio, eta oteekin ... aipatu nahiz gure pentsamendu eta nahikundeak... Botrel xarmanta zen. Bainan bretoina zena? Aa, bistan da, turistek maite dute. Beren hiri auzoetara ekarri pusketan Quimper-eko HB gatiluaren ondoan Théodore eta Théodule-n dizka dago.

Bretaniak ez dezan bere permanentzia ager, nahi duten horiek guziak, alegeratzen dira hain ontsa erroraino baliatzen ba dakiten gure pertsona itxuraldatu hortaz.

Alde hortarik, zaudezte lasai, agerkari batzuetan, beren titulu regionalista planttakoak aurkitzen dituzte. Ez dela sobera galde egin behar kantonamenduetako paper horieri egia da. Ordoki hits horiek Botrel-en gari beltzak baizik ez dituzte nahi.

Regionalismotik baztertu eta Bretania, izaitze berezi bat bezala kontsideratu kultur eta izpiritu mailetan. Egin behar dena: lehenagoko lur zaharrenekin kantu berriak idatzi. Bretoin elaberri egile izaiten ahal da eta ez Bretaniaz mintzo. Samuel Beckett-etarik, Y.M. Rudel etik baino hurbilago bere burua senditzen ahal da. Kreatuko dugun mamiak gaitu edo Kelto edo Latin eginen.

ASKI ZINKURINA

Bainan, bizi nahi duen Bretania hori beste virus batek paralesiatzen du. Zinkurinka arzteak. Hori da azpikotasun konplexa higuigarri hori, politika batek eta egituren eta bizimoldeen aldaketa orokor batek gainera hantzen dutena. Ate xokoan masturbatzen ari gira Kultura greko-latinaren kontra ez dela deus egitekorik beti erran daukute. Denetarako ihardespena ba zuela. Eta unibertsa zela. Garraituak ginen eta gure nagusiak sinetsi ditugu. Gure xokoan gure kolerak marmarikatzen ginituen Guhaurren ahalge ginen. Horrela, pseudo-kultura zinkurinkari hori, antzua, erdi bretoina, erdi frantseza, gutarik hainbestek oraino zabaldu nahi dutena. Zer miseria. Burra mintua Ondorioak? Aski da begien idekitzea Probertzako villa batzu Beg-Meil-en, mezkita elizetan, kalonje hepaticoen kantikak gure dizketan. Ez da kulturarik fiertasun gutien bat gabe.

Eta horra nora heldu nahi naizen Ez da gehiago kultura bretoinik izanen aitzin hautu bat egin gabe. Hautu horrek hau izan behar du: Bretania nazione bat bezala kontsideratu eta ez Pompidou-ren konzeptionetan bezala «region» bat. Regionea, izaki teknokratiko bat da. Bortxaz, mugatua da, ordea, kultura egiazko batek ez du mugarik. Regione bat luzagabeko gauza bat da, aldiz, kultura bakotxa permanentzia baten baieztatzea da Nazioea hil ondoan gelditzen dena da regionea. Preseski, gauza inportante dena da ez hiltzea.

Gure E.N.A.ko ikasle ohientzat, argi eta garbi da, basurde eta gizaki butu-dun batzurekiko regione bat parke ahal bezain natural batzuekin, problemarik gabeko regione bat izan ditakela, Delako «loisir»ezko kultura baten zabaltzaileentzat, Bretania plataforma ideal bat ditake. Udan, gure paristarrak jin ditazke trein espezialetan. Raz-eko lur muturra eta Kreisker-a bisita lezakete. Aratsean, entzun dukete Bro-goz-mazadou edo Paimpoles edozoin bat. Sagar ardoaz ase eta prospectus batzu Armoreko abere eta landareeri buruz. Hori egin dute Indioen haurrekin, populu libro haundi horrekin. Gero, jin ditazke etnologoak, soziologoak eta mundu modernoko Trissotin guziak. Eta gisa berean linguistak eta filologoak. Zer pastiza estrukturalistentzat, ala ez?

POPULU UKATU GUZIEKIN
BATEAN

Bainan, ausartatzen delarik Bretania aberri bat bezala kontsideratzera eta nazione bat bezala, denak posible dira. Eta orduan, lurreko populu ukatu guziekin harmonian senditzen gira Miguel Angel Asturias, Cesaire gure herritar bilakatzen dira. Orduan Woodie Guthrie, folk song-aren sortzailea gutarik bat bilakatzen da. Orduan kultura betiereko temek gure izpiritua ferekatzen dute.

Orduan, kolonialismoa, debelopamendu gabedia, atzerriratze bortxatuak, minorien erribindikazioneak ez dira gehiago guretzat ideia urruti eta folklorikoak bainan esperantza eta min batzu mugi arazten gaituztenak.

Askatzen

*Erroak airatuz arras erre gabe
Hari baten puntan banoazu beti
Goi ala beheti, lana zutabe
Askatzen ari naiz, askatzen lurretik.*

*Aitamen oihana, urkoen sasia
Buztinen aztuna utzirik atzetik
Meneko ninduten indarren artetik
Askatzen ari naiz, askatzen hasia.*

*Lilien kantua goitikoan galduz
Lurraren lurrinak arrokan ahantziz
Amildegi honen hegira naiz heldu.*

*Sustraiak non ditut, non oroitzapenak
Piru bat bederen banu den mendrena
Askatu beharrez, dena dut ahantzi.*

*Askatzen ari naiz, askatzen lurretik
Askatu orduko erroak etenik
Askatzen ari naiz, askatzen bizitik
Am ildegi a n!*

Nolaz ez erran euskal literatura bere bide ugaritik doala, horrenbeste liburu eta liburuxka ateratzen diren garai hauetan. Lafitte jaun kalonde ospetsuak ez ditzazkeomen, denak irakur. Larrazken hontan behintzat, dazkigun agertuekin laster eginen da inguru mingurua. Argitara eman diren gauzak ederrak eta mamitsuak izan arren, zenbaketa mendratuz doa.

Hala ere, iparraldeko lan idatzietaz bizpahiru aipamen moldatuko ditugu euskaliburu sailean...

Beti bezala, udazken hontan balore segurtatu eta konsekratuek beren emaitzak eskaini dizkigute. Lehenik, laster aterako dena, eta autobiografian darraikanaz geroz, Daniel LANDART gazte suharrak bere antzerkien best zatiak bilduma batean ematen dizkigu. Badakigu Daniel Landarten balio literarioak ez duela, ez euskararen alde, ez eta militantziaren aldetik nehon beste parerik. Lorategi hau ELKAREk argitaratuko du...ELKAR ber horrek haurrentzat sail interesgarria darama: Julen Verne, Mark Twain eta horrelakoen idazlanen laburpenak ateratzen ditu. Eguberrikariko presente bezala, liburu horiei pentsa dezakezue. Gainera komikiak ere badituzte.

Behar dugunaz ere, herriko apezkrazia honen indarra laudatu, «Jesukristoren imitazioa» sailan, HERRIAK Jean Hiriart-Urrutyren «fedearen argian» agertzen digu. Hau adinekoentzat, eta gaztetxoentzat hor dugu katixima ilustratu bat «Harri Biziak» apezpikuetxeak atera duena, bi hizkuntzetan eta Etchegaray kardinalaren hitzaurrekoarekin...Fedean beti zintzo euskalduna!

Balore segurtatuak aipatu ondoan, hitz bat generrake JON CASENAVE gazteaz. Bere ipuinak (ilun ilunak, omen Mirande zenaren ildotik doatzinak) bilduma batean agerrarazi ditu HORDAGO etxean. Lehenagotik ere beste bi liburu sortu zituen «Ustela» sailan («Zutaz amoroski» eta «Azkenean dilindan», hau Mattin Larzabalen kolaborazinaz) iparraldeko euskolastika mentszale hontarik baztertu nahian. Oraiko honetan dirudi euskarak irabazi duela (zerbait zer bait irabaztekotan, noski!).

Kapitulutxo berean bi liburu tekniko aipa genezazke, biak hegoaldean argitaratuak: dira, bat Karmeletxe-nagusia «Iparraldeko idazleen loretegia» (hirurogei bat izen lerrotatuz, hemengi idazketaren prolematika azaltzen digu), eta bestea «Bertsotan» ikasteko metoda beharrezkoa. Hazi onaren barreatzeko bi manera!

Azken batean, nola utz isilean iparraldeko balore postumak. Halatan Etien SALABERRI, gure filosofobergoniar handiak bere kontuan atera du, gutun bilduma atsegingarri bat (marrakikiak eta guzi), «Benat adiskidea, agur» deitua, ZABAL etxeak banatzen duena. Bestalde, aita ZABALAK, AUSPOA editorialaren zuzendariak, Mattin Ahetxe-koaren bertsoak eta Xalbador Urepel-ekoaren batzu plazaratuko ditu. Segur gara harrera ona izango dutela, hain dira bi bertsolari hauek gure bihotzetan leku hoberenean...

Bururatzeko gisan, erran genezake (oharpen bat baizik ez da) euskal idazle gazteak sendo eta fuerte dabiltzala adin aintzinatua eduki arren. Hilak ere beren hobietarik mintzo zaizkigu. Ba dute merezimendu horrenbeste irautiaz! Nolaz ez ...

Liburu hauek denak ZABAL, Baionako Panneau karrikako 52an aurki dezakezue.

Hurrengo zenbaki batean, orokorki eta berdin xeheki, 1981. urteko emaitza literarioa aztertuko dugu. Jainkoak nahi baldin badu segurrik!

Lantegiko Komunean

Daniel

LANDART

Lanean ari naizelarik,
batzutan bertsuak sortzen zaizkit.
Baina ezin ditzaket paperean ezar ...
Paperik ez dut eskumenean .
Eta bestalde, papera banu ere,
nagusiak ez nau
bertsu asmatzeko pagatzen ; baizik
lanaren ongi egiteko , eta ahal bezanbat .

Beraz , nagusiak edo haren ordainak
ez ditudalarik ondo-ondoan
lantegiko komunera ihes egiten dut,
eta han egoten naiz , (ez luzaz haatik)
zenbait lerro idazten ditudala tarrapatan
nehork deus jakin gabe

Komunean nago orain ere .
Benetan leku hertsia ... eta itsusia .
Usaina ez dut aipatzen.
Paretetan ikus daitezke ,
langile lagunek egin edo ezarri marrazkiak :
emazte biluzgorriak
eta beste mila gauza !
Hitz zenbait, artetan.
Labur bezain larriak .
Seksoa aipatzen duten horietarik ...
Seksoaren nahia, gosea, beharra, ederra.
Seksoa , toki hontan errege
errege , edo...edo... edo ...
nor ez da seksoaren esklabo ?

Komunean olerki idazten aritzea ,
Hauxe bada gertakari paregabea ...
Alta horrelakoa da ene zortea .
Hemendik , ez dut deus ikusten :
ez mendirik , ez itsasorik ,
are gutiago ametsetako mundurik .
Funtsean , ez nabila
ametsetako mundu baten ondotik ...
Toki hontan ,
nehon eta sekula baino hobeki
senditzen dut nor eta zer naizen ni
LANGILE BAT ,besterik ez .
Baina hori aski zait .

Eta zenbait aldiz, pentsatzen dut ba daitezkeela
ni bezala beste langileak ,
komun batetan
gordeka , ixilka , tarrapataka ,
olerkiak idazten dituztenak .
Segi bezate , segi luzaz .
Baina, ez deiet gutiziatzen gertatu zitzaidana:
Herenegun ; sortuz geroztik paperean ezarritako
ene ustez poesiarik ederren-ederrena ,
Komun zulora erori zait
eta kakarekin batean
urak , denak eraman ditu .

Barkatu ,beraz , barkatu
eskaintzen ahalko nizuen
olerkirik zoragarriena
komunean baitut galdu ...

Gaua luze irarpen da Bihur Bilakatzera

deitu liburuxkatik hartua

Maiatz 6/1

MAIATZ.

15, Pontrique karrikan
64100 BAIONA
Tel. (59) 59.86.33
Banco de Bilbao
20007014004



Abonatzeko:urte batentzat (4 zenbaki):70 F.edo 1300 Pts..
sostengu gisa:100 F.edo 1800 Pts.

— HEGOALDETIK ABONATZEKO —

Diru emaitza (giro bancario) bat egin behar da Banco de Bilbao-rentzat (Baionako bulegoarentzat) zenbaki hundertara: 20007014004.

Ebaki eta itzul iezaguzu hosto hau

Deitura :.....
Izena :.....
Helbidea :.....
.....
Posta zenbakia:.....
Hiria :.....
Herria :.....

Hona hemen hosto honekin MAIATZ urte baten barnean eskuratzeko .

Honako xehetasunak eman ditzakezu, nahi baduzu:
Adina:.....Lanbidea:.....
Telefono zenbakia:.....

Mattin LARZABAL
Eillande DUNY-PETRE
eta MUGALDEkoeri
eskerrak bihurtzen ditugu
beren laguntzarengatik
LAUBURU batasunak
bere "konpokarta" utzi dauku
MAIATZeko textoen jotzeko.
Eskerrik bizienak ere,
BALICHON MJC-ko zuzendari
den M. CASTIELLA-ri
eta Bardozekeo, "LA RONDE"
eko G. SAUCEY-ri.

Heien laguntzak du maiatz sort arazi.

*Edité par l'association MAIATZ
MJC de BALICHON
64100 Bayonne*

*Responsable de la publication
D.Bovard*

*Dépôt Légal: 1er trimestre 1982
Imprimerie spéciale de l'éditeur*

ATERAHITZA

Gutarik bakoitza, egun batez, euskararekin gurutzatu da Egun xoragarria, atsegin neurrigabezkoa
Edertasun eta maitasun hori gogoan, talde lan hau agertzen dugu. Amodioz.

Euskarak hil behar zuela, beste mintzaira zibilizatuei bide egiteko, Unamunok hala zeukan, dohakabeak.

Guk ez dugu euskara beste mintzaira baten compost nahi. Lotsatiarrei eta mutur xurien minkortasunari ez dugu ezer erratekorik : geroa, eginez baizik ez dela egiten...

Euskaraz idatzi nahi dutenei ongi etorri bat zabaltzen diegu : hegaldak dedila hegoak gorritzen dituen mendietarik enoadurak lazten dituen igande arratsaldeetako hirietaraino, eta eskutik har dezala oren poema.

Kezkek leherturik dauden ildoek udaberrian sinestea ahazten dute. Maiatzari neguan sinestea ez da bakarrik eroei emana : Baionako murru batek dauka esperantza menperatasunaren soka dela Ba, baina, jazarketaren bidean, esperantza, hala ere.

Esperantzaren loretegietan : maiatz

Maiatz 25, rue Pontrique •
64100 Bayonne •

depot legal de publication: 1^{er} trimestre 1982. Edité
par l'association Maiatz: M. J. C. de balichon.

Bayonne. responsable de la publication m. howard.

1982. fo otsaila. hiru hilabetekaria. 20 f. 350Pg

Abonatzeko. urte balentzat. 70 fr edo 2200 Ptas.

banco de bilbao. 20007014004. imp Mugalde